



2013-01-07  
ASTELEHENA  
392. ZENBAKIA  
9. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM



AMAIA TXINTXURRETA

**"Korrika da euskara normalizatzeko eta sustatzeko ekintzarik handiena"**

Oskar Elizburu | Kontseiluko presidentea | 7

Mondrak berdindu eta beste hiru taldeek irabazi egin zuten | 22



2011n baino 400 langabe gehiago utzi zituen urteak | 4



Elurteen eta izotzaren aurkako plan berria onartu dute Eskoriatzan | 11

## Gabonetako azken bisitariak

Gabonetako giro magikoari agur esan aurretik, Errege Magoak etorri ziren, eta ume eta guraso pila irten ziren haiek ikustera | 11



IMANOL SORIANO

Meltxor eta Gaspar ageri dira argazkian, umeak agurtzen, Bergarako udaletxera sartu aurretik.

## Teknologia berriak ezinbestekotzat dituzte enpresa handi eta txikiek

Debagoiena da enpresa eta erakundeen artean Internet zabalduen dagoen eskualdea, Eustaten arabera. Enpresa, komertzio eta udalek neurri handiagoan edo txikiagoan erabiltzen dituzte informazio eta komunikazioaren teknologiak, eta ordezkatu ezineko tresna bihurtu dira. | 2

**Copreci kooperatibak 50. urteurrena ospatuko du**

Besteak beste, bideo korporatiboa gertatzen hasi dira | 5

**Argindarra, posta zerbitzuak, Renfe eta aireportuak garestiagoak izango dira aurten** | 5

**Epai mingarria Oñatirendako, baina publikoa, gustura**

Tobera antzerki satirikoak arrakasta handia izan du | 30



Piper Hautsa epailea. | IMANOL SORIANO

**Antton taberna ezagunari despedida egin zioten Oñatin**

Jaialdi jendetsua egin zuten, taberna ixtera doalako | 18

# Teknologia berriak bailarako enpresen ezinbesteko tresna dira

- ▶ Eustat-en arabera, Debagoiena liderra da IK Tetan, enpresa arloan
- ▶ Bezeroekin komunikatzeko eta eguneroko lanerako erabiltzen dituzte
- ▶ Bailarako enpresa gehien-gehienek euskaraz ere badute webgunea

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Eustat estatistika erakundeak azaroan eman zituen datu batzuen arabera, Debagoiena liderra da Informazio eta Komunikazio Teknologia dituzten eta erabiltzen dituzten enpresen kopuruan, Euskadi osoa hartuta. Hiriburuek ere ez dute hain maila handirik. Hain zuzen, 10 langile edo gehiago duten enpresen gaineko estatistika egin zuen Eustat-ek, eta Debagoiena nabarmentzen da kategoria gehienetan, baita euskarazko webguneak dituzten enpresen kopuruan ere.

Eta badirudi estatistika datuek ondo islatzen dutela Debagoieneko errealitatea. Izan ere, enpresek, handi eta txikiak –baita 10 langile baino gutxiago dituzten enpresek eta komertzioek ere–, kontuan dituzte teknologia berriak, eta gero eta gehiagok erabiltzen dituzte euren jarduerako zati integral eta oso garrantzitsu gisa. Erretratu azkar batek honakoa diosku: Debagoieneko komertzio, establezimendu, enpresa eta erakunde gehienek dituztela IK Tak eta gero eta gehiagok dituztela webgune korporatiboak; eta horiek euskaraz daudela. Baina Internet eta IK Tak gauza askotarako erabiltzen dituzte Debagoieneko enpresek: bezeroekin harremanetan egoteko,

marka-irudia indartzeko, hornitzaileekin kontaktuan egoteko, produktua on-line saltzeko...

## Facebook, Youtube...

Import Arrasate ([www.astore.es](http://www.astore.es)) da horren adibide bat. Bertako Komunikazio koordinatzaile Rikardo Idiakezek dioenez, enpresaren egunerokoan erabat txertatuta daude IK Tak. "Txertatzeaz gain, teknologia berrienei adi bizi gara eta etengabeko hobekuntzarako egin beharreko egokitzapenak egiten saiatzen gara. Nola Ternuan hala Astoren webgunea eta sare sozialetan gaude: Facebook, Twitter, Youtube... Halere, ulertzen dugu badugula zeregina hobetzen eta erreminta berriak ezagutzen eta aplikatzen, eta arlo honetan ere berrikuntza

garaian gaude. Aurki berrituko eta indartuko ditugu gure kanalak".

Enpresa gisa, Idiakezaren esanetan, IK Tek "lanerako erreminta hobeak eta komunikaziorako gaitasun handiagoa eskaintzen" dizkiote Import Arrasateri.

Oso bestelako enpresa batek ere probetxu handia ateratzen die IK Tei. Bergarako KB argazki-denda eta estudioari ([www.kbphotoestudio.com](http://www.kbphotoestudio.com)) "dezentezko zabal-kundea" eman dio bere webgunea eta bloga egiteak. Bertako Ion Anduezak euren esperientzia kontatzen du: "Egiten genituen lanen –ezkontzak, estudioak, jai-nartzeak...– laburpentxoak blogean sartzen hasi ginen, bezeroaren baimenarekin. Eta, adibidez, bezeroak umearen argazki batzuk

kanpoan dituen senideei erakutsi nahi izanez gero, blogean sartzeko eta argazkiak ikusteko esaten zien. Horrela, esan daiteke bezeroak joan direla gure webgunea zabaltzen, eta horrek bisita gehiago erakarri ditu. Eguneko estatistikak begiratuta, 100 bisitatik gora izaten ditugu".

Webgunea argazkigintzaren gaineko albisteak, bitxikeriak, KBn ematen dituzten ikastaroak... ateratzeko ere erabiltzen dute. "Negozio gisa, tresna inportantea" dela esaten du Anduezak.

## Bezero motaren arabera

IK Tak enpresaren elementu estrategiko eta eguneroko bihurtu dira eta, kasu askotan, kontsumitzaile arruntak ez du haien lana igartzen, baina bai enpresek.




Enpresa gehienek ez dute zalantzan jartzen

Bergarako Lazpiur enpresak ([www.lazpiur.com](http://www.lazpiur.com)) automatizazio mekanikorako soluzioak egiten ditu, eta Gorka Buruaga informatikoak honakoa diosku: "Webgunea eta Youtuben kanal korporatiboak dugu, besteak beste. LinkedIn sare sozialean ere bagaude. Batez ere, oso produktu berezia denerako, interesgarria da. Facebook, adibidez, gure sektorea eta gure bezero mota kontuan hartuta, ez zaigu hainbeste interesatzen. Horrez gain, periodiko ki mailing-ak egiten ditugu gure bezeroekin, produktu berriak iragartzeko; Interneten gure notiziak ipini eta eguneratu egiten dugu gure webgunea".


Hain agerikoa ez den funtzionamenduaz gain, Eustat-en datuek diotenez, enpresa askok erabiltzen dituzte IK Tak administrazioarekiko izapideak edo tramiteak egiteko. Estatistika erakundearen arabera, Internet eduki eta administrazio publikoekiko tramiteak egiten dituzten enpresak bereziki ugariak dira Debagoienean (%97,3). Hurrengo datu onenak Gernika-Bermeo eskualdeak (%93,7), Bizkaian, eta Kantauri arabarrak (%92,2) dituzte. Donostian, enpresen %88,4k egiten dituzte tramite horiek Internet bidez.

## Udalekin hartu-emanak

Gaur egun udal gehienek dute webgune propioa, baita Debagoienean ere. Gehienek herriaren eta udalaren aurkezpen-txartel gisa erabiltzen dute –alde turistikoa azpimarratuz, herrira nola ailegatu azalduz...–; baita herriko albisteak emateko, kultura eta kirol agenda argitaratzeko eta udal zerbitzuen zein udalean sortzen diren lanpostuen berri emateko ere, besteak beste. Nahiz eta oraindik ez den gauza orokorra, udal batzuek administrazioa-



IKASTETXEAk IK Tendako sektore "interesgarrienera" bat dira, Kam aholkularitzaren esanetan; besteak beste, erabiltzaile asko dituztelako eta Internet irakaskuntza-tresna delako.



ENPRESA PRIBATUA Euskadiko enpresa gehienek dute webgune korporatiboak (irudian, Lazpiurrena); baina IK Tak barruko jarduerarako eta funtzionamendurako ere erabiltzen dituzte.



webgunea eduki behar dutela. Argazkian, Import Arrasateko Rikardo Idiakez. | LEIRE KORTABARRIA

rekiko tramiteak egiteko aukera ere ematen dute; adibidez, Elgetako Udalak ([www.elgeta.org](http://www.elgeta.org)) jasotzen du aukera hori. Erabili nahi duenak udaletxera jo behar du eta sarrera-gakoa eskatu. "Orain hilabete batzuk jarri genuen martxan aukera hori, eta oraindik jende gutxi eskatu du, baina egin nahi duenak klabea eskatu besterik ez dauka", esaten dute udal arduradunek.

Herritarrek Internetez udalarekin parte hartzeko aukera gehiago ere badute. Esaterako, udal aurrekontuak egiteko, herritarrek gonbidatu zituen udalak zertan inbertituko luketen esatera; bestalde, norberak bere galdera bidaltzeko aukera dauka udal webgunea erabilia; sarean dago ere Elgeta Danon Artian egitasmoa; udalaren Twitter eta Facebook profilen estekak edo loturak ere bertan daude...

Hiriburuudako udal webguneak izan ziren izapideak on-line egiteko aukera ematen hasi zirenak. Hala, udal batzuek isunak Internetez ordaintzeko bidea ere ematen dute.

#### Moden gaintetik begiratu

IKTak, interaktibitatea, berehalakotasuna... balio garrantzitsuak dira, baina, betiere, norberarendako egokienak eta modu egokienean erabili behar dira. Horretarako, abiapuntu on bat hauxe da: "Norberak zer egiten duen eta zer egin nahi duen zehaztea". Hori da Aitor Labandibar adi-tuaren iritzia eta aholkua. Oiar-tzungo Kam enpresako kidea da bera. Enpresei eta erakundeek IKTak implementatzen laguntzeko eta nola erabili aholkatzeko sortu ziren enpresetako bat da Kam. Erakunde askorekin egiten dute lan, baita Debagoienekoak ere. 10 urte daroate lan hori egiten eta, Labandibarren esanetan,

IKTetan moden gaintetik begiratu jakin behar da: "Orain moda baldin bada langileek poltsikoko telefono inteligenteak izatea, enpresetan horrek ere eragina du. Sare sozialak modan baldin badaude, orain badirudi dena horiekin konpontzen dela. Baina, niri galdetzen badidazu nondik hasi beharko luketen enpresek, nik, lehenengo, zer egiten duten eta zertan hobetu nahi duten pentsatzea gomendatuko nieke, eta hobetu nahi duten hori IKTe-kin nola hobetu dezaket. Seguru IKTe-kin enpresa hobetzeko moduren bat egongo dela: soft-

ware bat dela, sare sozialak erabiltzea dela, teknologia berriren bat salmentetan edo produktzioan lagunduko diona..."

Modei itsu-itsuan kasu egitea ez da beti ona izaten: "Adibidez, batek plastikozko tapoiak egiten baditu, jende arruntak ez ditu horiek erosten, eta kasu horretan sare sozialetan buru-belarri sartzeak beharbada ez du zentzu handirik", esaten du Aitor Labandibarrek, adibide gisa.

Bat dator Euskal Herrian, orokorrean, IKTak oso sartuta daudela, baina ez berdin sektore guztietan: "Gaur egun, enpresa txikiak ere badauka bere webgunea. Orain hamar urte, webgunea zertarako galdetzen ziguten; gaur egun ez da hori gertatzen. Sektore jakin batzuetan berrikuntza eta teknologia berriak bereziki txertatuta daude. Beste batzuek, enpresa txikiagoek, adibidez, aldaketak ez dira horrenbestekoak. Nire esperientziaren arabera, teknologia-ekin, salmentekin...lotuta dauden enpresek ikusten dute IKTen beharra: biltegiarekin konektatzeko, saltzaileen lana samurtzeko..."

#### Euskarak, funtzio propioa

Euskarazko webguneen datu onena, Euskadi osoan, Debagoienak dauka. Dena dela, euskara gero eta gehiago hartzen dute aintzat Euskadiko erakundeek eta enpresek. Hala, Kam-eko Aitor Labandibarrek dioenez, "gehienek webgunea euskaraz ere egotea eskatzen dute. Udalek ele bitan egotea eskatzen digute; ikastetxeek ere bai. Enpresek, segun eta ze zonaldekoak diren, baina, orokorrean, bai, gehienek eskatzen dute webgunea gutxienez ele bitan egotea; gero, enpresek ingelesez-eta egotea ere nahi izaten dute".



Bergarako KB argazki-denda eta estudioak webgune arrakastatsua du. | KB

IKTak eta euskara modu arrakastatsuan uztartzeko aholkularitza ematen dute hainbat enpresak; tartean, Arrasateko Emun kooperatibak. Emunek ikerketa bat hasi zuen 2011ko azaroan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza-politika Sailburuordetzak diruz lagunduta. Ikerketa hori #sarekohizkuntzak zen. Helburua hau zen: enpresa pribatuek sarean izan beharko lituzketen hizkuntza irizpideen gaineko hausnarketa egitea. Gero, ia azaroan, Donostian egin zen Euskarazko Teknologia Berrien Azokan, Xaren, parte hartu zuen Emunek. Bertan, Txerra Rodriguez Emuneko teknikariak hitz egin zuen, eta #sarekohizkuntzak ikerketako ondorio batzuk azaldu zituen. Esan zuenez, bi hizkuntza erabiltzen dituzten enpresek hizkuntza bakoitzeko sare sozialetako kontu bat ala kontu bakarra erabiltzea, hori izan zen eztabaida nagusia esandako ikerketan. Bada, Emunen gomendio orokorra hau da: "Gure ustez, enpresak sare sozialetan duen jarduna oso zabala ez bada euskara eta erdara kontu bakar batean uztartzeak

ikusgarritasuna ematen dio euskarari. Aldiz, enpresak sare sozialetan duen jarduna oso zabala bada hizkuntza bakoitzarentzat kontu bat erabiltzea proposatzen dugu".

Euskara hutsezko kanalei dagokienez, gomendio batzuk ematen ditu Txerra Rodriguezek: "Mezuak errepikatu eta itzuli behar dira? Gure ustez, ez. Kasu batzuetan ezinbestekoa izango da horrela aritzea. Baina, gure ustez, euskara hutsezko kanalak nortasun propioa izan behar du. Adibidez, beste kanaletan agertuko ez diren mezuak agertu daitezke euskarazkoan". Eta, bigarren gomendioa: "Euskarazko kanala sustatu behar da. Euskarari enpresa edo entitatearen komunikazioan funtzio propioa ematea aurrerapausoa da, dudarik gabe. Baina ezin dugu ahaztu gure hizkuntzak oraindik orain ez duela egoera normalizatu bat, ezta sare sozialetan ere. Horretatik, gure ustez euskaldunen artean euskarazko kanala sustatzeko lana egin behar da, ez dadi-la geratu bigarren plano batean".

#### ESANAK

**"IKTetan sartu baino lehen, ze lortu nahi duen zehaztu behar luke enpresak"**

AITOR LABANDIBAR | AHOULKULARIA

**"Bezeroek lagundu digute gure dendaren webgunea zabaltzen"**

ION ANDUEZA | MERKATARIA

**"Lanerako erreminta hobeak dira IKTak Import Arrasaterentzat"**

RIKARDO IDIAKEZ | KOMUNIKAZIO KOORDINATZAILEA

**ERAKUNDE PUBLIKOAK** Udal gehienek informazioa emateko erabiltzen dute webgunea. Batzuek tramiteak on-line egiteko eta parte hartzeko bide batzuk ematen dituzte.

# Agerraldira deitu dute zenbait pertsona ezagunek

Presoen aldeko zapatuko ekitaldiarekin bat egin dute debagoiendar ezagunek

L.K. | ARRASATE

Urtarrilaren 12rako Bilbon deitutako kale-agerraldira joateko dei egin dute Debagoieneko hainbat pertsona ezagunek. Agerraldi horretan, euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten eska-

tuko dute. Aukeratu duten leloa hauxe da: *Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea*. Bada, deialdiarekin bat egiten dutela erakutsi eta euren ekarpena egitea erabaki dute publikoki Kepa Errasti aktoreak, Pello Garitano erretiratuak,

Manex Agirre bertsolariak, Pello Zabala fraideak, Aitor Mendizabal pilotariak eta Jose Antonio Altuna enpresaburu eta alkate izandakoak.

Informazio gehiago: [www.urtarrilak12.com](http://www.urtarrilak12.com).

## Debagoiendarrak Bilbora

Zenbait debagoiendar ezagunek ere dei egin dute urtarrilaren 12ko agerraldian parte hartzeko.

### KEPA ERRASTI AKTOREA

"Ordua dalako Euskal Preso Politikuen eskubidiak bea aintzat hartzeko".

### PELLO GARITANO ERRETIRATUA

"Nire ustez Bilbora joan behar dugu, bakea lortzeko euskal preso politikoen egoera konpondu behar delako".

### MANEX AGIRRE BERTSOLARIA

"Herrira etor daitezten, azken puntua herriak berak jarri behar duelako, urtarrilaren 12an Bilbon egongo naiz".



Kepa Errasti.



Pello Garitano.



Manex Agirre.



Pello Zabala.



Aitor Mendizabal.



J. Antonio Altuna

### PELLO ZABALA FRANTZISKOTARRA

"Gure sendiak zartatzen, puskatzen ta sakabanatzen saiatu arren, gero eta familia zabalagoa ta batuagoa egitea lortu dute. Halere, ez eskerrik!"

### AITOR MENDIZABAL PILOTARIA

"Urtarrilaren 12an, berriz ere, Bilbo kolapsatu behar dugu legez beteta beharko luketen hiru gauza exijitzeko: Euskal Presoak Euskal Herrira, Bizi osorako espetxe zigorrik ez eta Gaixo dauden presoak kalera. Neu ere banao!"

### JOSE ANTONIO ALTUNA ENPRESABURU ETA ALKATE OHIA

"Espetxe politikak sufrimendu oso handia eragiten du presoengan eta baita bere senideengan ere. Ordua da desaktiba dezaten".

# Konpromisoak eskatu ditu Kaleratzeak Stop! plataformak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoieneko Kaleratzeak Stop! plataformak protesta ekitaldia eta sinadura-batzea egin zituen zapatu eguerdian Arrasateko Seber Altube plazan. *Etxebizitza duin baten alde* izan da leloa, eta horren pean 20 bat minutuko kale-agerraldia egin dute hainbat herritarrek. Euren esanetan, 2013. urtea "haserrea erakutsiz eta konpromiso zehatzak eskatuz" hasi nahi izan dute protesta ekitaldi horrekin.

Plataformak herritarrak animatu nahi izan ditu "finantza eta espekulazio-botereek diseinatutako esklabutza mota krudel hau bazterten dutela erakustera". Berdin zuzendu zatzaie herritarrei zein alderdi politiko, sindikatu, erakunde, elkarte edo gizarte-mugimenduei.

Deialdiari jarraituta, hainbat lagun animatu dira Hego Euskal Herrian eta Espainian egiten dabiltzan kanpainan parte hartzera, sinadura utzita. Helburua da ahalik eta sinadura gehien batzea, etxebizitza-husteen gainera proposamen bat Espainiako Gorteetara eramanez ahal izateko.

### Eskualdeko jendeak osatuta

Debagoieneko Kaleratzeak Stop! plataformak hilabete batzuk daroa martxan eta kaltetuek zein arazo horrekin kezkatutako herritarrek osatzen dute. Ohartarazten dutenez, Debagoiena ez dago etxe-kaleratzeen arazotik kanpo. Plataformarekin harremanetan jartzeko, deitu 669 42 85 98 telefono zenbakira.



Etxe-husteen aurkako sinadurak batu zituzten zapatuan. | IMANOL SORIANO

# Azaroan baino langabe gutxiago baina iaz baino 400 gehiagorekin bukatu da abendua

Abendu bukaeran, %12,18ko langabezia tasa zegoen Debagoiengan

L.K. | ARRASATE

Joera orokorrari eutsiz, Debagoiengan ere behera egin du langabezia azarotik abendura. Hala, azken hilabeteotako gorako joera aldatu egin da. Hain zuzen, aurreko hilean baino 70 langabe gutxiago zeuden abenduan Debagoiengan. Denetara, 3.631 langabe zeuden (%12,18ko langabezia tasa).

Urte osoa kontuan hartuta, 2011n baino 400 langabe gehiagorekin bukatu da urtea Debagoiengan. Hala, iazko urtarrilean, 3.287 langabe zeuden Lanbide enplegu zerbitzuan izena emanda, eta abenduan, 3.631.

### Eskoriatzan eta Gatzagan

Debagoieneko herri guztietan egin du behera langabezia abenduan, bi herritan izan ezik: Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan, apurtxo bat gora egin du. Eskoriatzan, 9 langabe gehiago zeuden

abenduan azaroan baino, eta Leintz Gatzagan, hiru gehiago.

Arrasaten eta Bergaran da handiena langabezia tasa: %14,43 eta %12,75 hurrenez hurren.

Ondoren datoz Eskoriatza (%11,98), Elgeta (%11,25) eta Aretxabaleta (%10,06). Langabezia tasa txikiena duten herriak Leintz Gatzaga (%08,98) eta Oñati (%09,07) dira Debagoiengan.

### Gipuzkoan, 485 gutxiago

Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, azarotik abendura %1,16 txikitu zen langabezia tasa; 1.986 langabe gutxiago. Urte bukaeran, 169.083 langabe zenbatzen zituen Lanbidek.

Urte arteko datua, hau da, 2011ko abendutik 2012ko abendura artekoa, txarra da: langabezia %16,29 handitu zen Euskadin. Bizkaian izan zen eboluzio onena: azaroan baino 1.174 langabe gutxiagorekin bukatu zen abendua (-%1,22), eta denetara 94.811 langabe zeuden. Gipuzkoan, 485 langabe gutxiago zegoen abenduan azaroan baino (-%1,01).

## HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	TASA
Antzuola	109	%9,99
Aretxabaleta	340	%10,06
Arrasate	1.495	%14,43
Bergara	894	%12,75
Elgeta	61	%11,25
Eskoriatza	244	%11,98
Leintz Gatzaga	12	%8,89
Oñati	476	%9,07
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.631</b>	<b>%12,18</b>

ITURRIA: ESPAINIako ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

# Baserriko plastikoak batuko ditu landa garapen elkarteak urtarrilaren 22an

Aurtengo plastiko-bilketa egutegia gertu dauka Deba-Garaia landa garapen elkarteak

UBANE MADERA | ARRASATE

Baserrian erabiltzen den plastiko batzeko egutegiaren berri eman du Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak. Honako datak zehaztu dituzte: urtarrilak 22, otsailak 26, martxoak 26, maiatzak 28, uztailak 23, irailak 24, azaroak 26 eta abenduak 17. Plastiko mota hau batzen dute: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, eta negutegiko plastiko zuria.

Plastikoak arratsaldean utzi behar dira leku hauetan: Eskoriatzan, Zarimuzko bideguru-

tzean; Aretxabaletan, Lausitan (Izurieta bidegurutzetik 100 m-ra), Bainuetxen (Mendiolako bide parean) eta Oroko bidegurutzean; Antzuolan: Ekarpene gune ondoan; Oñatin, Zañartun (Zuazola inguruan), Murgialdain (Asentzio ermitan), Olabarrietan (autobus geltokian) eta Eteo atzealdean; eta Bergaran, Ugarrixan (granja parean), Murinondon (trenbide ondoan) eta San Juan auzoko eliza aurreko plazan.

Aurrez deituta, honako lekuetatik ere pasatuko dira: Arrasaten, Udala, Bedoña eta Garagartza auzoak; Gatzagan, Dorletako bidegurutzea; Bergaran, Elosu eta Santutxu; eta Elgetan.

# Urte berriarekin batera hainbat tasa eta zerga garestiagoak izango dira

Igoera izango dute, besteak beste: argindarrak, zigiluek, Renfeko zerbitzuek eta aireportuetako tasek

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Urte berriak prezio berriak ekarriko ditu. Ohikoa den moduan, prezioak igo egingo dira urte berriarekin batera. Modu honetan, herritarren erosteko ahalmenean eragina izango dute tarifa berriei. Prezio batzuk udalen edo autonomia erkidegoaren menpekoak dira eta horien erabakien arabera izaten dira aldaketak. Hori horrela, aldea egon daiteke erkidegoen artean. Hala ere, orokorrean, ondokoak izango dira herritarren eragin handien izango duten tarifa aldaketak: argia, zigiluak, taxiak...

**Argia %3 igo da**

Urtarrilaren 1etik aurrera argindarraren prezioa %3 igo da. Hori baieztatu du Jose Manuel Soriak, Industria, Energia eta Turismo ministroak. Igoera hori bi faktorek eragin dute: Espainiako Gobernuak sarrera ordainsariak izozteak eta energiaren kostuaren igoerak (% 6,9). Bonu sozialaren prezioa orain arteko bera izango da. Bonu sozialaren onurak jasotzen dituzte ondorengo hauek:

lehenengo etxebizitzan 3 kilowatt baino gutxiagoko potentzia kontratatuta dutenek, familia ugariak, kide guztiak langabezian dituzten etxeek eta pentsio txikia jasotzen duten pentsiodunek.

Bestalde, butano-bonbonak eta petrolotik eratorritako gasak ez dute igoerarik izango.

**Correosko zigiluek ere igoera**

Correosen ere igoerak izan dituzte. Urtarrila ezker, Espainia mailan erabiltzen diren zigiluek %2,7ko igoera izan dute. Hala, orain arte 36 zentimokoak izan diren zigiluak aurrerantzean 37 zentimokoak izango dira. Igoera hori

inflazioa baino zerbait txikiagoa da, eta azkeneko sei urteetan izan diren igoeretan txikiena.

**Renfeko zerbitzua garestiagoa**

Aldiriko trenen eta distantzia erdiko trenen prezioak igo egin dituzte. Urtarrilean ezarri dute egoera; hain zuzen, %3ko igoera. Hori horrela da, joan-etorriko txartelaren prezioak %20ko onura izan duela. Orain arte, joan-etorriko txartela erosteak %10eko beherapena izaten zuen; bada, aurrerantzean beherapen hori %20koa izango da. Hori horrela, Avant txartelak eta distantzia erdiko txartelaren prezioak igoera izango dute.

Autobideei dagokienez, Bilbo eta Donostia arteko ibilbidea 26 zentimo garestituko da: 9,39 euro. Eta ohiko erabiltzaileek sistema berri batekin hasiko dute 2013a. Gehienez, hilean, 25 euro ordaintzeko sistema martxan da dagoeneko A-8 eta AP-1 errepideetarako, T Bidea sistema erabilia. Aireportuetako tasak %7 igoko dira 2013an. Horrek esan gura du 1,40 euro inguru igoko dela hegazkin txartelaren prezioa 2013an.

**Extebizitza berria erostea**

Bestalde, orain dela urtebete Mariano Rajoy Espainiako presidentek %4ra jaitzi zuen extebizitza berriaren BEZa. Baina urtarrilaren 1etik aurrera neurri hori bertan behera geratu da. Gainera, udan Gobernuak ezarritako BEZ igoerak ere eragina izango du: aurrerantzean, extebizitza berria erosteak %10eko BEZa izango du.

Urte berriarekin batera prezioak igo egingo dira, baina, gainera, kontuan izan behar dugu prezioek BEZaren igoeraren karga dutela iraila ezker.

DATUA	
<b>37</b> ZENTIMO	<b>25</b> EURO
Aurrerantzean 37 zentimoko zigiluak erabili beharko dira gurean erabiliko ditugun gutunetan.	Gipuzkoako autobideen T Bidea sistemadun erabiltzaileek hilean, gehienez, 25 euro ordainduko dute.

## Ibarreko saltokietan gaur hasiko dituzte urtarrileko beherapenak

A.E. | ARRASATE

Gaur hasiko dituzte Debagoieneko komertzio gehienetan urtarrileko beherapenak. Azken egunotan hainbat dendatan eskaintzak izan dituzte salmentak sustatzeko helburuarekin; baina beherapenak gaur hasiko dituzte.

Arrasateko Loramendi kirol-dendako Itziar Uriartek azaldu digu eurek, beti bezala, urtarrilaren 7an hasiko dituztela beherapenak. "Kirol arropetako marjinak asko estutzen ditugu; ondorioz, ezin ditugu beherapenak aurreratu", dio. Gaineratu du urtarrilaren 7an ez duela elurrik egin, eta, besteak beste,

horregatik, salmentak ez direla onak izan. Bergarako Mirari arropa-dendako Mari Carmen Nogueirasek saltokiaren 25. urteurrenaren harira eskaintzak jarri zituen abenduaren 19an, eta gaurtik aurrera "beherapen gehiago" izango dituela dio. Hala ere, Gabonetako kanpaina "ahula" izan dela esan du.

**Legedian aldaketak izan dira**

Espainiako Gobernuak Beherapenen Legea aldatu zuen joan den uztailan. Hala, gaur egun komertzio bakoitzak erabaki dezake noiz ezarri beherapenak. Hau da, ez dute zertan data edo iraupen jakinik izan.



Iazko beherapenak Aretxabaletako Belar Meta arropa dendan. | JOSETXO ARANTZABAL

## Aretxabaletako Copreci kooperatibak 50. urteurrena ospatuko du aurten

Urteurrenaren harira bideo korporatiboa gertatzen dabilza

A.E. | ARRASATE

Aretxabaletako Copreci kooperatibak 50 urte beteko ditu aurten. Urteurrena aprobetxatuta, bideo korporatibo berria egiten dihardute. Marketin saila dabil lan horretan, Aretxabaletako Arteman komunikazio kooperatibarekin batera. Modu horretan, kooperatiba ezagutzera emateaz gain, merkaturak zabaltzen jarraitu gura dute. Bideoaren trailerra Italian aurkeztu zuten abenduaren 5ean, Indesitek bere hornitzaileei egindako esker on ekitaldian. Hain zuzen, Copreci berrikuntza arloan egiten duen lana saritu eta eskertu zuen Indesitek. Kooperatibaren asmoa da 2013an hainbat hizkuntzatan editatzea bideoa.

Coprecin etxetresna elektrikoendako osagaiak egiten dituzte 1963a ezker. Sorreratik bezeroari bideratutako kooperatiba izan da Copreci. Gaur egun, munduko hainbat herrialdeetan dituzte produkzio fabrikak: Txinan, Txekiar Errepublikan, Brasilen, Mexikon, Italian eta Turkian. Horiei esker, Aretxabaletako kooperatibak ia mundu guztian eskaini ahal ditu produktuak.

**Saria jaso zuen Italian**

Italiako Fabriano herrian egindako ekitaldian, Copreci berrikuntza sailko hornitzaile estrategikoaren saria jaso zuen Indesit Company-ren eskutik. Seigarren urtea da Indesitek *Supplier Award 2012* sariak banatzen dituen. Sari horrekin, bi enpresen arteko hartu-emanak indar-

tu egin dira. Nabarmendu behar da Italiako Ilpea enpresarekin batera jaso zuela saria Copreci.

Gas bidezko sukaldeetan gasa erregulatze sortutako irtenbide dotore eta ekonomikoagatik jaso du saria Copreci. Javier Oleaga Copreci zuzendariak jaso zuen saria.



Javier Oleagak jaso zuen saria Gabrianon. | MONDRAGON KORPORAZIOA

Oskar Elizburu | Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko presidentea eta Erdu-AEK euskaltegiko zuzendaria

# "Euskara garrantzitsua zaigula erakutsi behar dugu, aktibaziorako ordua da"

- ▶ Euskarak ez ditu eskubide guztiak aitortuta eta aitortutako batzuk ez dira betetzen
- ▶ Normalizazioari begira, ekintza ugari antolatzen ditu AEK-k; tartean, Korrika

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Oskar Elizburu plaentziarrak bigarren ikasturtea du Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko presidente karguan eta dagoeneko 15 urte daramatza Erdu-AEK euskaltegiko zuzendari.

**Zer moduz Kontseiluko presidente karguan?**

Gehienbat, protokolorako gauzatarako kargua da. Kontseiluko ardura nagusia Paul Bilbaok darama, idazkari nagusiak. Dena dela, Kontseiluko Zuzendaritzan jarduteak bai, horrek lan dezentematen du.

**Zein da Kontseiluaren egitekoa?**

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua euskararen aldeko ekimen guztiak batzeko eta koordinatzeko asmoarekin sortutako erakundea da. Bertan, euskalgintzako partaide garen berrogeitik gorako erakunde gaude; esan liteke euskalgintzaren partaide gehienak garelako bazkide (Ikastolak, AEK, Topagunea, Elkar...). Argi duguna da asko garelako eta batuta indar handiagoa egin dezakegula euskararen normalizazioan. Guztion indarrak eta ekimenak norabide berean jartzea da esku artean dugun erronka, betiere bakoitzaren ezaugarriak mantenduta. Euskararen normalizazioan, baina, ez gara euskalgintzakook lan egiten dugun bakarrak; administrazioak ere lan ikaragarria du. Administrazioak egiten duenaren jarraipena egitea ere badu helburu Kontseiluak, gutxienekoak markatzea, gabeziak erakustea, erritmo egokiak eskatzea. Argi daukat bien arteko lankidetzatik etorriko dela normalizaziorako bidea, herri ekimenez eta administrazioak jarritako baliabide egokietatik; konpontzera kondenatuta gaude, askotan zaila izaten den arren.

**Zein erronka dituzue orain esku artean?**

Uste dugu euskarak ez duela behar lukeen zentralitatearik, eta konponbiderako, herri-gatazkaren konponbiderako, ezinbesteko elementua dela eta horrela aitortu behar dela. Gizarte normalizazioa hizkuntza normalizaziotik pasatu behar du ezinbestean; hizkuntza-eskubidea hor dago, hor dugu, eta bermatu beharra dago, pertsona eta komunitatearen identitate erakusle delako. Erronka da normalizazio horri begira gutxienekoak ongi markatzea.

**Normalizatuta ez dagoen hizkuntza baten kontra askotan urratzen dira eskubideak eta horiek defendatze-**



Oskar Elizburu, Kontseiluko presidentea eta Erdu-AEK euskaltegiko zuzendaria. | A.T.

**ko Euskararen Behatokia duzue.**

Eskubide horiek defendatzeko dago Behatokia, salaketak jaso eta bideratzeko, euskaldunoi laguntzeko, gizarteari hori guztia erakusteko... Zoritxarrez, urtero, ondorio txosten mardula ateratzen da. Euskarak oraindik ez ditu bere eskubide guztiak aitortuta, baina, gainera, aitortuta dituen asko ez dira betetzen. Azken urteotan, hori guztia kaleratzeko bidea hartu da, Internet bidez errealitatea barreiatzeko aukera ona da, jendeak ikusi egiten du gertatzen dena, berehala ulertzen du. Hortik aktibaziora pasatzeko aukera dagoela uste dugu.

**Oraindik, zein ondorio ateratu dituzue Behatokitik?**

Ondorio bi aipatuko nituzke, kontrajarriak neurri batean. Urtero, urraketa askoren berri jasotzen da eta horien berri eman

da eman behar den tokian. Horietako batzuk, gero, konpondu egiten dira, eta beste batzuk ez. Alde batetik, kontzientzia bada-goela erakusten du horrek, baina bestetik, ikusten dut oso gutxitan protestatzen dugula. Aspaldian, *Euskaraz bizi nahi dut* leloa darabilgu behin eta berriro Kontseiluan; norabide egokian joan gaitezen, nahi hori erakutsi beharra dago, ikusi behar da benetan nahi dugula eta lortzera goazela. Horretarako, baina, nork bere aletxoa jarri beharko du egunero, bere esparruan, dauden aukerak aprobetxatzen, beste aukerak ematen, aukera horiek eskatzen, aldarrikatzen eta gabeziak erakusten. Euskara garrantzitsua zaigula erakutsi behar dugu, aktibaziorako ordua da.

**Erdu-AEK euskaltegiko zuzendaria ere bazara. Gustura zaude egiten duzun lanarekin?**

Oso gustura nabil AEKn, nire bizitzaren erdia baino gehiago eman dut erakunde horretan eta jarraitzeko asmoa dut. Bete-bete egiten du AEK-k euskalduntze-alfabetatze lanean; sinetsita, giro egokian lantzeko asmoaz beti, ikasleen arteko giroa eta konplizitate lortzeko asmoz. Euskara ikastea, maitatzea eta erabiltzea dela muga argi dugu, eta hala azaltzen diegu ikasleei. Irakasle lana nahiko emankorra da gure arloan, ikastera datoz eta ahalegin handia egiten dute ikasleek; horrek poztasuna ematen dizu, gustura egoteko aukera. Ikasle gehienak

lagun bihurtzen zaizkizu, asko hizkuntzakide ere bai...

**Gaur egun zein da euskaltegien egoera? Krisiak izan du eraginik?**

Bai, izan du; baina krisiak baino gehiago eragiten du hizkuntza politikak eta handik hartutako erabaki askok (bekak kentzea, tituluak oparitzea, hizkuntza-eskakizunak murriztea, laguntzak gutxitzea...) Euskaltegien lana beti goraiatu dute, baina oraindik normalizatu gabeko arloa da.

Ea hemendik aurrera bide egokian sartzen garen! Argi daukat hizkuntza politika egokiarekin, euskararen sustapen egokiarekin eta prestigioa emanda askoz jende gehiagok hartuko lukeela ikasteko erabakia. Erabaki ausartetarako garaia datorrela uste dut. Pentsa zenbat jende dugun euskalduntzeko... oraindik!

**"100 euskaltegi inguru ditugu Euskal Herriko zazpi herrialdeetan"**

**"Korrika da normalizaziorako ekintzarik handiena"**

**Debagoieneko euskara erabilerari dagokionez, zer esango zenuke?**

Nik uste dut ez dela ez txarra eta ez ona. Egun batean etsipenez ikusten dut eta hurrengoan pozik. Dugun gizartearen ispilua da, familia asko eta asko sortu dira azken urteotan ama hizkuntza erdara izanda eta eskolan euskaraz ikasi eta gero. Hor ez da erraza transmisioa lortzea, zailtasunak daude, segurtasun falta. Egunerokotasunetarako baino gehiago, ezohikoetarako prestatu dira euskaraz. Ba al dakigu jolasten, adarra jotzen eta haserretzen euskaraz? Ez al da hori gehiengotik egiten duguna egunean zehar? Hor dugu erronka, espazio horiek erabiltzen, lagunartekoa, familia eta aisialdia euskaraz eroso bizi behar ditugu normalizazioa lortzeko. Botila erdi beteta ikusten dut, beste erdia betetzen jarraitu behar!

**AEKren helburua da euskararen berreskuratzea eta Euskal Herriaren berreskalduntzea. Zein ekintza eramateko dituzue aurrera helburu hori lortzeko?**

Klaseak, normalizazio planak, mintzalagun egitasmoak eta sustapena. Gaur egun, denetik eta euskarri askotan. Klaseak aurrez aurre, barnetegian, sarean, enpresetan... era askotan ematen ditugu, baina erabilerara helburu, komunikazioa helburu. Normalizazioari begira ekintza ugari, 100 euskaltegi inguru ditugu Euskal Herrian, zazpi herrialdeetan, eta tokian tokiko euskalgintzarekin eta herri ekimen zein administrazioekin elkarlanean aritzen gara.

**Korrika aurten egingo da berriro. Nola doaz prestaketa kontuak?**

Korrika da sustapenerako eta normalizaziorako ekintzarik handiena. AEK-k antolatu bai, baina herriarrek burutzen dute, ikaragarria da noraino iritsi den. Aurten *Eman euskara elkarri* da leloa, mezua, denok eman behar dugula apurtxo bat gehiago, ondo-koari erabiltzeko erraztasunak eman behar dizkiogula.

**Gure bailaratik zein egunetan pasako da Korrika?**

Martxoaren 20tik 21erako gauerdian sartuko da Elosutik Korrika, eta gau osoan zehar ibiliko da gurean: Bergara, Antzuola, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzaga. Arabarrei egunsentiarekin-edo emango diegu lekukoa. Korrikaren inguruan informazio guztia dago [www.korrika.org](http://www.korrika.org) webgunean, eta bertan, jo eta su arituko gara hemendik aurrera.

## ZABALIK

**DIEGO MARTIARTU**  
http://goiena.net/iritzia/



## Katalunia-Eskozia

**E**z daukat fede handirik Kataluniako politikari nazionalistek independentziarako bidean datozen hiletan egingo duten ahaleginean. Susmoa dut Masek-eta zerbait adostu nahi izango dutela Raxoiekin erreferendumarena aparkaturik uzteko. Fede handia daukat, ordea, kataluniarrek osatu duten olatu independentista erraldoian. Politikari nazionalisten epeltasunak epeltasun, independentziarako antsia hori geldiaraztea oso zaila izango delakoan nago, Eskoziakoa ere hor dagoela kontuan hartuta. Betiko moduan, espainiar unionistek Eskoziakoa eta Kataluniakoa oso egoera desberdinak direla diote. Nik uste dut, prozesuok aurrera eginez gero, desberdintasuna amaieran ikusiko dela. Hara:

1-Eskoziarrek parlamentu bat aukeratzen dute demokratikoki / Kataluniarrek parlamentu bat aukeratzen dute demokratikoki.  
2-Eskoziar parlamentuak independentziari buruzko erreferenduma eskatzen du / Kataluniar parlamentuak independentziari buruzko erreferenduma eskatzen du.

3-Britainia Handiko legeek ez dute horrelakorik egiten uzten / Espainiako legeek ez dute horrelakorik egiten uzten.

4-Legezko biderik ez dagoela-eta, britainiar gobernuak adierazten du behar diren bideak irekitzeko asmoa duela eskoziarrek beren geroari buruz argi eta demokratikoki mintza daitezela / Legezko biderik ez dagoela-eta, espainiar gobernuak adierazten du bide guztiak itxiko dituela kataluniarrek beren geroari buruz argi eta demokratikoki mintza ez daitezela.

5-Eskoziarrek erabaki egingo dute. Kataluniarrek ez. Britainiar irletan bakean biziko dira eta Espainian itzelezko txolopotea sortuko da, betiko moduan. Eta gero etorriko dira negarrak, jakina: *Zergatik gertatzen zaigu hau?*

Izan ere, kontua ez da Eskoziak eta Kataluniak elkarren antzik duten; kontua da Britainia Handiak eta Espainiak ez dutela batere antzik, ezta arrastorik ere.

**"Eskoziarrek erabaki egingo dute, baina kataluniarrek, ez"**

## USTEAK USTE

**ENEKO AZKARATE** | eazkarate@goiena.com

## Eskatzen hasita...

**U**rte hasiera asmo berrituetarako sasoiaren denez, hemen nire desioak: azkenaldian kakaztuta gaituen hiri hondakinen eztabaidan adostasunak lor ditzatela bateko zein bestekoek, ingurumenerako, osasunerako, pertsonen elkarbizitzarako eta egunerokorako egokiena aukeratuz. Eta, horrekin batera: bateko zein bestekoek bakean utz gaitzela Goienako kazetariok, ahalik eta zintzo eta egokien informatzen saiatzen garenok, batzuetan huts egin arren. Beno, eskatuz-eskatzuz: erakunde eta alderdi politikoei babestu eta lagundu dezatela Goiena, bereziki garai zail hauetan. Herriarrendako "beharrezko eta plurala" den ia 50 langile debagoiendarrez osatutako euskarazko talde "eredugarria".

## KALE INKESTA

## Beharpenetan zerbait erosteko asmorik baduzu?



**ANA ISABEL LAGE**  
LANGILEA

"Bai, zerbait behar dut eta asmoa badaukat. Oraindik begiratu egin behar dut baina saiatzen naiz herrian erosten".



**CARMELO RUBIALES**  
AURRE-ERRETIRATUA

"Nik ez dut inoiz beharpenetan erosten, emaztea joaten da eta nik tabernan itxaroten diot. Berari gustatzen zaio".



**JOSU SALA**  
AURRE-ERRETIRATUA

"Oso gutxitan joaten naiz. Gabonetan egin ditugu erosketak eta momentuz bukatu da gure aurrekontua".



**IRANTZU ELORZA**  
IKASLEA

"Gabonetan erosi dut behar nuena. Orain zerbait prezio onean ikusten badut akaso erosiko dut".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## 'Hamaseigarrenean aidanez', Anjel Lertxundi (Erein, 1983)

**Asier Sarasua Aranberri**  
http://eibar.org/blogak/sarasua/

Dagoeneko 30 urte bete ditu euskal literaturako "klasiko" bihurtu den eleberriak.

Andu Lertxundiren lanik onentsuena, 80. hamarkadako eleberri aipagarrien artean sar daitekeena.

Gaur egun ere, guztiz gomendagarria.

Beti irakurtzekotan (Institutuan ez zitzaidan egokitu), eta azkenean heldu zait ordua.

Esan bezala, 80. hamarkadako libururik aipagarrienetakoa dugu Anjel Lertxundiren hau, Lertxundiren lan oparoaren artean ez ezik, euskal literaturaren historian ere lekutxo duena.

Oriotarraren lehenengo eleberria (edo), ipuinak nagusi izan omen ziren hamarkadan argitaratua (*Narrazioak, Dudular, Obabakoak, Azukrea belazeetan...*).

Eleberri laburra, argumentu ximple samarra duena, baina oso ondo egituratuta eta kontatuta dagoena.

Ahots eta narratzaile ugari, egituraketa eta teknika narratiboa bikain erabiliak...

Goiz euritsu batean, Martzelinak *presagioa* dauka: "*Senarra gaur hilko zait*".

Hortik abiatuta, Martzelinaren istorioa kontatuko zaigu.

30 urte lehenago herrira iritsia, ezer gabe, herritarrek harrera hotz samarra (leun esatearren) eman zioten.

Txutxumutxuak nagusi (irakurleari ez zaio garbi geratuko benetan zer eta zergatik), herriko gehienek ateak itxi zizkioten.

Gizona aukeratzeko orduan ere ez zuen egokiena aukeratu, Domingo, zurrutero jokozalea.

Ondoren ere ez zaizkio gauzak asko hobetuko: haurra galduko du, amaginarreba hil egingo da...

Martzelinaren drama pertsonalaren eskutik herriko giroa eta garaiko bizimodua ezagutuko ditugu (garai bateko euskal herri txiki bateko giro itxia), eta jokoaren zama azpimarratuko ("*jokoa ez da errenta*").

Kontalari nagusia idazlea da. Domingo protagonistaren senide bat, gertatutakoaren kronika modukoa egin nahi duena.

Horretarako lekukoei emango die hitza, ahots eta ikuspegi kaleidoskopikoa iradokiz. Orain lehenengo pertsonan, orain hirugarrenean; orain idazlearen hitzetan, orain lekukoenean zuzenean.

Hasieran lekukoak bakarrik agertuko zaizkigu, bakoitza bere bertsioa emanez; gero, narratzailea nagusitzen joango da.

Gabriel García Márquezen *Crónica de una muerte anunciada* gogoratzen digu hasieratik.

Lehenengo parafotik dakigu Domingo hil egingo dela, eta gertakizunen kronika modukoa emango zaigu.

Ikuspegi ezberdinetatik, egia borobilik ez dagoelako; ez oso modu harilkatuz, gehiago adabakiz jositako *errelatoa* eginez.

Baina azkenean *collage* horrek margolan osoa erakutsiko digu, eszena osoa irudikatuko (nahiz eta hari asko irakurlearen esku ere uzten dituen idazleak).

Artelan gogor bezain ederra.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate

**Erredaktore burua** Urbane Madera

**Sailetako arduradunak** Kabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna** Leire Kortabarria  
**Maketzailea** Kepa Martelo, Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa


**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
ARRASATE 20500:  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Lege Cordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale  
**Difusioa:** 4.383 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# DESKONTUAK

## gauza GUZTIETAN

## eta GUZTIONTZAT

centrocomercialgorbeia.com



IMAGEN21



# HERRIAK

ESKORIATZA

## Elurte eta izozteei eraginkortasunez aurre egiteko plan berria gertu dute

Udalbatzak onartu du beharren aurrean baliabideak izendatzea eta plan zehatza aplikatzea

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak elurteen eta izozteen aurrean esku hartzeko plan berria du; lehenagotik baze- goen, baina hura eguneratu eta hobetzeko beharra ikusi du udal- batzak. Helburu bikoitza du horrek: batetik, baliabide erabilgarriak modu eraginkorrean antolatzea eta koordinatzea; eta bestetik, meteorologia fenomeno horien aurrean herritarrei laguntzea eta babes hobea emateko egon daitez- keen beharrak aztertzea.

Horretarako, honako lanak egingo dituzte: leku publikoetara- ko, pribatu berezietarako eta lan- daguneetarako bideak garbi egon daitezela bermatzea: hain justu ere, egoitza, osasun etxea, udal zerbitzuak, ikastetxeak eta zerbitzu publikoak; larrialdietarako zerbi- tzuei laguntzea; udalerritik igaro- tzen diren eskualde eta gehien erabiltzen diren errepideetan tra- fikoa mantentzen saiatzea; eliza- teetarako bideetan jardutea; indus- tria eta merkataritza jarduera gelditzea edo atzeratzea ekiditeko horiek kokatutako guneetarako sarbideetan behar besteko denboraz alde aurretik lan eginez; lehenta- suna duten egoerak konpontzea; eta herritarrei aurrez abisatzea eta egoeraren bilakaeraren infor- mazio argi eta jarraitua ematea.

### Landa gunean, bi traktore

Beharrei erantzunez, hainbat baliabide izendatzen dituzte esandako egitasmoan: alde batetik, giza baliabideak eta makineria daude; brigadako eta kontratatutako garbitasun enpresako langileak herrigunean arituko dira lehentasunez, Obra eta Zerbitzuak arloko zinegotzi Jose Mari Herreraren agindupean. Elizateetan eta, orokorrean, landaguneetan ere arituko dira urtero zeregin horretarako kontratatutako langileak eta makineria; hain justu ere, bi traktore pala eta gatz banatzailearekin eta behar diren langileak. Elizateetako zinegotzi Iñaki Madinabeitiaren agindupean egongo dira horiek.

Elurte eta izozteen aurre abisu sistema ere aurreikusten du planak. SOS Deien bidez Udaltzaingoak jasotzen ditu, posta elektronikoz; hark udal webgunean argitara dezaten birbidali beharko du. Abisuak badio elurra egingo duela 300 metrora edo izotz handiak izango direla, behar askotariko ardura-



Lehentasunez lan egin beharreko zonak zehazten dira; irudian, Gaztañadi, iazko otsail hasierako elurtean. | GOIENA

DATUA

300

METRO

Kuota horretatik behera edozein momentutan lan egiteko gertu egongo dira urtero kontratatutako eta brigadako langileak.

dunak ekipoetako langileei jakinaraziko die alerta edo lehentasunezko lanen egoera. Horrek esan nahi du edozein momentutan mobiliza ditzaketela.

Azken horren harira, lantaldeen eta makinaren ordutegiaz ere egiten du berba egitasmoak. Brigadako, Udaltzaingoko eta azpikontratatu- tako langileen ordutegia herrigunerako elurtearen indarraren eta zabalaren arabera ezarriko da. Elizateetan eta, orokorrean, landaguneetan zerbitzua emateko kontratatutako enpresari dagokio- nez, 24 orduan prest egon beharko

dute, Elizateetako zinegotziarekin koordinatuta. Planak aurreikusitako lehentasunezko lekuen arabera hasiko dira lanak.

### Lehentasunezko guneak

Esan bezala, ibilbideak eta lan egin beharreko zonak ere zehazten ditu planak. Herrigunean gehien erabiltzen diren bideak garbituko dira, hala nola Arana, San Juan, Gaztañadi, Olazar, San Pedro eta Intxaurtxueta, Aranburuzabala eta Santa Ana etorbideak; horrez gain, gehien erabiltzen diren sarbideez ere arduratuko dira: Luis Ezeiza eta Jose Arana eskoletarako sarbideak, osasun etxeokak, zebra- bideak, Torrebasotik Almenerako bideak eta unibertsitateko apar- kalekuak. Arrisku handia izan ditzaketan tokietan ere egingo dute lan; bestak beste, zubi eta aldapak dauden inguruetan. Indus- trialdeetarako sarbideak ere gar- bitu beharko dira lanegunetan.

Elizate eta landaguneei dagokionez, horietara doazen bide guztiak garbitu eta gatzazabalduko da; eta horrekin

### Torrebasotik leku estrategikoetara

Urgarri dagokionez, sodio kloruroa erabiltzea adostu da, eta Torrebason dagoen biltegian gordetzea. Horretatik hainbat leku estrategikotara banatuko dute udal zerbitzuak. Batetik, elizate eta auzo-alkateei zaku kopurua banatuko zaie, arazo gehien izan dezaketan baserrietan bana dezaten, baserri inguruan zein baserrirako bidearen puntu zehatzetan izotz gehien egon daitekeen lekuetan; eta bestetik, elurra kentzeko eta gatz zabaltzeko kontratatutako enpresarekin koordinatuta, traktoreak hornitzeko guneak finkatuko dituzte.

Herriguneari dagokionez, kasuz kasu aztertuko da herritarrei beraiek zabaltzeko gatz banatzea egokia izan daitekeen edo ez, betiere, udal zerbitzuak ez badira iristen lan hori egitera. Dena dela, irizpide orokorra izango da gatzik ez ematea kasu partikularrendako.

amaitzean, gehien erabiltzen diren bideekin jarraituko da, baita arrisku handien izan ditzaketan bide zatiek. Gainera, urtero, negu hasieran, goren dauden auzoetarako eta zailtasunak izan ditzaketan udalerriko guneetarako bideak aztertuko dituzte. Esan bezala, landagunean garbi izateko zerbitzua kontratatu beharko du

### Herritarrek informatuta izateko neurriak

Udal langileak arduratuko dira eskoriatzarrak informatzeaz, elurteei aurre egiteko koordinazio zentrotik emandako informazioaren arabera. Etxe jabekideei eta dendei gogoraziko zaie beraien fatxadei dagozkien aldeetan espaloiak eta estolda-zuloak garbi edukitzeko betebeharra daukatela, eta elurra pilatan batu beharko dutela, oinezkoiei eta ibilgailuei eragozpenik ez sortzeko moduan.

Udaletxeko harrera telefonoan ere informazioa eskuratu ahal izango da. Besteak beste, zerbitzu bati buruzko kezak edo eskaerak jasoko dituzte, eta, hala badagokio, dagoen pertsonari deitu.

Udalak neguko denboraldia hasi baino lehen. Urte bakoitzean daude beharrak aurreikusiko dira, eta, horien arabera, egoki iriztitako makineria eta langileak kontratuko dira. Herriguneari dagokionez, zenbait zerbitzutarako langileak daudenez, horiek izango dira sor daitezkeen beharrei erantzun dietenak.



Umeak eta gurasoak Txikilandian. | OHIANA ELORTZA



Porrotx eta Porrotxin goizean Arrasaten. | OHIANA ELORTZA

## DEBAGOIENA

# Gabonetako jolas parkeak, herritik atera gabe gura beste jolas egiteko

MIRARI ALTUBE | DEBAGOIENA

Gabonetan opor egun mordoak izaten dituzte umeek eta gazteek, eta egun horietan asper ez daitezten jolas parkeak antolatzen ohitura dago. Oso ezaguna da

Bilboko eta gure herrietatik hainbat irteera egin izan dituzte bertara; aurten ere joan dira Aretxabaleta eta Eskoriatzako gaztetxoak. Baina egun ez dago inora joan beharrik, Debagoie-

neko ia herri guztietan –Gatzagan ez dute egiten– izan direlako jolastoki erraldoiak. Gaztelu puzgarriak, mahai jolasak, igerilekuko jolasak eta beste hainbat ekintza izan dituzte egunotan.

**Txalupak Elgetan**

Arrasateko Txikilandia parkeak dagoeneko 22 urte bete ditu, eta aurten berrikuntzaz beteta etorri da. Urtero legez urtarrileko lehen astean, hilaren 3tik 5era bitartean,

zabalduta atea eta ume eta gazte mordoak elkartzeko bertan. Uarkape pilotalekuko kantxan puzgarriak izan dituzte eta goiko partean txoko bi berriak: sorkuntza txokoa eta familia txokoa. Gainera, Porrotx eta Porrotxin –Beñat Barrutia arrasatearra– pailazoen bisita jaso zuten egubakoitzean, eta ikus-kizun labur baina polita eskaini zieten elkartutakoek. Zapatuan, oster, igerilekuan egin zuten jolas eta arratsaldeko kalejirarekin bukatutzat eman zuten aurtengo Txikilandia.

Urtarrileko lehen astean beste hainbat herritan ere zabalduta dituzte jolas parkeak. Eguzki eta egubakoitzean esaterako, neska-mutiko mordoak elkartzeko Bergarako Udal pilotalekuan jarritako puzgarri, mahai jolas eta gainerakoetan. Baita Elgetan ere, herriko ia ume guztiek jo zuten pilotalekura ping-pongean, mahai futbolearen eta mahai jokoen jolas egin, puzgarrietan saltoka ibili eta txalupa txikiei eraginez jarduteko. Eta oñatiarrek ere bi egunetan egin dute jolas Zubikoa kiroldegian jarritako puzgarri, jolas, eskulan eta gainerako ekintzetan.

Antzuolan, eskolako patioa bihurtu zuten jolas parke erraldoi egunean, eta bertan jardun zuten herriko neska-mutikoek. Aramaion, oster, egubakoitzean izan zuten jolas egiteko aukera kiroldegian jarritako parke handian.

**Abenduan ere bai**

Aretxabaletan eta Eskoriatzan, oster, abenduko azken astean izan zituzten jolas parkeak. Aretxabaletan azken urteotan ez dute halakorik izan –kiroldegien lanek iraun bitartean– eta herriko umeek, gurasoak lagun, harrera beroa egin zioten. Hilaren 26an puzgarriak, eskulan txokoak eta karaokea izan zituzten kiroldegiko kantxan, eta 27an, igerilekuan jolasak.

Eskoriatzan, oster, urtero izan ohi dute parkea eta aurten ere pozik hartu dute umeek. Aurpegiak margotu zituzten, eskulanak egin, triziklo eta motor txikietan ibili eta zelan ez, gainerako parke guztietan legez, saltoka jardun puzgarrietan.



Puzgarri asko izan zituzten Oñatiko ume eta gazteek. | Z. VELEZ DE MENDIZABAL



Txalupa txikiak Elgetako pilotalekuan. | LARRAITZ ZEBERIO



Jolasparkea Aramaio kiroldegian. | IMANOL SORIANO



Aretxabaletako umeak igerilekuko puzgarrietan jolasean. | AMAIA TXINTXURRETA



Mutikoa lasterketa autoan, Eskoriatzako parkean. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

## DEBAGOIENA

# Ekialdetik Debagoienera etorri dira Errege Magoak asteburuan

Guraso zein ume, kalera atera ziren hiru erregeei ongietorria egitera

MIREN ARREGI | DEBAGOIENA

Gauetz Debagoieneko etxeetara opariak eraman aurretik, Arrasaten, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Oñatin eta Bergaran kaleetan barrena ikusi genituen zapatuan hiru Errege Magoak. Urtero-urtero urtarrilaren 5ean ekialdetik gurera bidaiatzen duten Gaspar,

Meltxor eta Baltasarrek umeen gutunak jaso, haiekin hitz egin eta une zoragarriak biziarazi zizkieten.

**Oñatikoa, Martinolaren azkena**  
Oñatin, parrokia ondotik atera ziren hiru Errege Magoak antortxero, paje eta danbor-jotzailez

lagunduta eta, kaleetan barrena ibili ondoren, udaletxean bukatu zuten. Aurtengoa Martinola taldeak antolatuta egin den azken kabalgata izan da.

**Aretxabaletan, Erregea oinez**  
Aretxabaletan ere ikusi genituen Errege Magoak; arazotxo bat ere

izan zuten, gainera. Hain zuzen ere, Baltasarren zaldia aztoratuta zebilen, eta errege beltzaranak oinez egin behar izan zuten ibilbidearen zati handi bat. Leizarra musika eskolako musikariek lagunduta, Errege Magoek umeak agurtu eta goxokiak banatu zizkieten.

**Bergarako egun handia**

Urtarrilaren 5a, egun handia izan ohi da Bergaran. Urte bete lehenagotik jatetxetan tokia erreserbatuta izan ohi dute herriko koadrila gehienek. Zapatuan, eguraldia lagun, bergararrak parrandan ikusi genituen goizean goizetik hasita. Arratsaldean,

berri, ume eta gurasoen txanda izan zen. Lehenik, udaletxean Bizar Zurik umeen gutunak jaso zituen gero Errege Magoei eroateko; une politenak, baina, Gasparrek, Meltxorrek eta Baltasarrek herriko kaleak zeharkatu zituztenean bizi izan ziren. Umeek oso modu berezian bizi izan zuten Errege Magoen bisita, eurendako, zerbait oso berezia baita horien etorrera.

Arrasaten eta Eskoriatzan ere egin zituzten kabalgatak; horietan ere, Erregeek ilusio eta opari mordoak banatu zituzten.



Bizar Zuri eta Errege Magoak zapatu arratsaldean Bergarako udaletxean. | IMANOL SORIANO



Gaspar Errege Magoa, Bergarako kaleetan. | IMANOL SORIANO



Oñatin jaiotza bizia egin zuten; irudian Maria eta San Jose. | IMANOL SORIANO



Aretxabaletako kaleetan, Gaspar umeak agurtzen. | AITZIBER ARANBURUZABALA

## Olentzerok ere ez zuten hutsik egin

Abenduaren 24an etorri zen gurera Olentzero, duela milaka eta milaka urtetik egiten duen moduan. Urte guztian zehar mendian bizi den ikazkinak herrietara egin zuten bisita ume eta ez hain umei opariak ekartzeko. Etxeetara etorri aurretik, baina, Olentzerok ere gure herrietako kaleetan egin zuten bueltaxoa. Bergaran, esaterako, Mari Domingirekin batera jaso zituen umeen eskutitzak; Elgetan, opariz betetako bi otzara zeramatzan astotxoari tiraka ikusi genuen Olentzero.



Bergaran, Olentzero eta Mari Domingi, umeekin. | GOIENA



Olentzero Elgetan, astotxoak eroaten. | GOIENA



Xabier Montoia eta Maite Arroitauregi, kontzertuan. | BERGARAKO GAZTETXEA



Trikiti zaleekin Gaztainerre Eguna ospatu zuten. | BERGARAKO GAZTETXEA

## BERGARA

## Kulturantzitasuna, dantza, musika... Gabon indartsuak gaztetxean

UBANE MADERA | BERGARA

Musika, zinema, kulturantzitasuna, dantza... denetarikoei egin diete lekua Bergarako Gaztetxean Gabonetan. Abenduaren 20tik oraingo asteburura arteko egitarau oparoa gauzatu dute. Orokorrean, oso modu positiboan baloratu dute jasotako erantzuna. Bereziki, baina, bi ekitaldi nabarmendu dituzte: Asier Altuna *Kixi* zinemagilearekin haren filmetako sekuentzia kuttunenak komentatzeko

antolatutakoa "Gabonetako une gogoangarri" bat izan zela diote; eta Xabier Montoiaren kontzertua "Gabonetako uneetako bat" eta "kontzertu berezia" izan zela ere adierazi dute.

Horrez gain, Pakistan, Senegal eta Euskal Herriko kultura desberdinei buruz berba egin dute opor egun hauetan; eta, besteak beste, Txapa Irratiarekin eta Trikiti Elkartearekin ere partekatu dituzte Gabonak.



ARRASATE

EDORTA AIASTUI

## Arrasate Musikal, tradiziozkoa

Arrasaten ohitura bilakatu da Gabon zahar egunean Arrasate Musikaleko bandaren kontzertua, eta horren isla da aurtengoa ere "oso arrakastatsua" izan dela, antolatzaileen esanetan. "Nahiz eta astelehena izan, jende asko gerturatu zen Amaia antzokira, ia-ia bete arte", adierazi dute. Aurretik kalejira egin zuten, argazkian ikusten den moduan.

## ELGETA

## Espaloia lepo, musikari txikiak ikusteko

Ordu eta erdiko saioa egin zuten herriko 27 musikari gaztetxok eta abesbatzako zortzi kidek abenduaren 28an, Gabon kontzertu modura. Espaloia bete egin zen saio hori ikusteko, eta agerian geratu zen Elgetako musika irakasle Lorea Larrañagak lan handia egin zuela Gabonetako emanaldi hori antolatzen.



LARRAITZ ZEBERIO

## ARRASATE

## Datorren urtekoaren zain, Fat Lizzy

Urtero bezala, Gabonetako kontzertua eskaini zuen Iluntz tabernan Fat Lizzy taldeak. Taldekideak Bitter Honey, Radio Wings eta SA taldeetako kideak dira, eta Thin Lizzy eta Iron Maiden taldeen kantuak opari egiten dizkiete kontzertura doazenei. Guztiek ere irribarretsu amaitu zuten ikuskizuna, eta datorren urtekoaren zain.



JAGOBA DOMINGO



UBANE MADERA

## ONATI

## Gospel doinuak Santa Anan

Ganbara Gazte eta Ganbara Txiki abesbatzek Gospel kontzertua eman zuten Oñatiko Santa Anan abenduaren 27an. Azken lau urteotan Gabonetan eskaini izan duten *Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu bat* izeneko kontzertuaren jarraipen gisa etorri da. Berezia izan da, gainera; izan ere, kontzertu didaktikoa eskaini zuten Ganbarakoek, gospel musikaren gaineko informazioa (jatorria, arrazoia...) emanda. Ikusleek txalo zaparrada itzelez hartu zituzten Ganbarako gaztetxoak.





9 urteko bi taldeetako partaide batzuk, eskuetan sariak dituztela, pozik. | AITZIBER ARANBURUZABALA

**10 ETA 12 URTE BITARTEKO IRABAZLEAK**

"Oso ondo pasatu dugu, irabazi egin dugu gainera! Oso errazak iruditu zaizkigu probak. Kalean aurkitu ditugunei galdezka ibili gara eta baita dendetan ere. Ez genekien gauza asko ikasi ditugu; besteak beste, gaur egun dauden eraikin edo dendetan garai baten zer zegoen, zertarako erabiltzen ziren eta horrelakoak. Aurreko edizioetan ere parte hartu dugu eta hurrengoan ere etorriko gara, seguru! Sekula etorri ez direnak animatu gura genituzke, gainera: guztiondako daude sariak!"

**OÑATI**

# Oñati hobeto ezagutzeko aitzakian gustura jolasean

A.ARANBURUZABALA | OÑATI

Ordu erdi eskas behar izan zuten turismo bulegoak eta Txanda elkarteak zapatuan antolatutako Oñati Ezagutu Jolasten jinkanako parte-hartzaileek herriaren gainean proposatutako probak eta galderei erantzuteko.

Laugarren edizio honetan, 7 eta 12 urteko 44 lagun izan ziren, jolasean, Oñatiz ikasten.

**Helburua, herria ezagutzea**

"Txanda" hitzaren esanahia asmatu; denden izenekin letra-zopa egin edo argazki zaharren interpretazioak egin behar izan zituzten, besteak beste, Oñatiko kaleetan eta dendatan galdezka ibilita, herria hobeto ezagutzeko helburuarekin. Oñatin izan diren aldaketak ezagutaraztea gura izan zuten aurtengo edizioan.

Helburu nagusia ez zen arren, lehiaketa guztietan moduan, parte-hartzaileen arteko lehia estua izan zen; horren erakusle, 9 urteko bi taldeen artean berdinketa izan zela. Antolatzaileek, baina, guztiendako izan zituzten sariak: herriko dendetarako erosketatxartelak; kobazuloetara sarrerak; goxokiak... Kamiseta zozketa ere egin zuten gero.

**EDURNE URTEAGA**  
TURISMO BULEGOKOA

"Herrian egon diren aldaketak erakusten saiatu gara aurtengo probekin. Gustura gaude emaitzaz. Ondo eta uste baino azkarrago bukatu dute; hurrengoan proba zailagoak jarri beharko ditugu!"

**AMAIA IGARTUA**  
TXANDA ELKARTEA

"Hurrek herriko komertzioak ere gertutik ezagutzeko aitzakia polita da. Aurten bigarren aldiz parte hartu dugu; gure dendetan gastatzeko txekak banatu ditugu, besteak beste, sari moduan".

**BERGARA**

# Askotariko maila, teknika eta koloretako artelanak Aroztegin

Beart elkarteko kideen eskutik, 42 lan daude ikusgai hilaren 20ra arte

A.A./A.E. | BERGARA

Bergarako Beart pintura elkarteko bazkideek erakusketa dute Aroztegin. Denera, 42 lan daude: 41 margolan eta eskultura bat.

Luis Laskurain Bearteko kidearen esanetan, askotariko kolore, maila eta teknikak batzen ditu erakutsitako bildumak. Olio eta akrilikoak dira gehienak, baina badira akuarelak ere.

Aroztegiko bildumak Bergarako eskola egon badagoela erakusten du. Txikitan margotzen hasi eta eskarmentuko margolariak bilakatu direnak daude, batetik; besteak beste: Bingen de Pedro, Juanjo Altuna, Rikardo Azkargorta eta Xabier de Zerio eskultorea. Baina badira elkarteko margolari hasi berrien lanak ere, etorkizunaren erakusle.

**Regino Valleri omenaldia**

Aurrera begira, maiatzean egingo duten elkarteko jaialdian, herriko kultur ekitaldien alde egingandako lanagatik, Regino Valle omentzeko asmoa dutela kontatu zuten inaugurazioan.

Bolu auzoan dago *Sormen Espazioa* deitzen dioten Bearteko lokala. Gaur egun 90 bazkide inguru ditu elkartek.



Beart elkarteko kideak Aroztegiko erakusketaren inaugurazioan. | ANABEL DOMINGUEZ



Gaztetxoak afarian topa egiten. | IMANOL SORIANO

**BERGARA**

# Bergarako gaztetxoak primeran ibili ziren afarian eta DJ jaialdian

Munibe plaza dantzaleku bihurtu zen zapatu gauean eta nerabeak gelditu gabe ibili ziren

GOIENA | BERGARA

Bergarako gaztetxo batzuek Errege bezperako gaua Munibe plazan igaro zuten. Bertan dagoen karpan lagunartean eurek ekarritako ogitartekoak afaldu zituzten lehenengo.

**DJ jaialdia**

Afaldu eta gero, dantzan eta kantuan hasi ziren. Izan ere,

gazteek doinu eta erritmo ugariarekin disfrutatu zuten gauaz. Amaia Txintxurreta DJa egon zen gaua girotzen eta gazteek ez zioten dantzan egiteari utzi. Arrakasta handiena izan zuen kantua *Gangnam style* izan zen eta kantua duen koreografia berezia dantzatu zuten bergarar guztiek. Oñatitik etorritako gaztetxoak ere izan ziren bertan.

# Dozena bat tapoi tona jaialdi bakar baten

2.300 euro batu ziren abenduaren 26ko elkartasun kontzertuan Naiara Agreda arrasatearraren alde

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Naiara Agredaren aldeko tapoi tona bakoitzeko 200 euro jasotzen ditu haren familiak. Orain arte zortzi tona jaso dituzte; 1600 euro, beraz. Bada, abenduaren 26an gaztetxean antolatutako elkartasun kontzertuan – Arkada Social, Rat-Zinger, Des-Kontrol eta Screammers & Sinners taldeek goraino bete zuten gaztetxea– 2.300 euro inguru batu ziren garun-paralisia duen haurraren bizimodua hobetzen saiatzeko. Hau da, orain arte tapoi tonak biltzen jasotako diruaren ia bikoitza: "Harrigarria da batutako dirua, horrenbeste ez genuen espero", adierazi digu amak, Almudena Viecok.

## Familiaren esker on hitzak

Familia ez zen kontzertuan egon kanpoan egon behar izan zirelako, baina esker on hitzak izan dituzte antolatzaileendako zein kontzertura joan ziren ikusleendako: "Izugarri eskertzen dugu gure alde egindakoa". Hori bai, azkenaldian tapoi kopuruak nabarmen egin dute behera: "Beste bi haurren aldeko bilketak ere hasi dira eta igarri dugu askoz gutxiago heltzen direla. Hala ere, jendeak laguntzen jarraitzen du ahal duen moduan. Guk ez dugu etsiko, tapoiak batzen jarraituko dugu", dio Viecok.



Des-kontrol zuzenean, abenduaren 26ko elkartasun kontzertuan. | JAGOBA DOMINGO

## Gabon zaharretan aulkia hautsi

Izan ere, albiste txar batekin amaitu zuten urtea. Gabon zahar egunean aulkia xasisa erditik apurtu zitzaion Naiarari, kon-

ponketarako aukera barik. Oraingoz ortopediak utzitako aulki batekin moldatzen badira ere, berria ahalik eta lasterren erosi beharra dago: "Jendeak galdetzen digu ea aulki berria erosi dugun dagoeneko, baina ez da hala. Ortopediak utzi digu egunotan kalera irteteko aukera izan dezan, baina ez da gurea. Gainera, aulki berria erosi eta egokitu egin behar da; horrek denbora eskatuko du. Heldu da berria erosteko ordua, ez dago besterik".

Eta, Viecoren arabera, "tristeena" dena da aulki berria erosteko diru nahikorik izango duten ez dakitela oraindik.

## ESANAK

**"Harrigarria da batutako dirua, horrenbeste ez genuen espero"**

ALMUDENA VIECO | NAIARAREN AMA

# Mondra taberna itxi dute, etekinik ematen ez zuelako

J.B. | ARRASATE

Aurten 100 urte beteko ditu Mondra futbol elkarteak. Bada, mendurera ez dute modurik onenean hasi, taberna itxi egin behar izan dute-eta. Zergatik? Udalak eskatutako gutxieneko baldintza batzuk betetzen ez dituelako,

baina batez ere taberna kudeatzen jarraitzeko gogorik ez dutelako: "Ezinduendako egokitzapen lanak egin behar dira besteak beste, eta lan horiek egiteko dirurik ez daukagu. Horren gainera, baina, ez dugu tabernarekin jarraitzeko gogorik, klubari ez diolako ino-

lako ekarpenik egiten", adierazi digu Fernando Laspiur zuzendaritza taldeko kideak.

## "Ez du funtzionatu"

Udalarekin harremana ona izan dela argi utzi du Laspiurrek; arazoa ekonomikoa izan da: "Tabernak ez du ondo funtzionatu. Lan handia bai, baina irabazirik ez klubarendako. Hiru urtetan egon da zabalik eta apenas eman du dirurik. Beraz, taberna ixtea erabaki dugu".



Bi herritar erakusketako panelak irakurtzen. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

# 'Begira! Arrasate' ikusteko azken aukera asteon

Bestalde, 'Orreaga 778-824' berbaldia hilaren 10ean Kulturaten (19:00), Beñi Agirrerren eskutik

J.B. | ARRASATE

Urtarrilaren 13an itxiko dute Zuztarrak Errotuz taldearen *Begira! Arrasate* erakusketa. Asteon da azken aukera azaroaren 27a ezker zabalik egon den erakusketa bisitatzeko, bihurtik domekara arte (17:30-20:30). 27 informazio taula egokitu eta askotariko gaiak jorratzen dira erakusketan; horien guztien bidez Arrasateren urrutiko zein gertuko iragana eta oraina jasotzen da.

Gainera, urtarrileko kultura gidaren barruan euskarazko bi komunikabideren aldeko ekitaldiak nabarmendu behar dira. Bata, Doke antzerki taldearen Paradisuko Atean antzezlan, Mondraberrri agerkari digitalaren aldekoa. Hilaren 13an izango da, Amaian (19:30).Bestea, Berria-ren aldeko ziztada jaia,

hilaren 19an izango da, leku eta ordu berean. Sarrerak Jardun, Loramendi eta AEDren egoitzetan eta leihatilan egongo dira salgai, bost eurotan.

## Eguenean, Orreaga hizpide

Bestalde, Udalak, Zuztarrak Errotuz taldeak eta Nabarralde antolatuta, *Orreaga 778-824* izeneko hitzaldia eskainiko du Beñi Agirrek: "Orain arte, batez ere frantsesez egin dute Orreagako gudari buruzko kontaktuzuna, Roland-en protagonismoa goratuz eta euren ikuspegi propioa. Gogoratu dezagun Karlo Magnok Iruñea suntsitu zuela Pirinioetarako bidean eta Orreagan enboscada egin ziotenak ez zirela izan hiru artzain, politikoki antolatuta zeuden baskoiak baizik". Hainbat datu historiko emango dituzte.



Taberna hustu dute dagoeneko. Irudia egubakoitzekoa da. | JOKIN BEREZIARTUA

# Horma-irudia Udalatz babesteko

Herritar talde batek Udalatz harrobiaren kontrako horma-irudia egin zuen Santamasak baino lehen. *Udalatz zulatu?* dioen leloa erabiliz, gure herriko mendi ezagunenaren aurkako "erasoak" salatu zituzten: "Zertarako horrenbeste harri? Non erabiliko da?", galdegin dute.



XABI MONDRAGON

# Gimnasia abdominal hipopresibo ikastaroa hasiko da gaur

Aukeak ikastaro berri bat antolatu du urtarrilerako eta otsailerako. Hastapen ikastaroa izango da, eta astelehen zein eguaztenetan izango dira klaseak, 09:15ean, 17:30ean edo 20:30ean. Hilero 37,60 euro ordaindu beharko da. Izena emateko Musakolako kiroldegira jo edo 943 77 16 77 telefono zenbakira deitu behar da.

# Punk-rock doinuekin bataiatuko dute urteko lehen Kooltur Osteguna

Urtarrileko egitarauaren baitan musikaz gainera, antzerkiaz ere disfrutatu ahal izango da gaztetxean



Porco Bravo taldeak estreinatuko du urtarrileko Kooltur. | PORCO BRAVO

## ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Lau hitzordu izango dira Kooltur Ostegunak ekimenaren baitan urtarrilean zehar. Musikak eta antzerkiak hartuko du Arrasateko Gaztetxea urteko aurreneko hilabete honetan; hitzorduak eguenero, 22:00etan hasita.

Barakaldotik etorriko da aurreneko taldea eguen honetan. Porco Bravo igoko da oholtzara bere zuzeneko indartsuarekin. Talde bizkaitarra 2004ean sortu zen, eta erritmo biziko *Grooo* diskoa aurkeztuko dute, punk-rock doinuekin jendea gozaraziz.

Bigarren hitzordua urtarrilaren 17an izango da. Xabi San Sebastian Banden txanda izango da orduan. Ibilbide luzea du San Sebastianek musika munduan: bakarka, Alboka taldeaz edota Kepa Junkerarekin aritu ondoren, Xabi San Sebastian Band taldearekin etorriko da Arrasatera, *Erraiak* diskoa aurkeztera.

Urtarrilaren 24an Cristina Calvo eta Ekoma Teatroyen ikuskizunaren txanda izango da: *Rosalinda, sous le ciel*. Jendarteak ipinitako kanonetatik aldentzen den emakumea da Rosalinda eta arrazoi horrexegatik are pertsona bakartiagoa bilakatu den protagonista. Umore klabean kontatutako istorioa.

Hileko azken hitzorduan Arabako lurretatik etorritako Siroko Ska taldea izango da protagonista. Tronpetek lagunduta, 2008an sortutako talde gasteiztarak, reggae zein ska doinuez bustiko dute gaztetxea, urtarrilaren 31n.

# Arrasaten eraikuntza berriko etxeen prezioak mantendu egin ziren iaz

ST-Balioztatzen Elkartaren arabera EAEko datuek beheranzko joera erakusten dute

## Z.V.D.M. | ARRASATE

ST-Balioztatze Elkartek eraikuntza berriko etxebizitzaren prezioen gaineko bilakaeraren berri eman du. Arrasateren kasuan, 2011tik 2012ra bitartean prezioak nabari jaitsi ziren arren, 2012an joera bertan behera geratu zen eta metro koadroaren kostua ia bere horretan mantendu zen. Hala, 2.450 euro kostatzen zen eraikuntza berriko etxebizitzaren metro koadroa 2011n; 2012ko uztailaren berriz, 2.175 euro ingurura jaitsi zen, eta urte amaieran 2.150 eurotan zegoen merkatua.

EAEko datuek diotenez, 2012an prezioak %4 jaitsi ziren. Bilbon igarri zen batez ere jaitsiera ST-Balioztatze Elkartaren

arabera, %5,4 jaitsiera eduki baitzuen bertan lurzorua. Beherakada gehien nabaritu den bigarren hiriburua, berriz, Gasteiz izan zen (%3,3). Donostian aldiz, oso gutxi igarri da jaitsiera (%2,7).

Gipuzkoako hiriburua da, halaber, estatu mailan eraikuntza berriko etxebizitzaren eskuratzeko garestien den tokia (3.502 euro metro koadroa); datuek diotenez, azken hamardakatan lehenengo aldiz eman da egoera hori.

## Desgrabaziorik ez

2013ari dagokionez, aurtengo etxebizitzaren erosten dutenek ez dute Zerga Aitorpenean desgrabaziorik edukiko, legeak aldatu direla eta.

# Euskarazko palindromo onenen bila, hirugarrenez

Euskal Herriko eta Arrasateko palindromo onenak hautatuko dituzte AEDk antolatutako sariketan

## Z.V.D.M. | ARRASATE

Euskarazko Palindromo lehiaketaren edizio berri bat jarri du martxan AEDk eta oraingoan ere, Euskal Herriko eta Arrasateko palindromorik onenak bilatuko dituzte.

Otsailak 15 izango da lanak aurkezteko azken eguna, eta epaimahaia martxoaren 1ean emango ditu jakitera irabazleen izenak. Lanak baloratzeko zenbait ezaugarri hartuko dituzte

kontuan: balio literarioa eta artistikoa, luzera eta aberastasun semantikoa. Lanak, euskarazkoak eta hizkuntza aldetik zuzenak izan behar dute eta sekula argitaratu gabeakoak izan behar dira. Kategoria bakoitzeko sari bana egongo da.

Parte hartu gura izanez gero, [aed@aedelkartea.com](mailto:aed@aedelkartea.com) helbidera bidali behar dira lanak. Informazio gehigarriko, AEDren webgunera jo.

# Harreman dendaren otarra, Aretxabaletara

Harreman dendak otarre bat zozkatu zuen abenduan dendan erosketak egin zituzten bezeroen artean. Helburua, "nolabait proiektu honetan beraien konfiantza jarri dutenei eskerrak ematea izan da", Harremaneko esanetan. Jose Angel Beitia aretxabaletarrari egokitu zitzaion saria. Zorionak!



HARREMAN

# Aurrera jarraitzen dute literatur solasaldiek

Euskarazkoek iaz hasitakori jarraipena emango diote; gaztelaniazkoek komikia landuko dute

## Z.V.D.M. | ARRASATE

Literatur Solasaldien baitan, euskarazko saioek 2012an hasitako bidea jarraituko dute, Mikel Aierberren gidaritzapean. Hilaren 22an Andrej Longoren *Hamar* liburua izango dute hizpide; otsailaren 26an Jean Rhysen *Sargazo itsaso zabala*; martxoaren 19an, Irene Nèmirovskyren *Birjinak*; apirilaren 23an, Rikardo Arregiren *Bitan esan beharra*; maiatzaren 28an, Mikel Antzaren *Atzerri*; eta amaizteko, ekainaren

18an, Alice Munroren *Zorion handiegia*.

## Nobela beltzetik komikira

Nobela beltzaren ostean komikia landuko dute gaztelaniazko saioetan. Antonio Altarriba gidolari eta 2010eko Espainiako Komiki Sariaren irabazleak koordinatuko ditu saioak. *Epiléptico*; *Fun home: una familia trágica*; eta *La chica inclinada* komikiak landuko dira. Kulturaren eman daiteke izena hauetan.



Gabonetako erakusleho lehiaketako, marrazki lehiaketako eta Peter Panen ipuin ezkuaren irabazleak. | IMANOL SORIANO

## Banatu dituzte erakusleho eta marrazki lehiaketako sariak

Zapatu eguerdian Munibe plazan egin zuten ekitaldia

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Zapatu eguerdian banatu zituzten Gabonetako erakusleho lehiaketako sariak. Ekitaldi berean, marrazki lehiaketako irabazleek ere euren sariak jaso zituzten Munibe plazan egindako ekitaldian.

### Igarzak lehen saria

Berez abenduko azken astean eman zuen jakitera Bedelkarrek erakusleho txapelketa lehen hiru sarituen izenak, baina zapatuan, urtarrilak 5, egin zuten sari horien banaketa. "Komertzioek ez zuten izena eman beharrik lehiaketan parte hartzeko, eta ez dakigu zehazki zenbaterik parte hartu duten, baina pozik

gaude", adierazi du Bedelkarreko presidente Jon Ander Egañak. "Bedelkarreko, Beart-eko eta Udaleko ordezkariak hartu dute parte epaimahaian eta euren ustez, erakusleho politena Igarza mertzeriarena izan da (200 euro). Bigarren saria Gorosti loradendak (150 euro) eskuratu du eta hirugarrena, berriz, Ninika loradendak (100 euro)", argitu du Egañak. Hirurek, udalak emandako dirusaria eskuratu zuten zapatuko ekitaldian.

Epaimahaiak izendatutako erakuslehoak ez ezik, herritarrek aukeratutakoak ere saria jaso zuten zapatuan: Mirari jantzizendak irabazi du aurtengo Gabone-

tako herritarren saria (100 euro). Bestalde, botoa eman zuten herritarren artean ere banatu zuten saria, hain zuen, Bedelkarreko komertzioetan gastatzeko 150 euroko bonoa. Eta sari hori Yamila Gallegok irabazi zuen, parte hartu zutenen arteko zozketa eginenez.

### 75 marrazki eta Peter Pan

Bestalde, 75 marrazki aurkeztu dituzte 13 urte arteko gaztetxoek aurtengo lehiaketara eta txapelketa horren sari banaketa ere zapatuko ekitaldian egin zuten. Kategoria bakoitzean lehen saria irabazi zutenek jaso zuten saria hala

nola: Oier Sanchez (5 urte), June Etxabarri (6-7 urte), Alazne Urkiola (8-9 urte), Eider Etxaniz (10-11 urte) eta Amaia Etxaniz (12-13 urte). Marrazki horiek Bedelkarreko denda eta komertzioetako erakuslehoetan egon dira ikusgai Gabon egunetan.

Horrez gain, Peter Panen ipuin ezkutua aurkitu dutenen artean ere egin zuten zozketa zapatuko saribanaketan. Kasu horretan, Ainhoa Lekuona Irigoien izan zen irabazlea (150 euro).

Bai sarituak eta baita antolatzailleak ere pozik azaldu ziren zapatuan erakusleho lehiaketak beste behin eman duenarekin.

## Dantza eta musika, urtarrileko kultur gidan

O.E. | BERGARA

Dantza, zinema, musika, antzerkia, erakusketak eta hitzaldia jasotzen ditu Udalak urtarrilerako prestatu duen kultura gidak.

Aste honetan, esaterako, trikitixa, porrusalda, aurrekua, fandangoa eta arin-arin ikasteko aukera emango du Jardunek. Urtarrilaren 9an hasiko da ikastaroa, eta ekainera artekoa izango da, beraz, izena ematen duenak sei hilabetetarako konpromisoa hartuko du. Aroztegin, berriz, hilaren 20an bukatuko da Beart elkartearen lanen erakusketa, eta Mikel Mitxenaren zabalduko dute urtarrilaren 25ean.

### Monologoa eta hitzaldia

Egun horretan bertan, hilak 25, Sustraiak han dituenak izeneko monologoa egingo du Goio Arrietak. Bestalde, hitzaldiari dagokionez, fracking-ari buruzkoa egingo dute hilaren 22an. Irizar jauregian izango da hitzaldi hori, 19:00tan, eta Azaitz Unanue izango da hizlaria.

Musikari dagokionez, hilaren 19an DJ jaialdia egingo dute Zabalotegin. Horrez gain, Azkaiter Pelox-ek diskoa aurkeztuko du: *Zamburleiker* izeneko lana. Zabalotegi aretoan izango da disko horren aurkezpen kontzertua, urtarrilaren 11n, 22:00tan. Sarre-ra 8 euro izango da. *Zamburleiker* Eibarko Legarre estudioan grabatu zuten eta 10 abestiz dago osatua.



Erreka ondoan jarri dute konpostagailua. | O.E.

## Labegaraietako konpostagailu komunitarioa, erabiltzeko prest

O.E. | BERGARA

Dagoeneko erabiltzeko prest dago Labegaraieta auzoan jarri duten konpostagailu komunitarioa. Erreka ondoan eta bidegorriaren kontra dagoen txokobaten jarri dute, eta laster hasiko dira erabiltzen auzoko bizi-lagunak.

Lau konpostagailu txiki eta handi bat jarri dute, egurrezko hesi batekin inguratutako txo-

koan. Bizilagunek, konpostagailu txikiak erabiliko dituzte hasieran, eta horiek bete ahalaz, handia erabiliko dute.

Abenduan jaso zuten auzotarrek lehen ikastaroa konpostari buruz, eta datozen egunetan konpostagailuak nola erabili, arazorik izanez gero nora jo eta antzerako kezkek argitzeko bilera egingo dute, tokian bertan, udal ordezkariaren.

## Jatetxe eta taberna zerbitzuak eskaintzen ditu berriz ere Agorrosingo tabernak

O.E. | BERGARA

Agorrosin kirol ekintza guneko taberna zabalik dago berriz ere. Abenduaren 28an zabaldu zuten. Hasiera batean urtarrilean zabaltekoak baziren ere, abenduaren 28an ireki zuten taberna.

Gureak Ostalaritza enpresak du tabernaren ardura eta bertako odezkarrietako batek azaldu

duen bezala, bost langile arituko dira lanean. Eskaintzari buruz, eguneko menuak, ogitartekoak, pintxoak eta errazioak eskainiko ditu, eta egunero egongo da zabalik. Hauxe da ordutegia: domekatik eguenera, 08:00tik 21:00ra; egubakoitzean eta zapatuan, 09:00tatik 00:00ra. Agorrosin tabernako telefonoa: 943 77 70 30.



Zamburleiker diskoa. | JON ANDUEZA

## Umeak gustura ibili dira jolas parkean

Umeak eta gaztetxoak gustura ibili dira urtarrilaren 3an eta 4an udal pilotalekuan Jardunen eta Udalaren eskutik antolatutako jolas parkean. Puzgarri handi zein txikiak, wii-ak, plastilina, txapak egiteko tailerra ... dena izan zen txikien gustukoa.





# 2.363 kilo jaki gehiago, premiadunei partitzeko

Europako soberakinak eskuratu dituzte, bigarren aldiz; Martokon daude

UBANE MADERA | BERGARA

Esnea, arroza, garbantzuak, pasta, umeendako *potitoak*, galletak... guztira, 2.363 kilo jaki daude gordeta Martokoko biltegian.

Europatik iritsi da hori guztiori abendu amaieran Bergara. Hain justu ere, Europak eszedente duen janariaren zati bat da. Eta Martokon dago gordeta, 2013an premia duten herritarren artean banatu ahal izateko.

"Oinarri-oinarrizko jana da. Bergarako Elikagaien Bankuak hilero jaki-loteak osatzen ditu premia duten bergararren artean banatzeko, baina batzuetan loteok eskas geratzen dira, bereziki Elikagaien Bankuari egiten dizkionen jaki ekarpenak jaitsi egin direlako. Bada, lote horiek osatzeko erabili behar dugu Europa eskatutako janaria", azaldu du Jabi Bengoak, Gizarte Ongizate Saileko zinegotziak.

"Janari hori banatzeko talde bat osatuta dago, herriko elkarre ezberdinen artean. Besteak beste, Caritasek eta Bergarako Udalak parte hartzen dute taldean", zehaztu du Xabier Legorburuk, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako teknikariak.

**80 familiaren artean**

Bergaran, batez beste, hilero 80 familiaren artean banatzen dute janaria. Caritasek emandako txartel batekin joan beharra dago Martokora janaria eskuratzera. "Lehenengo Sierbetako komentuan ditu Caritasek bulegoak. Hileko lehenengo eta hirugarren asteartetan harrera zerbitzua izaten

dugu bertan. Izan ere, adibidez, jakiak eskuratzeko derrigorrezkoa da txartela izatea, eta txartela lortzeko, gurera etorri beharra dago, guk eskatzaileekin harremana izan dezagun. Euren erralitatea ezagutu behar dugu eta horren arabera erabaki zelako laguntza eman ahal zaien", azaldu du Xabier Jorrinek, Caritaseko Debagoieneko langileak.

**Aurten beste ekarpen bat**

Bigarren aldia da Bergarako Europako jakiak hartzen dituela. "Lehenengo aldia udan izan zen, eta aurtengo urtean zehar beste ekarpen bat ere jasoko dugu", jakinarazi du Bengoa zinegotziak.

Bestalde, honekin lotuta, Ber-

garako Udalak eskerrak eman gura dizkie Europatik abenduan iritsitako jakien garraioan zein deskargan parte hartu zuten boluntario guztiei: "Bergarako Udalak eskerrak eman nahi dizkio talde honi bere ahaleginatik eta esku-zabaltasunagatik. Zehazki honako hauei: DHL garraio enpresako ordezkariari eta garraiolariari, hainbat herritar partikularri, Caritaseko boluntarioei eta MAI Institutuko Mantenu taldeko 2. mailako ikasle taldeari".

Eta bide batez, lanerako gertu dauden herritarrek gonbidatu gura dituzte boluntario moduan halako lanetan, eta orokorrean, herriko elkarteetan parte har dezaten.



Miguel Altuna Institutuko boluntarioak, jakiak deskargatu ostean. | J. BENGOA

## Arartekoarekin batzartuko dela iragarri du Bergara Garbiak

Bere aldetik, Udal gobernuak iragarri du herritarren "kezka entzuteko prozesua" abiaraziko duela

U.M. | BERGARA

Bergara Garbiak adierazi du Arartekoarekin bilera egingo duela: "Milaka bergararrek atez ate hondakin bilketa sistemaren aurka azaldutako desadostasun nabaria ikusi eta halere, Udal Gobernuak adierazten duen itsukeria honen aurrean aholku bila joango gara Arartekoarengana".

Iragarri du, baita ere, "Udal Gobernuak inposatu nahi digun hondakin bilketa sistema berriaren aurkako protestekin jarraituko" dutela. Era berean, honakoa gehitu dute: "Alkateak komeni zaionean

ahotan hainbeste erabiltzen duen "Herria" eta "herritarrek" behin eta berriz esaten ari dira bosgarren edukiontzia aldea daudela birziklaia areagotzeko. Ikusi beharrik ez dago jendearen eguneroko protesta, baina dirudienek, Alkateari bost axola zaio herritar guzti hauen iritzia", gehitu dute.

**Eskerrak**

Horrekin lotuta, Bergara Garbiak "eskerrak eman nahi dizkie bergararrei protestaren lehen fase honetan erakusten ari diren pazientziagatik ikusirik udal gobernuak

bere horretan jarraitzen duela". Halaber, zera azpimarratzen dute: "Kontutan hartzeak diren 4.000-tik gora sinadura kontrastatuen babesarekin eta ikusgarri geratu den zabor poltsak ehundaka balkoietan zintzilikatuz egindako protestarekin, atez ate sistemaren aurka gaudela adierazteaz gain, Bergarako Udal gobernuaren gobernatzeko erak sortzen digun kezka ere kaleratu nahi dugu".

Honekin lotuta, Goiena Udal gobernuarekin harremanetan jarri da, bere iritzia jakin guran, eta honek esan du ez duela iritzirik emango.

**Udal bandoa**

Bestalde, hondakin bilketa sistemarekin lotuta, Bergarako Udal gobernuak bandoa atera du Gabonetan. Besteak beste, dio "hondakinaren gestioaren inguruan Bergaran sortu den giro nahasiaz erabat jabetzen" direla. Eta horren aurrean honakoa adierazi gura dutela: bategatik, "herritarrokin banan-banan

## Aratusteak iragartzeko aurtengo kartel lehiaketa abian da

U.M. | BERGARA

Bergarako Udalak deitu du Aratusteetako kartel lehiaketa. Urtarrilaren 22a da kartelak entregatzeko jarri duten epe muga. Diseinu, kolore eta teknika libreaz egin daitezke, hori bai, ondorengo testua eraman beharko dute nahitaez: Aratusteak 2013, Bergara. Irabazleak 350 euro eskuratuko ditu.

40X60 cm-tako kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu behar dira kartelak, edo beste

aukera bat da CD batean aurkeztea. Aurkezten diren lan guztiak originalak izango dira, eta beste lehiaketa batean aurkeztu bakoak. Lehiaketako oinarrien arabera, "Bergarako Udalak plagioa egon denaren zantzurik ikusten badu, sortutako kalteen aurrean kalte-ordainak eskatu ahal izango dizkio plagioaren egileari".

Kartelak Bergarako Kultura Etxera eraman behar dira, urtarrilaren 22ko 13:00ak aurretik.

## Irakaskuntza publikoa "eraso bortitza" jasotzen ari dela salatu dute Miguel Altunako hainbat langilek

Espainiako gobernuak egindako murrizketak direla-eta, Miguel Altuna institutuko hainbat langilek salatu dute murrizketekin "eraso bortitza" eragiten diotela irakaskuntza publikoari. Horrekin batera, euskal erakundeei eskatu gura diete "beraien kompetentzietan egndako erasoei neurri politikoekin erantzuteko". Eta azpimarratu dute ez dutela "onartzen murrizketak ezarri eta juridikoki helegitea aurkeztea, kasu hoberenean ere urte asko pasatuko lirakeelako erantzuna jasotzeko eta bien bitartean murrizketak aurrera eramango zirelako".

## EAJk egiten duen Gabonetako zozketaren zenbaki irabazlea jakinarazi dute: 0471

Talaso terapia zentro batean bi pertsonarendako egonaldia irabazi du 0471 zenbakiaren jabeak. Batzokira deitu behar du sari-dunak, saria eskuratzeko: 943 76 47 00. Gabonetako zozketa da Euzko Alderdi Jeltzaleak antolatutako hori.

## Aerodance taldea osatzeko deialdia egin dute, herritarrek erakutsitako interesa aintzat hartuta

Ikasturte hasieran, irailean, hiru aerodance saio eskaini ziren Agorrosinen; hala ere, horietatik bi baino ez ziren osatu. Astearte eta ostegunetako 10:30eko saioa da osatu gabe dagoena. Gauzak horrela, eta jendea interesatuta dagoela ikusirik, berriz ere taldea osatzeko deialdia egin dute. Aerodance taldean 14 urtetik gorakoek parte hartu ahal dute. Abonatuak 18,82 euro ordaindu beharko dituzte hilean, eta ez abonatuak 38,64 euro.

egon eta zuen kezka zein proposamenak entzuteko prozesu bat martxan" jarriko dutela orain, Gabonetan. Eta bestetik, "prozesu honek hondakin arazoari irtenbide onena zein den erabakitzeke balio behar duela, birziklapenaren aldeko apustu garbia eginez".

Horren harira, Bergara Garbiak salatu du "ezuste handia" jaso zutela bilera alkateak esan beharrekoa "aurrez, aspaldiko ohiturei jarraituz bando baten bitartez eta baita prentsa bitartez ere lau haizetara zabaldu zuela jakitean". Jakinarazi dute batzarrean alkateari galde-tu ziotela bosgarren edukiontzia aukera kontuan har zitekeen. "Erantzun borobila eman zigun: EZ!". Zera gaineratu dute: "Bergararrok ahalik eta gehien sailkatu nahi ditugu hondakinak, bosgarren edukiontzia gehituz". Eta besteak beste, herri galdeketa exijitu dute.

**Goienaren azalpena**

Bere aldetik, Goienak azalpenak eman nahi ditu Bergara Garbiak

abenduen 18an erredakziora bidalitako oharraren harira sortutakoak direla-eta (beronen berri abenduaren 21eko Goiena paperekoan eman zen).

Bergara Garbiak ohar horretan, besteak beste, zioen hitzez hitz: "Alkatearen esanetan behartu egin behar da jendea gauzak egiteko, Francok egiten suen erara, bere hitzetan ATEZ ATEkoa da aukera bakarra naiz eta ezindua eta adin handiko jendea baztertu eta isolatura kondenatu" (SIC). Goienak ez zuen jarri letra etzanaz "behartu egin behar da jendea" esaldia eta hortik etorri dira gaizki-uler-tuak.

Izan ere, berri horren ostean, Bergarako Udal gobernuak, abenduaren 22an, prentsaurrekoa eman zuen Bergara Garbiari erantzuteko eta, besteak beste, leporatu zion Bergara Garbiari "alkatearen ahotan berak esan ez dituen hitzak" jartzea. Prentsaurreko honen berri, abenduaren 24ko paperekoan eman zuen Goienak.



Antonio Garcia, Xabi Elortza, Jon Elortza, Begoña Colinas, Antton Elortza eta Kepa Garcia, tabernako estufa mitikoaren bueltan. | MIREN ARREGI

# Itxi ditu ateak betiko Antton tabernak, 32 urteren ondoren

- Gainezka egin zuen atzo tabernak; herritar mordoa joan zen agur jaira
- Hemendik aurrera, Gure Txoko elkartekoen egoitza izango da hori

MIREN ARREGI | OÑATI

Antton tabernak izan duen nortasuna bezeroei ez ezik, bereziki han lan eta lan aritu den familiari zor zaio eta familia horri zerbait errekonozitu behar bazaio, hori da urte hauetan guztietan dotoretasun osoz herritarrei eman dioten zerbitzu ezin hobea. Eta ez dira herritarrak gustura dauden bakarrik: "Zerbait oso harro esan badezaket, hau da: hasierako hornitzaile haiekin ia guztiekin jarraitu dudala gaur arte", dio Antton Elortzak, tabernako nagusiak. Barra barruan dago bera; kanpoan ditu urte askotan harekin lan egin duen hornitzaile bat eta eguneroko bezero bi. Hornitzaileak baietz dio, bezero ereduagarria izan dela Antton. Haren azken bisita da 32 urtean ia astero bisitatu duen tabernara. Hunkituta agurtu du tabernako nagusia: "Plazer bat izan da. Ikusi arte, Antton!", esan du irteterakoan. Hori gertatu da, taberna ixteko lau egun gelditzen direnean. Giroan nabari da zerbaiten bukaera gertu dela. Poza eta pena, biak nahasten dira tabernan gauden guztien sentimenduetan. Handik lau egunetara, atzo, itxi zituen betirako ateak Anttonek.

**1980ko abuztuaren 16a zen**

"1980ko San Roke egunean zabaldu genuen taberna", dio Antton Elortzak. Oñatiko Caza y Pesca elkartearen zegoen han ordura arte, eta haiek plazara joan zirenean zabaldu zuten Antton: Antton Elortza, Antonio Garcia, Begoña eta Neli Colinas. "Ez genekien zenbat lan eskatzen zuten taberna batek, baina bizimodu honek ematen duen esperientzia ez da toki askotan jasotzen. Une txarrak ere bizi izan ditugu, noski, baina atzera begira, ibilbide ederra ikusten dut", dio. Eta jarraitzen du: "Bihotza zaitututa daukat. Pena handia ematen dit ixteak, baina iritsi da ordua".

Hasierako urteak oso onak izan ziren: "Lehenengo 15-20 urteak izan ziren onenak. Gero, pixkanaka ohiturak eta aldatzen joan ziren heinean, beherantz etorri zen". Aldaketa handiena etorri zen jendea asteburuetan eskiatzera eta joaten hasi zenean. Eragina izan zuen ere jendea alkoholak eta tabakoak egiten dituzten kalteen kontzientzia hartzen hasi izanak. Gogorren kolpatu duena, baina, azken urteotako krisia izan omen da.

**Neli eta Begoña, sukaldari**

Baina taberna bakarrik ez, jatetxea ere izan da Antton, sortu zen egunetik gaur arte. Ezin aipatu barik utzi hango sukaldean urte hauetan guztietan lan egin izan duten sukaldariak, baina aipamen berezia zor zaie, zalantza barik, Neli eta Begoña Colinas ahizpei. Nelik zendu zen arte eta Begoñak atzora arte dena eman baitute, sukalde hartatik jaki goxoek ateratzeko helburuarekin.

**Bi elementu: erlojua eta estufa**

Tabernako bi elementu bereizgarri dira erloju berezia eta taberna erdian urtero-urtero negu sasoiaren ipini izan duten estufa: "Estufa 28 bat urtean ipini dugu. Ipin, beti, azaroaren lein; kendu, ekainaren 9an", dio Elortzak. Makina bat anekdota daude estufa horren bueltan, baina kontatzea merezi duena erloju-orratzak alderantziz dituen erlojuaren gaineko bat da: Suitzatik ekarri zion azkenean lagun batek Elortzari erlojua. Berak urteak zeramatzen halako baten atzetik. Duela 50 bat urte maristen eskolan ikasten zegoela maisu batekin izan zuen elkarriketa baten erantzuna

da hori. Hala kontatzen du Elortzak: "Maisuak Lurraren errotazioaz galdetu zidan. Ea eguzkiaren bueltan zein norabidetan egiten zuen buelta, eta nik ez nuen erantzuten jakin. Orduan maisuak erantzun: beti eskuin aldera, Elortza! Beti eskuin aldera! Erlojuaren orratzak bezala! Nik erakutsi dut erlojuaren orratzak ez doazela beti alde horretara", dio barrez eta harrotasun puntu batez.

**Hemendik aurrera, Gure Txoko**

Antton tabernak itxi ditu ateak betiko, eta, hemendik aurrera, Gure Txoko elkartearen egongo da bertan. Aktibitate aldaketa dela eta egokitzapen batzuk egin behar dituzte orain arteko tabernan, eta otsailera, elkarteko 65 bazkideek bertara egingo dute. Antton bera ere bada elkarteko kide.

**Bezeroen agur sentitua**

Gaurko zein atzoko bezeroak, egunerokoak, noizbehinkakoak... Herritar mordoa batu zen atzo tabernari eta bereziki familiari urte hauetan egindako lana eskertzerako. Hemendik ere, eskerrik asko eta zorte on!

## Betagarri taldeak disko berria aurkeztuko du gaztelekuan

Zorion Argiak disko bikoitza aurkeztera dator egubakoitzean Betagarri talde gasteiztarra. Azken disko honekin, taldeak musika alorrean daramatzan 20 urteak ospatu gura ditu. Kolaborazioen diskoa dela esan daiteke izan ere hamaika musikariren laguntza izan dute; hala nola, Tonino Carotone, Francis, Iñigo Muguruza edota Gari, besteak beste.

## Teknologia berriak erabiltzen ikasteko ikastaroak KZ gunean

Hilabete osoan zehar eskainiko ditu teknologia berriak erabiltzen ikasteko ikastaroak Oñatiko KZ guneak. Hala nola, *Google Apps* ikastaroa, *Oinarriko internet* ikastaroa, *Sare sozialak 2.0* ikastaroa; *Software libreko* bat eta azkenik *IT Txartela* eskuratzeko ikastaroa eskainiko dituzte. Informazio gehiago, [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) helbidean edota 943 02 36 72 telefonoan.

## Kirodegiko parkina ordainpekoa da urtarilaren 1etik

Lehen bi orduak doan izango dira; hortik aurrera, 0,05 euro kostako da minutua eta bost ordutik gorako aparkatzetan 0,03 euro. Eguneko gehienezko tarifa 15 eurokoa izango da. Orain arte bezala funtzionatuko du Kalegoienako parkinak. Lehen ordu erdia doan izango da eta ondoren, bost ordura bitartean 2 zentimo ordaindu beharko dira; 3 zentimo, hortik aurrera.

## Atez atekoaren gaineko hitzaldia, bihar; Zuazola Institutuko aretoan

Urtarriletik martxora iraungo du prozesuak eta tarte horretan Udalak herriko atari guztiekin bilerak egin eta ekarpenak jasoko ditu. Urtarrilean egingo dira bilera informatiboak eta otsailean herritarren ekarpenak jasoko ditu. Bestetik, bihar 19:00etan, Zuazola Institutuko aretoan, hitzaldi informatiboa egingo dute atez ateko sistemaz.

## Batzokian egindako 'Errauskailurik ez' pintada salatu du EAJK

*Errauskailurik ez* dioen pintada agertu zen urte berri egunean Oñatiko Batzokian eta ekintza hori salatu du EAJK alderdiak, galdetuz ea hori den "adierazpen askatasunaren irudia". Horretaz gain, baina, EAJK ere salatu du PaP taldeko kide baten fatxadan ere egin dutela pintada bera eta hori ere onartezina dela.

## Trikilariak, Papalagi eta abar, bukatzeko

Azken urteotan, asko eta asko izan dira Antton tabernatik kontzertuak ematera pasatu diren musikari eta rock taldeak. Hango seme Xabi Elortzak bultzatuta hasi ziren tabernan hilean behin kontzertuak egiten eta urte gutxian, herriko eta kanpoko rock zaleendako erreferentziatzko toki bilakatu da taberna.

Atzo ere, 32 urteko ibilbidea agurtzeko jaian, musika izan zen protagonista: hain zuzen ere, trikilariak hasi ziren 18:30ean giroa berotzen, eta gero, Papalagi talde oñatiarrak kontzertua egin zuen. Ume, gazte zein heldu, adin guztietako jendea batu zen azken agur jai horretara. Noski, musikaz aparte, jatekoa ere ez zen falta izan. Begoña Colinasen patata tortila eta erroskila goxoek, esaterako, sekulako arrakasta izan zuten.



Taberna jendez gainezka, Papalagiren kontzertuan. | JOSETXO ARANTZABAL

## ESKORIATZA



Irabazlea Jose Angel Petralanda kultura zinegotziarekin. | ESKORIATZAKO UDALA

## Maite Santamariaren irudiarekin egingo dute 2013ko orri-puntua

M.A. | ESKORIATZA

Aurten Udal bibliotekan erabiliko duten orri-puntua dagoneko aukeratu dute; Maite Santamaria eskoriatzarrak egindakoa da eta lanaren izena *Atxorrotz gure mendia*.

Azken urteotan legez lehia-keta deitu zuen Udalak udazken inguruan 2013an bibliotekan erabiliko duten orri puntua aukeratzeko. Sei lan aurkeztu

zituzten deialdi hartara, eta Santamariak egindakoa hautatu zuen epaimahaiak abendu bukaeran. 250 euro jaso ditu egile gazteak saritzat -argazkian Jose Angel Petralanda zinegotziarekin-.

Saritu gabe geratutako lanak jaso gura dituztenek 30 eguneko epea dutela 2013ko urtarrilaren 21ean hasita gogorazi dute antolatzaileek.



M.A.

## Kiroldegia ezagutzeko ate irekiak

Manuel Muñoz kiroldegiko instalakuntzak eta bertan eskaintzen dituzten jarduerak ezagutzera emateko ate irekiak egin zituzten egun eta egubakoitzean. Spinninga, tonifikazioa, aquagyma eta beste hainbat kirol egiteko aukera izan zuten herritarrek monitoreek gidatuta, baita gimnasioan jarduteko ere.



ARETXABALETA

M.A.

## Saria Belar Meta dendarendako

Gabonetako erakuslehorik dotoreena Belar Meta dendak izan duela erabaki du epaimahaiak, eta zapatuan jaso zuten saria Idoia Elexpuruk eta Uxue Erañak. Aurten sari bakarra eman dute, irabazlea dela ziurtatzen duen plaka hain zuzen, eta Belar Metako erakuslehoan izango dute hori hurrengo irabazleari pasatu arte.

## ARETXABALETA

## Osatu dute Korrika batzordea gurean eta lanean hasita dago

Korrika 18ri laguntzeko hainbat bide dituztela herritarrek iragarri dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Abenduan osatu zuten Korrika batzordea gurean eta osatu orduko lanean hasi. Herriko eragileak eta hainbat norbanako elkartu dira batzorde horretan Korrika 18ren inguruko ekitaldi eta kontu guztiak antolatzeko. Hurrengo bilera datorren astean izango dute udaletxeko ganbaran.

### Laguntzeko bideak

Batzordeko kideek gogorarazi gura diete herritarrei hainbat bide daudela Korrikari laguntzeko; laguntzaile egitea da horietako bat. Aurreko urteetan kontu korronea eman izan dutenei aurten ere etxera bidaliko diete laguntzaile txartela. "Besteek, Udaleko Euskara zerbitzuan eta Loramendi elkarteetan dute aukera Korrika laguna egiteko 12 euroren truke", diote. Korrika laguntzaile txartela eta pina jaso dituzte trukean horiek. Txar-



Korrika batzordeko kideak udaletxeko ganbaran. | KORRIKA BATZORDEA

tela dutenek, gainera, eskaintzak eta abantailak izango dituzte hainbat dendetan.

Laguntzeko beste bide bat kilometroak erostea da: "Aretxabaletak 3 km izango ditu eragile ezberdinen artean banatzeko".

Eta Korrika denda ere egongo dela iragarri dute materiala erosteko. "Horrez gain herriko komertzio eta lantegietan laguntza eskatuko dugu, bakoitzak ahal duen neurrian lagun dezan", jakinarazi dute.

## Otzara mordoa banatu dituzte elkarteek Gabonetan

M.A. | ARETXABALETA

Jakiz betetako otzara ederrak oparitu dizkiete elkarteek herritarrei Gabonetan. Aretxarte merkatarien elkarteak hiru zozketatu zituen eta irabazleak izan ziren: Oscar Nieto; Iraide Iturbe; eta Maribi Gomez. Horrez gain honako ere jaso zuen Nietok: aste bukaerako egonaldia, globoan bidaia eta upategira bisita.

Basotxoren otzara Itziar Gabilondok jaso zuen; Zاراia mendizale elkartearena, Aldai ahizpendako izan zen; eta UDarena Izaskun Irurendako.



Aretxartek zozketatutako hiru otzarak jabeekin. | ANE IDIGORAS



Aldai ahizpak Zaraiakoarekin. | U. ERAÑA



Itziar Gabilondo Basotxok zozketatutako otzaretako bat jasotzen. | RAMON ERAÑA

## OHARRAK

### GARIKOITZ GARTZIAREN EPAIKETARAKO AUTOBUSA

Urtarrilaren 9an epaituko dute Madrilen Garikoitz Gartzia eta autobusa antolatu dute elkartasuna adieraztera joateko. Izena emateko Urbaltz tabernara jo.

### ZORU PELBIKOA ERREKUPERATZEKO TALDEA

Erditu ondoren zoru pelbikoa errekupe ratzen laguntzeko taldea osatu gura du Kuku Miku elkarteak. Urtarrilaren 18an hasita egubakoitzetan (14:30) elkartuko

da taldea Kuku Mikuren egoitzan, Ane Remedios fisioterapeutaren gidaritzapean. Izena emateko idatzi honako helbidera: [sanefisioterapia@hotmail.es](mailto:sanefisioterapia@hotmail.es). Prezioa, 12 euro bazkideek eta 18 euro gainerakoek.



Beñat Burgi bertso eskolako kidea gaia proposatzen Miren Amurizari eta Xabi Igoari. | JOKIN BEREZIARTUA

**ARAMAIO**

## Gabonetako bertso saioa giro ederrean, herrian errotutako ekitaldia den seinale

Lujanbio, Sarriegi, Amuriza eta Igoa aritu ziren Beñat Burgik eta Paula Amilburuk jarritako gaien erantzuten; Kultur etxea ez zen bete, baina giroa beroa izan zen

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO  
Maialen Lujanbiok, Aitor Sarriegik, Miren Amurizak eta Xabi Igoak bertso saio ederra eskaini zuten hilaren 3an Kultur etxean. Aretoa ez zen goraino bete, baino giro ederra izan zen.

Aramaioko bertso eskolako Beñat Burgi eta Paula Amilburu aritu ziren gai jartzaile. Denetarikoa proposatu zizkieten bertsolariari, barre algarak eragitekoak zein gai latzak bezain

hunkigarriak. Aurtengoan ere igarri da Gabonen bueltan urtero antolatzen den bertso saioa errotuta dagoela haur, gazte zein helduen artean.

**Algarak bai, gai serioak ere bai**  
Hasierako agurraren ostean, denetarikoa izan ziren gaiak: Aramaion ireki ei behar den diskotekako arduradun lanetan aritu ziren lau bertsolariak; nor baino nor bereziago. Gero, Igoa ara-

maioarraren eta Amuriza *japoniarra*-ren arteko harremana ere kuriozkoa izan zenik ezin ukatu. Tarteka urduri igarri zitzaion Igoari baina saio duina eskaini zuen, agurrean ondo aipatu zuen moduan eskarmentu handiko bertsolariak egokitu zitzaizkion-eta. Hori guztia, gainera, etxean abestearrekin gainkargarekin.

Barre algarak ederrak eragin zituen Sarriegi nudistaren eta haren aurrean "paralizatuta" geratu zen Lujanbioren arteko elkarrizketak. Bestalde, une gogorra eta hunkigarria Amurizak jarri zuen; bankuak etxetik kale-ratu dituen gurasoen alabaren paperean abestu zuen, baita ondo abestu ere. Egun pil-pilean dagoen drama ederto landu zuen. Horrez gain, Igoa Euskal Herriko bertsolari txapelketako antolatzaile zela, besteei jarri zizkien ardurak ere oso baliagarriak izan ziren; Sarriegiri atezain izatea egokitu zitzaion, esaterako. Hori horrela izango balitz, Lujanbio berari ere pasatzen utziko ez ziola eman zuen aditzera Beasaingoak.



Kultur etxea ez zen goraino bete, baina jende asko hurbildu zen. | J.B.

**ANTZUOLA**

## 'Euskarazetamol' antzezlanaz disfrutatzeke aukera barikuan

Urtarrilaren 11n, barikuan, izango da emanaldi umoretsua Torresoroan, 22:00etan hasita

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA  
Barre algar bermatuta dago *Euskarazetamol* antzezlanarekin. Mikel Martinez eta Patxo Telleria dira umorez jantzitako obraren aktoreak. Telleria eta Martinez aktoreek Ez Dok Hiru Bikoteatroa osatzen dute, eta, hain zuzen ere, antzezlan hau da *Dibertimenduak* izenez bataiatu zuten trilogiaren

azken ekoizpena. *Euskera Sencilloaren Manifestoa* eta *Larruaitzeta* lanetan bezala, Patxo Telleriaren eta Mikel Martinezen trufarako motiboa -eta antzerkirako tresna- euskara bera izango da. "Aurreko bi ikuskizunak publikoaren gustukoak izan direnez (honek ez du publikoaren gustua toki onean ipintzen, bai-

na tira, zer egingo diogu...) beldur ginen azkenengo honekin espektatibak beteko ez ote genituzkeen, badakizue publikoa ze tikismikisa den kalitatearen kontu horrekin. Bi aukera genituen: gure talentuaz fidatzea edo dopatzeaz baliatzea. Azkenean, zentzu ona gailendu zen, eta pilulak aukeratu genituen. Baina ez kezkatu, kontrolatzen dugu. Guk hau nahi dugunean uzten dugu. Eta primeran ari gara, topera, flipatzen. Ikusiko duzue zer egiteko gai garen gure hizkuntzarekin jarrita gaudenean", diote. Hala *supereuskalduna* izateko formularen bila jardungo dute barikuan, 22:00etan hasita, Torresoroan.

**ELGETA**

## Hezkuntzatik 316.994 euroko laguntza eskola aurreko proiekturako

Oxel Erostarbe: "Kopuruari begiratuta ez dugu sekula horren dirulaguntza handirik lortu"

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Oxel Erostarbe alkateak abenduan egindako Eskola Kontseiluan jakinarazi zuen moduan, abenduaren 28ko buletinean argitaratu zen Udalak 316.994 euroko dirulaguntza jasoko duela Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saitetik. Diru kopuru hori eskola aurreko eremuan martxan diren lanei jarraipena emateko izango da. Udaletik adierazi dutenez, ekimenak bi dira: 207.946 euro frontoi zaharra jolastoki estali moduan egokitzeko izango dira eta 109.048 euro eskolako jolastokiko irisgarritasuna hobetzeko.

Lanok geldu egon dira, baina jarraipena izango dute 2013an. Hormigoizko horma altxatuko

dute, eta frontoi zaharra egokitzeko lanekin jarraituko dute. Behin hori eginda, eremu osoa urbanizatuko dute. Eskola Kontseiluan alkateak esan zuen espero zuela ikasturtea amaitu aurretik lanak amaituta egotea.

**Eskerrak Hezkuntza Sailari**

"Kopuruari begiratuta sekula ez dugu horren dirulaguntza handirik lortu, eta pozik gaude, Hezkuntza Sailarekin azken bi urteotan egindako gestioek emaitza ona eman dutelako", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Aurreko gobernuo Hezkuntza Saileko arduradunei eskerrak eman gura dizkiegu", gaineratu du.



Hondeatze-makina eskola aurreko lan eremuan. | L.Z.

**LEINTZ GATZAGA**

## Facebook ezagutzeko aukera dago KZgunean

Sare sozial hori zer den eta zelan erabili jakiteko ikastaroa dago iragarrita gaur arratsalderako

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Iaz legez jarraituko dute lanean Gatzagako KZgunean eta urtarilean ere bi aldiz izango dela dinamizatzailea bertan iragarri dute. Hain zuzen, gaur, hilak 7, etorriko da (16:00-20:00) Aitor Madrid begiralea Interneten gainean jardun eta herritarren zalantzak argitzera. Eta hurrengo hitzordua hilaren 21ean da, astelehena.

**Ikastaroa iragarrita gaurko**

Udalak KZgunearen erabilera bultzatu gura du, eta orain aste batzuk Facebook sare sozialaren gaineko ikastaroa iragarri zuen KZgunearekin elkarlanean. Hala, gaur izango da ikastaro hori (18:00-20:00), eta Aitor Madrid dinamizatzaileak emango dizkie argibideak bertaratzen diren herritarrei.

Gazteek ondo baino hobeto ezagutu eta erabiltzen dute Facebook, baina heldu eta nagusi askorendako guztiz ezezaguna da; gainera, guraso askoren ardura izan ohi da. Hori horrela, sare sozial hori zer den eta zertarako erabiltzen den jakin eta horren gaineko zalantza guztiak argitzeko aukera izango da gaurko ikastaroan.

Gaurko saioak arrakasta izanez gero eta herritarrek interesa dutela ikusiz gero Udala gertu dago aurrerago beste batzuk antolatzeke.

**Ludoteka zabalik**

Bestalde, Gabonetako oporrei agur esan diete bai langileek, bai eskolako umeek, eta ludoteka eta liburutegia ere betiko martxara itzuliko dira ohiko ordutegiarekin.



*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*



**gelatuz s.l.**

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51

# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

## Bi areatan aukera ugari izan zituen partidu nahasia jokatu zuen Mondrak

- ▶ Atsedenaldira irabazten joan arren, 1-2 galtzen joan ziren bigarren zatian arrasatearrak
- ▶ Azkeneko ordu erdian tentsioa nabaria zen futbol zelaian eta baita harmailetan ere

EMAITZA

MONDRA

2-2

OSTADAR

## FITXA TEKNIKOA

**Mondra:** Oier Zabaleta, Markel Crespo (Kevin Barranca), Ion Zabaleta, Erik Justel, Aitor Iregi, Iker Lopez, Jon Ander Ormaetxea (Xabi Pavon), Gorka Dueñas, Julen Zaitegi, Iker Urribarren, Andoni Aizpuru.

**Ostadar:** Aitor Lizarazu, Aitor Hernando, Ganix Arrondo, Asier Garcia, Iñigo Gonzalez, Asier Aizpuru, David Martin, Alexander Rodriguez, Aitor Manero, Hodei Perez eta Omar Garcia.



Jon Ander Ormaetxea Mondrako jokalaria, baloia eskuratu nahian. | IMANOL SORIANO

LUTXO ITURRINO  
ENTRENATZAILEA

**"Aerioak baino aukera gehiago izan ditugu irabazteko, baina ontzat eman daiteke partidua"**

Lutxo Iturrino entrenatzailea nahiko gustura zegoen zapatuan Mojategin Ostadarren aurka jokaturako partidu amaieran.

**Nola bizi izan duzu Ostadar taldearen aurkako partidua?**

Partidu pixka bat nahasia izan da. Irabazten joan gara, bigarren zatiko lehenengo 10 minutuetan pixka bat eskas ibili gara eta golak sartu dizkigute baina hortik aurrera hobeto jokatzen hasi gara. Atzera eta aurrera ibili gara, eta nik uste dut aerioak baino aukera gehiago izan ditugula irabazteko, baina ontzat eman daiteke partidutik atera dugun emaitza.

**Nola ikusi dituzu zure mutilak partiduan?**

Opor ondoren jendea beti etortzen da pixka bat fisikoki makal, baina nik uste dut ondo bukatu dugula partidua. Izan ere, azkeneko minutuetan gainean egon gara, presionatzen. Aukerak ere izan ditugu golak sartzeko. Fisikoki nahiko ondo amaitu dugu eta gustura nago horregatik.

**Harmailetan tentsioa nabaria izan da partiduaren une batzuetan, batez ere bigarren zatian.**

Bai; jendea, azkenean, horrelako partidu nahasiak daudenean, altxatu egiten da. Baloiarekin atzera eta aurrera ibili gara eta aukerak ere egon dira area batean zein bestean, eta horrelakoetan jendea altxatu egiten da. Hala ere, nik uste dut gaurko emaitza hain ona ez izan arren, jendea pozik joan daitekeela.

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Hasiera ona eman zion Mondrak zapatuan Ostadarren aurkako partiduari, izan ere, lehenengo gola 20. minutuan sartu zuen Iker Urribarren jokalaria eta markagailuan aurretik jarri ziren arrasatearrak une horretatik.

Aukerak, baina, partiduaren hasiera-hasieratik izan zituzten; esaterako, laugarren minutuan izan zuen talde txuri-moreak arerioen portierian gola sartzeko lehenengo aukera, eta, horren ostean, Gorka Dueñas jokalaria, besteak beste, izan zuen beste pare bat aukera ere. Hala ere, lehenengo gola Urribarrenek sartu zuen eta, hortik aurrera, Mondrakoak hobeto jokatzen hasi ziren.

24. minutuan, adibidez, Mondrako Jon Ander Ormaetxeak joko polita egin zuen kontrarioei baloia sahiesten, eta harmailan zeuden zaleen txaloak jaso zituen. Hiru minutu pasa ostean etorri zen partiduko lehen txartel horia. Mondrako Erik Justel jokalaria jaso zuen, falta egiteagatik. 35. minutuan etxekoek partiduko bigarren txartel horia jaso zuten; Iker Lopezek jaso zuen.

Tartean Ostadarrekoek izan zuten aukeraren bat, baina ezin izan zuten baloia Arrasatekoen portierian sartu.

38. minutuan zintzotasunezko jokaldi bat egon zen; baloia Ostadarreko atezainak zeukan, baina ateratzerako orduan Mondrako jokalaria bat lurtean etzanda zegoen, erorita. Orduan, Ostadarreko atezainak baloia nahita kanpora bota zuen. Mondrakoek atera behar izan zuten baloia, beraz, eta zintzotasunez arrasatearrak baloia Ostadarrekoen atezainari pasa zion.

42. minutuan Ostadarrek aukera paregabea izan zuen bere lehenengo gola sartu eta berdinketa egiteko, baina Mondrako Oier Zabaleta atezainak baloia geratzea lortu zuen. Lehenengo zatia bukatu aurretik ere, Ostadar taldekoek izan zituzten aukera batzuk golak sartzeko.

**Bigarren zati tentsioduna**

Bigarren zatia ez zuten batere ondo hasi arrasatearrek, eta zati horretako 13. minutuan etorri zen Ostadarren lehenengo gola. Horren ostean, Mondrako Andoni Aizpuruak Iker Lopezekin

dako pase baten ostean beste aukera bat izan zuten arrasatearrek, baina kanpora atera zen baloia. 16. minutuan etorri zen Ostadarren bigarren gola, eta Mondraren aurretik jarri ziren (1-2).

Harmailetan tentsioa nabarmen igartzen zen, eta Ostadarrekoek aukera bat baino gehiago izan zituzten markagailuan aurrera egiten jarraitzeko. 25. minutuan, esaterako, hortxe-hortxe egon zen gola, baina Zabaleta atezainak baloia gelditu eta zaleen txaloak jaso zituen. Minutu bat geroago etorri zen berdinketa; Mondrako Urribarrenek egin zuen bigarren gola.

Ondorengo minutuetan, Ostadarreko bi jokalarik txartel horia jaso zuten.

Azkeneko ordu erdia nahiko nahasia izan zen; jokalaria atzera eta aurrera ibili ziren, area batean zein bestean aukerak izan ziren. Harmailetan ere tentsio handia sumatzen zen; txistuak, oihuak, txaloak... talde bateko zein beste zaleak bere taldea animatzen zebiltzan. Bigarren zatiko 50. minutuan epaileak jokoz kanpo bat adierazi zuen

Mondraren alde, eta harmailetan txistu ugari entzun ziren orduan ere. Bost minutu geroago gauza bera gertatu zen, eta harmailak puri-purian zeuden.

**Berdinketa**

Azkenean, 2-2ko berdinketarekin amaitu zen Mondra eta Ostadarren arteko partidua zapatuan Mojategin. Ostadar sailkapen orokorrean azkeneko doan taldea da, eta Mondrak helburu garbia zuen: irabaztea. Gainera, denboraldi honetan garaipen bakarra eskuratu du Mondrak etxean, eta zapatukoa aukera ona zen bigarreneko. Hala ere, berdinketarekin gustura geratu ziren txuri-moreak. Lutxo Iturrino entrenatzaileak esan zigun kanpoan hobeto jokatzen dutela normalean bere mutilek; zapatuan joko ona egin ez zuten arren, normalean joko aldetik ondo ibiltzen direla azaldu zigun, baina emaitzetarako ez dutela zorte handirik. Hala ere, jokalariek gogoa jarri zutelaz azaldu zigun, eta merezi zutela partidua irabaztea. Orain, datorren asteko partiduari begira daude, eta astean hiru entrenamendu egingo dituzte.



Bergarako eta Berioko futbolariak, baloiaren jabetza lortu nahian. | IMANOL SORIANO

## OHOREZKO ERREGIONALA

# Bergarakoek bi aldaketa egin ostean, kontrarioei aurre hartzea lortu zuten

Atsedenaldira markagailua 0-0 berdinduta joan ziren; gero etorri ziren Bergararen bi golak eta hiru minuturen faltan Beriokoek egin zuten gola

EMAITZA
BERGARA
<b>2-1</b>
BERIO

**AMAIA TXINTXURRETA** | BERGARA  
Bergarak garaipenaren hiru puntuak eskuratu zituen zapatuan etxean Berioaren aurka.

Lehenengo zatian nahiko berdinduta ibili ziren bi taldeak. Beriokoek izan zuten aukera garbiena; areaz kanpoko tiro bat

atezainak geratu egin zuen eta langa jo zuen. Baina joko gehiena zelaiaren erdiko aldean izan zen. Lehenengo zatian markagailuak 0-0 erakusten zuen.

Bigarren zatian, taldea nekatuaz zihoan eta Bergarak bi aldaketa egin zituen; normalean jokatzeko duten bi jokalarizapatuan aulkian geratu ziren eta zelaira ateratu zituen Neka Galan entrenatzaileak. Baltzategi eta Pedro izan ziren zelaira irten zirenak. Bi horiek jokatzeko hasi bezain laster, Baltzategik kornerretik gertu erdiraketa egin zuen eta Erikek buruz errematatu eta gola egin zuen. Hortik 10 minutu ingurura Pedro zegoen area barruko jokaldi baten penal-

ti egin zioten eta Imanolek sartu zuen partiduko bigarren gola. Markagailuan 2-0 aurrea hartuta, Berioko jokalariek goiko aldean sartzen hasi ziren eta bergararrek atzean sartu zituzten jokalariek lortutako emaitzari eutsi nahian.

Pare bat aukera garbi izan zituzten gero Bergarakoek baina ez zuten lortu markagailua 3-0 jartzea. Bestalde, Beriokoek falta edo korner batean buruz errematatutako gola sartu zuten partidua amaitzeko hiru minutu inguru falta zirela. Ondorioz, bukaeran bergararrak nahiko larri ibili ziren emaitzari eusten baina 2-1 amaitu zuten eta pozik gelditu ziren egindakoaz.

### Pozik garaipenarekin

Begarako taldea oso pozik gelditu zen Berio garaitu ostean. Hauxe esan zigun Neka Galan entrenatzaileak: "Berio, seguruenik, sailkapenean goiko postuetan egongo den talde bat izango da, eta euren irabazteak guretzako oso pozgarria da. Lagundu digu bai moraliki eta baita gure helburua ahalik eta azkarren betetzen ere. Gure helburu nagusia da kategoriari eustea, eta Beriori irabazteak indarra eman digu".

Partiduen lehenengo erronda datorren astean amaituko da eta orduan Bergarak aste honetan Aloña Mendik izan duen kontrarioa izango du: Hondarribia. Helburua irabaztea izango da.

## OHOREZKO ERREGIONALA

# Aloñak dominatu zuen partidua guztia etxean

Defentsan lan ona eginda, Hondarribiari aukera gutxi utzi zioten oñatiarrek

EMAITZA
ALOÑA
<b>2-0</b>
HONDARRIBIA

**A.T. | OÑATI**  
Partidu oso ona eta polita egin zuen zapatuan Aloña Mendik etxean Hondarribiaren aurka. Andoni Azkargortaren mutilek defentsan lan oso ona egin zuten

eta aurkariei aukera gutxi utzi zieten oñatiarrek.

Lehenengo ordu laurdenean partidua oso parekatuta joan zen baina gero Aloña dominatzen hasi zen eta aukerak sortzeko lan egin zuen. Lehenengo zatian, hala ere, atakean ez ziren oso fin ibili eta 0-0 bukatu zuten.

Bigarren zati hasieran, berriz, Gaizka Irizarrek gola sartu zuen eta ondoren etorri zen Iñigo Zubia-rena. Bigarren gol hori sartu arte Aloñakoek izan zuten partidua guz-



Aloña eta Hondarribiako jokalariek baloia eskuratu nahian. | I.S.

tiko nagusitasuna. Bigarren gol horren ostean, baina, Aloña bat gutxiagorekin geratu zen, Iker Olalde jokalaria kanporatu egin zuelako epaileak. Azken hamar minutuetan arerioek oñatiarrek

estutu zituzten, baina orduan ere atzean sendo egon ziren eta partidua nahiko "erosoa" izan zuten, entrenatzailearen hitzetan.

Datorren domekan Lagun Onak izango dute aurkari.

## OHOREZKO ERREGIONALA

# Aretxabaletak hiru puntuak lortu zituen Oartzunen

**A.T. | ARETXABALETA**

Oartzun 0, Aretxabaleta 1, horixe izan zen zapatuan Aretxabaletak etxetik kanpo jokatu zuen partiduen emaitza. Partidu oso berdinduta izan zen baina Aretxabaletakoek izan zituzten aukerekin eta Ander jokalaria golarekin partidua irabazte lortu zuten, amaieraraino sufritu arren. Taldea oso ondo lehiatu zen, gainera.

Alberto Albistegi entrenatzaileak esan zigun oso pozik daudela: "Guretzako oso partidua garrantzitsua izan zen, Oartzun gurekin berdinduta zihoalako puntuei dagokienez, eta partiduen exigentzia mailan egotea lortu genuen, taldeak oso jarrera ona erakutsi zuen eta guztiok oso pozik etorri ginen partiduen emaitzarekin".

Aretxabaletako jokalarien konpromisoa nabarmendu behar dela ere azaldu zigun Albistegik, eta talde guztia ilusioa eta jarrera oso onak direla gaineratu zuten.

Datorren astean Bete Gazte taldea hartuko dute etxean, irabazteko helburuarekin.

## ERREGIONAL PREFER.

# Antzuolak hiru gol sartu zizkion Idiazabali

**A.T. | ANTZUOLA**

Zapatuan etxetik kanpo jokatuak partiduan antzuolarrek 0-3 irabazi zuten.

Lehenengo zatian nahiko parekatuta izan zituzten indarrak bi taldeetako mutilek, baina markagailuan 0-1eko emaitzarekin joan ziren atsedenaldira; Idiazabalgok euren atean sartu zuten lehenengo gola.

Bigarren zatian, berriz, Antzuolakoak oso ondo hasi ziren jokatzeko eta aukera gehiago sortu zituzten. Partidua amaitzeko 10-15 minutu inguru falta zirela etorri zen partiduko bigarren gola; Imanol Arantzabalek baloia bularrekin kontrolatu eta gola sartu zuen. Zazpi minutu inguru falta zirela penalti oso garbia adierazi zuen epaileak Antzuolaren alde eta Ander Aranok sartu zuen gola. Idiazabalgok atezaina kanporatu egin zuten.

Idiazabal azkenengo doa sailkapenean eta antzuolarrek etxera pozik itzuli ziren. Datorren astean Legazpiaren aurka jokatu dute partidua.

## SASKIBALOIA

# Berriz ere makina martxan jarri du Natrak

- ▶ Ainhoa Lazkano memoriala jokatu zen zapatuan
- ▶ Iraurgi baino gehiago izan ziren Oñatikoak Zubikoan

## EMAITZA

NATRA OÑATI

# 73-56

IRAURGI

## FITXA TEKNIKOA

**Natra Oñati:** Gamarra, Zeziaga, Garcia, De la Iglesia, Biain, Zabaleta, Kintana, Lizarralde, Barbero, Aranburu, Odriozola.

**Iraurgi:** Zubizarreta, Alberdi, J.Amenabar, Urbizu, Villegas, Etxaniz, Seguro, U.Amenabar, Gurrutxaga, Altzibar.

**Beste:** Ainhoa Lazkano memoriala 15. urtez egin zen zapatuan Zubikoa kiroldegian.

## JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Gabonen geldialdia amaitu ondoren berriz ere martxan jartzeko momentua heldu zaie Natra taldeko jokalariei. EBA txapelketa partiduak berriz ere hasi aurretik, zapatuan Azpeitiko Iraurgi taldearen aurka lagunarteko partidua jokatu zuten Eneko Blancoren mutilek. Azpeitikoena talde oso gaztea zen eta hori partiduko momentu askotan abantaila bat izan zen Oñatikoentzat, burua hotz edukitzen jakin zutelako.

Beste garaipen bat lortu zuten Zubikoan, 73-56 irabazi zieten -eta Azpeitiko mutilei. Partidua nahiko lasai hasi zuten bi taldeek, eta lehen laurdena amaitzerakoan markagailua 14-18koa zen, baina bigarren laurdenean Natrakoak gogorrago kantxaratu ziren eta partiduak bizitasun handia irabazi zuen. Korrika egiteko auke-

ra izan zuten eta lau minutuan 13-0eko partziala egin ondoren partidua bideratzea lortu zuten. Gauzak horrela, atsedenaldira 16 puntuko aldearekin joan ziren (43-27). Bigarren zatian, Blancok normalean minutu gutxien jokatzen duten jokalariei kantxaratzeko aukera eman zien. Hasieran ohitura falta sumatu zitzaion bostekoari, baina minutu batzuk pasatu ondoren, lan polita egitea lortu zuten. Azpeitiarren artean, Zubizarreta gaztearen lana azpimarratzekoa izan zen.

**Martxa hartzeko partidua**

Eneko Blancok esan zuen bezala, partidu ofizialak heldu aurretik berriz ere martxa hartzeko erabili zuten zapatukoa, sistemak gogoratzeko eta gutxien jokatzen dutenek kantxan euren balioa erakusteko. Gainera baja garrantzitsuak zituzten Oñatikoek: alde batetik, Josean Cavada, gaixorik; eta bestetik, Xabier Osa, orkatilan arazoak zirela medio atsedean hartzea erabaki zuena. Horrez gain, partiduan bertan De la Iglesia orkatilan min hartu zuen eta aste bete beharko du berriz ere jokatzen hasteko.

**Bi partidu Zubikoan**

Datorren asteburuan ekingo diote berriz ere txapelketa ofizialari, eta orain arteko bolada onari jarraipena ematea da helburua. Urtarrilean bukatuko da lehenengo itzulua eta hurrengo bi partiduak etxean jokatuko dituzte. Enekoren esanetan, Zubikoak orain arte bezalako gotorlekua izaten jarraitzea da helburua eta, etxeko bi partiduak irabaziz gero, bigarren itzulira balantze ezin hobearekin heldu eta konfiantza irabaziko lukete. Urtarrilaren 12 Iruñeako Ardoiren aurka jokatuko dute, eta urtarrilaren 19an UPV Alava taldearen aurka izango da norgehiagoka.



Gamarra aurkariz inguratuta. | IMANOL SORIANO



Ainhoa Lazkanoren gurasoak lore sortarekin. | J.D.

## Ainhoa Lazkanoren memoriala egin zuten zapatuan

Aurten ere Ainhoa Lazkano memoriala egin zuten Oñatiko saskibaloizaleek. Zapatukoa 15. edizioa izan zen eta, Natra eta Iraurgi taldeen arteko partiduaren atsedenaldira, Oñatiko saskibaloitaldeko kideek lore sorta polita eskaini zieten Lazkanoren gurasoei. Ekitaldi azkarra eta xumea izan zen, baina oraindik ere Lazkano gogoan dutela erakutsi zuen Natra Oñati taldeak.

Omenaldia lagunarteko partidua izan arren, Eneko Blancok argi utzi zien jokalariei Lazkanoren omenez partidu serio eta duina jokatu behar zutela, zapatukoa ez zela beste lagunarteko partidu bat. Eta jokalariek ondoan egiten dakitenarekin erantzun zuten; hala, Zubikoan elkartu ziren ikusleek gozatzeko aukera polita izan zuten zapatu arratsaldean.





Aitor Perez, Asier Odriozola eta Mikel Bargiela Arrasate Rugby Taldeko jokalaria dira. | ISEI BARBERO

## ERRUGBIA

# "Errugbiaren errespetu giroak erakarri ninduen"

- ▶ Jokatu gura duen jendea pozik hartuko du Arrasate Rugby Taldeak
- ▶ Debagoieneko herri gehienetako jokalaria batzen dira talde horretan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gutxi batzuek kirola da errugbia Debagoienean eta inguruetan, baina gero eta zabalagoa da "gutxieneko" hori. Zabalkunde horrek asko zor dio Arrasate Rugby Talde osatzen duten guztie. Horregatik, debagoiendarrak animatu gura dituzte kirol horretara gerturatzen, bai ikusle eta bai kirolari gisa ere.

Taldea Arrasatekoa izan arren, Aretxabaleta, Oñati, Bergara, Antzuola... leku askotako jokalaria dabilta. Andoni Azpiazu oñatiarra iaz hasi zen. "Hasieran,

nahiko basatia iruditu zitzaidan, baina ez da hainbesteko. Oso gustura nabil. Taldeko denok bat

gara eta oso giro ona dago", esaten digu. Euren jarraitzaileak dituztela dio: "Badago zaletasuna,

bai. Ikusten da ezohiko kirola dela".

Jakin-mina duten guztiak Mojategira joatera deitzen ditu: "Zapatu eguerdian jokatzeko dugu normalean, nahiz eta hurrengo domekan, 13an izan. Etor daitezela, han izango gaituzte beso zabalik", dio Azpiazuk.

Erik Cuevas osintxuarrak bi urte daroa taldean. Hasi aurretik, errugbiaz "ezertxo ere ez" zekielan onartzen digu, baina zerbaitek erakarri egin zuen: "Fisikoki kirol exigentea iruditu zitzaidan, eta ondo etorriko zitzaidala pen-

tsatu nuen. Eta gero, errespetuak erakarri ninduen: errespetua aurkariarekin eta epailearekin ere, gaur egun kirol gehienetan ikusten ez dena".

**Errugbi Eskola, zabalik**

Cuevasek gogorarazten duenez, 8 urterekin has daitezke taldeko errugbi eskolan, eta hor "bada biltza gazteagoak".

Errugbi Eskolaren atea "pare pare zabalik" daudela diote klub zuri-moreko arduradunek. Entrenamenduak martitzen eta eguenean dira, 17:30ean, eta domeketan, 10:30ean.

## Partidu nahasia, baina poltsikorako

Bilbotik garaipena besapean itzuli ziren Arrasatekoak, Uni Bilbo B taldearen kontrako partidua irabazita. Arrasatearren aldetik "nahiko partidua txarra" izan zela onartzen duten arren, zortea aldeko izan zuten. Hasiara ona izan zuten, 0-10, irabazten. Gero partidua zertxobait nahastu zen. "Partidu trabatua izan zen", esan zigun Andoni Azpiazu jokalaria. Edozein modutan, azkenean 10-31 emaitzarekin eta sailkapenean goian bueltatu ziren.

## MENDIA

## Dena gertu dago Antzuolako 8 Miliak lasterketaren lehen ediziorako

L.K. | ANTZUOLA

Hilaren 17an, eguena, hasiko da A8M, I. Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketa izena emateko epea. Lasterketa horren lehenengo edizioa otsailaren 17an jokatu da, Antxintxika taldeak antolatuta. Otsailaren 14ra arte izango da zabalik izenemate epea, eta 8 euro kostatuko da; aldiz, izena egunean bertan ematen bada, 18 euro kobratuko dute. 200 parte-hartzaile hartuko dituzte gehienez.

Internet bidez eman daitezke izena, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean.

Lasterketa otsailaren 17an izango da. Zailtasun maila ertain

na du ibilbideak; 1.346 metro ditu, eta honakoa da: Antzuolako plazatik irtengo dira lasterkariak, Antigua auzora joko dute eta mendi aldera egingo dute handik. Irimo tontorra (876 metro) izango da lekuri altuena. Handik behera etorriko dira gero korrikalariak, eta berriz Antzuolako plazara hartu beharko dute segidan; hantxe izango da helmuga.

Puntu kilometrikoak adierazita izango dira, eta jan-edanak hartzeko bi gune antolatuko dituzte. Guztiz debekatuta egongo da ibilgailuekin (bizikletekin ere) edozelako laguntza jasotzea.

**Sari asko daude**

Hainbat sari emango dituzte, gizonezkoen eta emakumezkoen lasterketetan: senior kategoriako 1. 2. eta 3. sailkatuei; 1. beternoari (40 urtetik gorakoak); Antzuolako lehenengo sailkatuari; eta proba egiten duen beterno edo zaharrenarendako sari berezia iragarri dute.

**Molto mini-motorrak**

18 urte edo gehiago izan beharko dute parte-hartzaileek. 16 eta 17 urtekoek gurasoen baimen-dokumentua aurkeztu beharko dute parte hartu nahi badute.

Umeek ere izango dute euren tokia: lasterketak irauten duen bitartean, 11:00etan, Molto mini-motorren lasterketa hasiko da. 3 urtera artekoak ere ibili ahal izango dira, betiere gurasoek baimen-dokumentua beteta.

## ZIKLO-KROSA

## Debagoiendarrak Espainiako txapelketan izango dira asteburuan

L.K. | OÑATI

Debagoieneko kirolariak ere izango dira zapatuan eta domekan, hilak 12 eta 13, jokatu diren Ziklo-kroseko Espainiako Txapelketan. Navian, Asturiasen izango da hitzordua, eta parte hartuko du Arrikruz-Aloña Mendi taldeak. Han izango da ere, Deba-barrena taldearekin, Jon Rivero bergarar gaztea, 23 urte azpikoetan Gipuzkoako txapelketa joan den abendu hasiera ezkerer.

**2.800 metro**

Naviako txirrindularien lagunartean eta La Nueva España egunkariak antolatu dute txapelketa hori. Vega de Arenas zirkuituan jokatu da txapelketa. Asfaltuzko, hareazko, belardizko eta lurrezko tramuek osatzen dute. Denetara, 2.800 metroko zirkuitua da, Asturiasen ingurune paregabean. Putzuan egiten ziren tramuek txikiagoak dira, marearengatik zirkuitua aldatzeko beharrik egon ez dadin.

Zapatuan, Master 50, Master 60, Master 40 eta Master 30 txapelketak, emakumezkoen kategorian guztietakoak eta 23 urte azpikoak jokatu dira; eta domekan, 10:30ean, kadeteen txapelketa; 11:45ean, juniorrena; eta 13:30ean, elitekoa.

## ESANAK

**"Lehenengo inpresioan, kirol basatia iruditu zitzaidan; orain, oso pozik nabil"**

ANDONI AZPIAZU | JOKALARIA

**"Badago zaletasuna, bai; ikusten da ezohiko kirola dela"**

ANDONI AZPIAZU | JOKALARIA

**"Orain bi urte hasi nintzen; ordura arte, ezer ez nekien errugbiarekin"**

ERIK CUEVAS | JOKALARIA

**"8 urterekin has daitezke Arrasateko Errugbi Eskolan"**

ERIK CUEVAS | JOKALARIA

# Gabonetako izerdiak

Kirol hitzorduz beteta izan ditugu Gabonak; hemen errepasoa

**XABIER URTZELAI** | DEBAGOIENA  
Gabonetan geldialdia izaten da bizitzako arlo askotan, atsedean hartzeko egunak dira. Baina, kirolean ez da halakorik, gurean ez behintzat. Erretratuetan azaltzen direnek ez dute deskantsurik izan, izerdia botatzeko aitzakia ederrak izan dituztelako. Urtetik urtera geroago eta kirol hitzordu gehiago antolatzen dituzte gureko klu-

bek, kirol modalitate erabat ezberdinetan, gainera. Santamas jaiak pasa eta ondorengo egunetatik hasitako kirol errepasoa duzue hau, Errege bezperara arte. Tartean egon dira omenaldiak –Beñat Rezusta pilotariari, edo dagoeneko gure artean ez dauden *Txelis*-i, Jose Felix de Benitori, edota Manuel Muñoz, besteak beste. Torneo askotan kanpotik puntako

taldeak etorri dira, Ointxe!-ren saskibaloitza torneoan, edota Arizmendiren futbolekoan, esaterako. Baina, azpimarragarriena da ibarreko gaztetxoek kirolean jarduteko gura beste aukera izan dituztela; ez daitezela geldi egon.



## 100 GAZTETXO BAINO GEHIAGO, HOCKEY-AN

Bergarako Hanka Labanka patinaje elkartearen eskutik hockey-a izan da protagonista aste barruan Labegaraitan. Eguaztenean gaztetxoak ibili ziren, eta eguenean nagusiak.



## OINTXE!-REN GABONETAKO TORNEOAN, EASO ONENA

Donostiako eta Errioxako taldeek jokaturako finalean Easoko mutilak ondo gailendu ziren; txapelketa arrakastatsuan, nobedade nagusia izan da eskola kirolekoen parte-hartzea.



## ANTXINTXIKAKOEN LAN ONARI SARIA

Gabonetan banatu ditu federazioak urteko sariak, eta Antxintxikako atletak hainbat sari jaso dituzte. Hala, Ander Agirre eta Lurdes Oiartzabal izan dira atleta onenak.



## JOSEBA GARATE KLUBEN ARTEKO TXAPELDUN

Arrasateko pilotariak Zestoan jantzi zuen Gipuzkoako txapela, Aurrera-Saiaz taldeko Urdanpilletari 18-14 irabazi ostean.



## MONDRAREN TORNEOAN, 420 GAZTETXO MOJATEGIN

Jose Luis Ibaruren *Txelis*-en omenez egindako torneoan infantil txikiko 24 taldek hartu zuten esku. Barakaldok oso talde txukuna ekarri zuen, eta Santutxuri irabazi zioten finalean.



## ARETXABALETA ETA ALOÑA IBARRAN ONENAK

Eguaztenean jokatu zituzten Bixente Etxeandiaren omenezko partiduak. 2004 eta 2002an jaiotakoan artean Aretxabaleta nagusitu zen. Eta 2003koan artean Aloña Mendi.



## BERGARAKO PILOTA TXAPELKETAN, OMENALDIA

Gabonetako Pilota Txapelketa jokatu zuten Bergaran -12 guztira- Abel Barriola izan zen sariak banatzen. Eta, Beñat Rezustak merezitako omenaldia jaso zuen.

**BEÑAT ARNAIZ ESKORIATZAN AZKARRENA**

Eskoriatzarrek korrika eginez esan zioten agur 2012ari, erritmo lasaian korrika eginez; Manuel Muñoz milian, berriz, aretxabaletar bat izan zen azkarrena, Beñat Arnaiz.

**URTEA AMAITZEKO, SAN SILBESTRE**

Arratsaldeko lehenengo orduan gaztetxoek lasterketak korritu ostean hasi zuten nagusien San Silbestre lasterketa Oñatin. Erretratatuak

erakusten duen moduan, herri mailako lasterkariak izan ziren protagonista, nahiz eta korrikalari azkarrenek hegana egin zuten. Yera Varela izan zen azkarrena.

**HIRUNAKO SASKIBALOI ARRAKASTATSUA**

Begarako pilotalekua saskibaloia bilakatu zuten Gabonetako hirunako txapelketa jokatzeko. Guztira 140 gaztetxo ibili ziren saskibaloian.

**ELGETAKO TXAPELKETAK BADITU IRABAZLEAK**

17 bikote aritu dira aurtan, eta 31n jokatu zituzten finaletan Zenitagoia-Elortza eta Elkoro-Irazabal izan ziren txapela jantzi zutenak.

**BOLINAGA ETA REZUSTA, ARRASATEN**

Santamas txapelketa aitzakia izan zen amateur mailan lan oso ona egiten dabiltzan ibarreko bi pilotari horiek elkarren kontra ikusteko.

**EIBAR ONENA, ETA DE BENITORI OMENALDIA**

Begarako Gabonetako gazte mailako torneoan Eibar izan zen onena, Realari penaltietan irabazi ostean. Finalerdietan Bergarak Jose Felix de Benito zena omendu zuen.

**INFANTIL MAILAKO BOLINTXO SARIAN 12 TALDE**

Labegarietan egin zuten infantil mailako II. Bolintxo Saria saskibaloia txapelketa. Nesketan Zarauzkoak, eta gizonezkoetan Iraurgiok izan ziren onenak.

**FISIKOKI ONDOEN ZEGOENAK IRABAZI ZUEN**

Abenduaren 30ean jokatu zuten Realak eta Debagoieneko selekzioak Arizmendiren Gabonetako torneo partdua, eta bigarren zatian gailendu ziren txuri-urdinak (4-0).



Irakasle bat gelan irakurketa lantzen | OLD SHOE WOMAN

## Irakurle konpetenteak eta irakurketa ulerkorra helburu

Edozein arlo ikasteko irakurri beharra dugu; irakasleek formazioa behar dute

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Irakurmena da ongi ikasteko oinarritzko gaitasuna. Baina, nola dabilta ikasleak gaitasun horretan? *Argia*-k artikulu interesgarria egin du, eta *Guraso.com* atarira ekarri dugu.

EHUko Magisteritzako irakasle Gema Lasarteren esanetan ikasleei "eskatzen diegun hori ez diegu irakasten". Lasartek uste du Magisteritzan ikasgai bat izan beharko lukeela. "Eskoletan ira-

kurmena ia hizkuntza eta literatura klaseetan bakarrik lantzen da", adierazi du. Lasarteko Berritzeguneko Josune Erkiziaren esanetan, berriz, irakasleak formazio prozesu sakon batean murgilduta daude.

**Irakurmena lantzeko sekretua** Berritzegunean hiru urte darabate gaia lantzen, eta oinarria Salamancako unibertsitatean Emilio Sanchezen taldeak siste-

matizatutako formakuntza da. Lau pauso nagusi nabarmentzen dira: irakurgai motibagarri egiteko ikasleei ongi aurkeztea, irakurketa hasi aurretik ikasleei helburua zein den azaltzea, ebaluatzeko orduan nola galdetu ondo aztertzea, eta amaieran irakurritakoaren laburpentxoak egitea. Ikasleak ezagutza iturriaz jabetu behar dira, eta jakin behar da irakaslea dela irakurmena lantzeko klabea.

## Urte berrirako erronkak teknologia berriei dagokienez

L.Z. | ARRASATE

Adicciones Digitales elkarteak teknologia berrien erabileraren inguruko kontzientziazio kanpaina berria abiarazi du Euskal Autonomia Erkidegoan. Gazteei teknologia berrien zentzuzko erabilera egiteko eskaera egiten die, guraso eta irakasleei erreminta teknologikoen inguruan hobeto formatzeko, eta eskolako arduradunei gazteen artean ematen ari den joera orokor horren jabe egiteko.

Adicciones Digitales elkarte bozeramaile Juanma Romeroren esanetan EAEn 10-15 urte bitarteko 104 mila neska-mutiko daude, eta %80,5 telefono mugikor baten erabiltzaile da. "Askok ohera eramaten dute gailu hori, eta ez dute behar den moduan atsedean hartzen. Gero, bestelako arriskuak dau-

de, esaterako, anorexia edo bulimia bultzatzen dituzten blogak". Teknologia, berez, ez dela kaltegarria dio Romerok, baina zentzuzko erabilera egin behar dela azpimarratzen du.

Guraso eta irakasleei teknologia berrietara hurbiltzeko eskaera egiten die, eta sare sozialen errealitateaz jabetzeko. Irakasleei beste eskaera ere egiten die: "Ikasleak eskoletara nekatuta badoaz eskola errendimendua jaitsi egiten da, eta gurasoek jakitun izan behar dira; ezin gara besoak gurutzatuta gelditu".

Gurasoei, gainera, lan denbora eta familiari eskaintakoa desberdintzeko eskatzen die. "Ezin da lanetik irten eta etxean berriz ordenagailu aurrean eseri. Denbora eskaini behar zaio familiari".



Gazteak mugikorrekin. | LEONARD JOHN MATTHEWS

## 12-18 urte bitarteko ume eta gaztetxoek jarrera antisozialek nabarmen egin dute gora

L.Z. | ARRASATE

Euskal Herriko Unibertsitateko Maite Garaigordobilek, Jone Alirik eta Vanesa Martínez-Valderrreyk gazteen jarrera antisozialei buruzko azterlana egin dute, eta ikerketak Nicolás Seisdedos Saria eskuratu du.

Ikerketan parte hartu duten gazteen %16-k jarrera antisozialen maila altua du; %10 arrisku altuko profilarren barruan dago, eta %6 profil antisozialean. Adinari dagokionez ikerketak azaleratu du 12 eta 18 urte artekoen jarrera antisozialek nabarmen egin dutela gora.

Horrez gain, argi geratu da jarrera antisozialetan emakumeen eta gizonen arteko aldeak oso txikiak direla; hala ere, generoen desberdintasunak areagotu egiten dira adinarekin batera, eta 16 eta

18 urte arteko segmentuan gizonen kasuan igoera nabarmenagoa da.

### Gurasoen eragina

Azterlanean antzeman denez, ez dirudi gurasoen hezkuntza maila eta maila ekonomiko eta kulturala aldagai erabakigarria denik seme-alaben jarrera antisoziala azaltzeko. Hala ere, gurasoek neurri handian seme-alabak onartzeak eta haien hezkuntzan inplikatzeko eragin positiboa du; horren haritik, guraso autoritarioek eta arduragabeek bultzatzen dute gehien haien seme-alaben jarrera antisoziala. Beste datu bat: jarrera antisozialak prebentitu eta horien esku hartze programak haurtzaroan, gaztaroan eta nerabezaroan ezartzeak eragina du.

## Gazteak erabakiak hartzeko atakan ipintzea komeni

L.Z. | ARRASATE

Gaur egungo familiek errespetuzko estrategiak eta erremintak behar dituztela uste du Antonio Ortuño haur psikologoak. "Familiaren funtzioa, nagusiki, seme-alabei segurtasuna eskaintzea da", dio. Ortuñoren esanetan segurtasuna duen adin txikiko batek hazi egin nahi du, ardurak hartu, bere istoriaren protagonista izan... Eta ikasten du mugak ezagutzen zein errespetatzen, eta erabakiak hartzen.

Segurtasun hori ziurtatzeko familiek bi zutabe nagusi zaindu behar dituzte. Bata, maitasuna, babesa, zaintza eta denbora eskaintza. Bestea, elkarbizitazarako arauak, eta ardura banaketa. Arazoa, gaur egungo, bigarren zutabearen ematen da. "Haurrak maitatzeak desadostasunak kudeatzeak baino zalan-

tza gutxiago sortzen du gurasoen artean. Kreditibilitate eta koherentzia arazoak ditugu, gehienbat", dio Ortuñok.

### Semaforoaren teknika

Beste arazo bat, Ortuñoren iritziz, ardurak delegatzeko gurasoek dituzten zailtasunean datza. Semaforoaren teknika proposatzen du. "Gurasoek hiru egoera desberdinu behar dituzte", dio Ortuñok. Dionez egoera batzuk semaforoa gorriarekin irudika daitezke egoera arriskutsua delako edo haurra oso txikia delako. Kasu horietan helduak hartzen du erabakia, eta erabaki hori ez da inolaz ere negoziatzen. Autoritate onpatikoan oinarritu behar da erabaki hori; ezezko erantzuna da, baina errespetuan oinarritutako ezetza behar du izan.

Semaforo laranja erabakiak negoziatzeko aukera dagoenean irudikatu behar dugu. Haurrak edo nerabeak badu zer esan. Guraso askori kostatzen zaie hori onartzea, baina funtsezkoa da seme-alabaren heziketa osasuntsurako. Negoziazioaren bidez alde biak akordio batera iritsi behar dira. Adin batetik aurrera beharrezkoa da zenbait erabaki haurraren esku uztea.

Semaforo berdeak irudikatzen du erabakia semearen edo alabaren erantzukizuna denean ematen den egoera. Bere bizi-proiektuaren inguruko erabakia da, ez gurasoen bizi-proiektuaren ingurukoa. Gurasoek, egoera honetan, laguntzeko eta aholkatzeko daude. Erabakia hartzeko eskubidea eta ardura gaztearena da, erabaki hori gurasoei gustatu ala ez.



# KULTURA



Gose hirukotearen ikusentzuzko show-a. | IMANOL SORIANO

## Menu borobila egubakoitz gauean Gose eta Anger taldeen eskutik

- ▶ Kaleratu berri dituzten diskoak aurkeztu zituzten bi taldeek Arrasateko gaztetxean
- ▶ Ikuskizun indartsua eskaini zuten biek ikusleen bista eta entzumenarekin jolastuz

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

*Hirugarren azala* eta *disko laranja* edo *IIIII*. diskoak aurkeztu zituzten egubakoitzean Anger eta Gose taldeek jendez beteta zegoen Arrasateko gaztetxean.

300 pertsonatik gora bildu ziren gogotsu gaztetxean egubakoitz gauean, eta taldeek ez zuten hutsik egin. Soinu mota ezberdinak eskaini zituzten, baina biek ala biek jarreraz betetako ikus-

kizunak oholtzaratu zituzten, eta ikusleak festaren parte bihurtu zituzten, horiek dantzan eta abesten jarritz.

### 'Hirugarren azala' plazara

Eszenatokia zapaltzen lehenak Anger taldeko kideak izan ziren. Disko berria ondo baino hobeto defendatu zuten oholtza gainean. Base trinko baten gainean, Beñatok gitarrari su atera zion, Arkai-

tzen ahotik hitz zorrotzak irteten ziren bitartean. Kantak bata bestearen atzetik jo zituzten, ikusleei atsedetik eman gabe, eta aspaldian gaztetxean jo barik egon den taldeak berriz ere etxera buelta egin zuen egubakoitzean.

### Ikusi, entzun, dastatu

Gose hirukotearen txanda heldu orduko, ikusleak gogotsu zeuden, eta errezelo puntu bat zegoen

giroan, eszenatokiak bere ohiko tankera galdu zuelako. Bertan hiru pantaila erraldoi zeuden eta hauekin kontzertuari plus bat ematea lortu zuen Gosek. Ikusentzuzko show borobila izan zen Gose taldearen kontzertua.

Disko berriko kanta gehienak aurkeztu zituzten; hala ere, aurreko diskoetako kantak ere jo zituzten, eta hiru pertsonarekin eszenatoki bat betetzea posible dela

argi utzi zuten. Inakik beste garai batetik datorren instrumentu futurista gogotsu astindu bitartean, Osoronek base trinkoa osotzen zuen eta Inesek trikiarekin eta ahotsarekin ikusleak sorgindu zituen. Aipatzekoa *Kamarada* eta *Monleon* kantuetan Osoronen telecaster gitarrak sortzen zuen giro polita. Laburbilduz, menu dibertigarri eta elikagarria izan zen gaztetxean eskainitakoa.



Iñaki eta Ines publikoa irabazten. | IMANOL SORIANO



Osoron borrokarako prest. | IMANOL SORIANO



Toberako protagonistak epaiketa amaitu ondoren. | IMANOL SORIANO

# Oñatik buru makur amaitu zuen epaiketa

"Nortasuna muturreraino eramatea ez delako zilegi, Oñati errudun": horixe izan zen epailearen ebazpena

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

"Inkomunikazio interesatua" leporatu zioten hasiera hasieratik ibarreko herri guztiek Oñatiri, eta Piper Hautsa epailearen ebazpena argia izan zen, Oñati errudun. Abenduaren 28an, inuzente egunean, Oñatiko Zubikoa kiroldegian, Debagoieneko Tobera egin zuten. Debagoien osotik jende asko gerturatu zen epaileak Oñati errudun joko zuen zain. Jendeak gustura asko entzun zituen akusazioak eta defentsak erakutsitako argumentuak, eta bi ordu horietan ikusleak ez ziren eserlekutik mugitu ere egin.

## Fiskala pozik egindakoarekin

Epaiketa irabazi behar zuela oso argi zuen fiskalak Oñatira heldu aurretik, bere esanetan, "argu-

mentu oso argiak eraman ditugulako". Besteak beste, Oñatiri, Arantzazuko Ama Birjina esplotatu izana; lurraldetasun kontzeptu expansionista izatea; Corpus dantza inori ez erakustea edota gauza "erdi normalak ere egiten ez jakitea" leporatu zituzkien Debagoieneko beste herriek. Hala ere, argumentu hauekin guztiaren ez zen batere ados agertu Oñatiko Egoitz Pikategi abokatua. Honen ustetan, pisuzko defentsa eraman zuen inuzente eguneko Toberara, baina epaileak ez zuen hau behar bezala baloratu. Pikategik, adibidez, Lope de Agirre, Juana Arriaran edota txantxiku bat eraman zituen Oñati defendatzeko. Eta horren guztiaren ondoren, porrota zela eta, ikusitakoa "sasi-epaiketa"

izan zela leporatu zion Pikategik Piper Hautsa epaileari.

## Lan bikaina plazaratu zuten

Ohitura hartu beharra dagoela zioten protagonista eta ikusle guztiak Tobera amaitu bezain pronto. Lan oso polita ikusteko aukera egon zen Zubikoan eta ikusleak irribartsu joan ziren datorren Toberaren zain. Gainera, Oñatikoek errebantxa egarria erakutsi zuten, ezetz esan arren porrot mingarria izan zelako etxean jaso zutena.

Kontuak kontu, Oñatik galdu egin zuen epaiketa eta Piper Hauts epaileak jarritako zigorra bete beharko dute orain, hau da, Oñatiko plazan, Oñati ere Debagoiena dela dion plaka bat jarri beharko dute datozen egunotan.



Lope de Agirre Oñatiren defentsan. | I.S.



Ikusleek ondo baino hobeto pasatu zuten. | I.S.



Debagoieneko akusazioak irabazi zuen Tobera. | I.S.

**INO GALPARSORO**  
ARRASATE



"Oso gustura egon naiz. Egunerokotasunean konturatzen ez garen detaile batzuen isla ikusi dut, eta egia esan oso dibertigarria izan da".

**PELLO ZABALA**  
OÑATI



"Partzial samarra iruditu zait epaiketa. Batzuk erabili dituzten argumentuak alderantziz ere erabili zitezkeen. Gure ezaugarriak mantentzea garrantzitsua da".

**JUAN MARTIN ELEXPURU**  
BERGARA



"Bi ordu dibertigarri izan dira, erritmo bizia izan du antzerkiak eta egoera ezberdin asko tartekatatu dituzte. Iaztik hona salto handia egin dute".

# Peter Pan euskarazko musikala herrian, arrakastaz estreinatuta

- ▶ Bergarako Musika Eskolako 200 lagunek hiru emanaldi egin zituzten herrian abenduan
- ▶ Herrian 2.000 lagunek ikusi ondoren, kanpora eramateko ahaleginetan ari dira orain

A. A. / E. A. | BERGARA

*Peter Pan* musikalaren euskarazko moldaketaren estreinaldi paregabea egin zuen Bergarako Musika Eskolako urtea amaitzeko. Bi egunetan egindako hiru emanalditan, 2.000 lagunetik gora batu ziren Sekula Betiko Lurraldean bilakatu zuten herriko Udal pilotalekuan.

Peter Panek (Aitor Garitanok) kantatu zuen *Sinistu behar da* abestiak zioen moduan, ahalegindu eta ekinez gero, amesten dugun hori lor dezakegula erakutsi zuten berriz ere bergararrek. Hilabete luzeetako lan gogorraren ostean, merezitako saria jaso zuten herritarren partetik. Elgetan izango dira otsailaren 2an; Pikupe Produzioa, baina, ahaleginetan dabil musika-hara eta hona mugitzeko.

## 200 lagun inguruko lan-taldea

Lan korala da *Peter Pan* eta oraingoan umeak dira protagonista nagusiak; nabarmentzekoen artean: Aitor Garitano (Peter Pan); Miren Gutierrez (Wendy); Darling familiako txikien paperean, Mikel Moñux eta Jon Etxaniz... Ezin aipatu gabe utzi, era berean, abestu, dantzatu edo antzezpenetan jardun duten gainontzekoak. Guztira, 60 bat neska-mutiko, horiek guztiak, Marije Ugalde eta Nagore Sanz abesbatzetako arduradunen esanetara.

Helduen artean ere, hainbat izen propio, taularen gainean batzuk, atzean beste batzuk (dekoratu-egileak; tramoi lanetakoak; eszenografiarenak, erregidoreak, euskara zuzentzaileak... eta alde bietan, beste hainbat, besteak beste: Valen Moñux, musikalaren zuzendaria eta Kako Oker pertsonaia; Karlos Etxaniz Darling familiako aita eta musikalaren banaketa lanetako arduradunetako bat...

Zorionak Bergarako Musika Eskolari egindako lanagatik, eta baita musikarekin ametsen munduraino gerturatzegatik ere!



Estreinaldiaren amaieran protagonista guztiak taularen gainean ikusleak agurtzen. | IMANOL SORIANO



Peter Pan eta Kako Oker kapitaina burrukan. | I.S.



Peter Pan (Aitor Garitano) eta Wendy (Miren Gutierrez). | I.S.

### IKUSLEA BERGARA



"Oso ederra! Peter Panen segurtasunak txunditu egin nau. Pena da horrelako lana eginda, hiru emanaldi bakarrik egitea".

### IKUSLEA ELGOIBAR



"Musika da gehien gustatu zaidana, zein ondo abesten zuten! Iaz *Olentzero & Co* ikusi nuen, hura ere oso polita".

### NAGORE SANZ IRAKASLEA




"Bildurra neukan arren, espero moduan joan da. Gustura nago taularen gaineko lanaz eta baita ikuslearen erantzunaz ere".

### VALEN MOÑUX ZUZENDARIA



"Bi apustu garbi zeuden: protagonisten adina jaitea eta eszenografikoa, bestea. Ezin da sinistu zelako lana egin duten!"

### KARLOS ETXANIZ PIKUPE PRODUKZIOAK



"Gauzak ondo egiten saiatzen gara eta lortu dugulakoan nago. Ahalik eta emanaldi gehien lotzen saiatuko gara orain".

# Euskaldunok ere gospela egiten badakigula ikusi zen Aretxabaletan

Donostiako The Lord musika bikoteak bere egin zituen afroamerikarren gospel doinuak

**LEIRE KORTABARRIA** | ARETXABALETA  
Gospela AEBekin lotzen dugun arren, estilo unibertsala da, eta Euskal Herrian ere seriotasunez eta sentimenduaz lantzeko gai dira bertako musikariak. Horren adibidea izan genuen domeka iluntzean Aretxabaletako Arkupe

kultur etxean, Donostiako Iñaki Miguel eta Ainhoa Eigurenek egin zuten kontzertuan. Gospeleko abesti klasikoak izaera bereziaz jantzi zituzten. Eigurenen ahots indartsuak eta Miguelen piano trebeak giro goxo eta ederra sortu zuten Arkupe.



Ainhoa Eiguren, atzo Arkupe. | JOSETXO ARANTZABAL

**IÑAKI MIGUEL ETA AINHOA EGIGUREN** | THE LORD TALDEA

"Gospelak publiko handia du Euskal Herrian; jendeak txaloak jo eta dantzan egiten du"

Gazteak dira –1982an eta 1983an jaioak– baina formazio mardula dute honezkerok Iñaki Miguel eta Ainhoa Eiguren donostiarrek. Old Charm Blues taldean oldies-ak jotzen dituzte batera, eta The Lord izenarekin gospel musika zabaltzen dute. Iñaki Miguelek Gospel Zikloa antolatzen du, eta Euskal Herrian Gabonetako klasiko bihurtu da dagoeneko. Ainhoa Eiguren Donostiako Orfeoi Txikian hasi zen abesten, eta, gaur egun, Les Fous ahots-taldean ere badabil.

**Gospel kontzertuak urte osoan ematen dituzue ala bakarrik Gabonetan?**

Gospela bakarrik "espiritualak" diren garrietan egiten dugu: Gabonetan eta Aste Santuan. Garai horiek dira hemen gospela egiteko aproposenak. Jendeak Gabonetan kokatzen du gospela.

**Zein da zuen erreper-  
torioa?**



THE LORD

Gospel musikako emakumezkoen abestietan oinarritzen da gure erreper-  
torioa: Mahalia Jackson, Clara Ward edo Marion Williams-en abestietan, besteak beste.

**Gospela ez da hain ohikoa Euskal Herriko musikarientzako ere. Zergatik gospela?**

Iñaki Miguel: Bizitza osoa daroat gospela entzuten. Izugarri gustatzen zait. Pia-

noa jotzeko, ezagutzen dudana estilorik aberatsena da gospela. Gospela jotzen dudanean, bluesa, soula, country... jotzen nabil, eta, aldi berean, dena bateratzen dut.

Ainhoa Eiguren: Aitak erakutsi zidan, txikia nintzean. Bizi osoan abestu izan dut gospela. Niretako amets bat da lanbidez hura abesten ibiltzea.

**Ameriketako Estatu Batuetan izan zarete, edo hango taldeekin? Eta, hala bada, ze ikasi duzue euren-gandik?**

I.M.: AEBak bisitatu nituen orain dela 12 urte. Bluesaren hirian, Memphisen; countryarenean, Nashville-n; eta jazzarenean, New Orleansen izan nintzen. New York falta zait bisitatzeko, gospel mezaren batera joan ahal izateko. Hiri horietan egoteak eten barik musika esentzialaz blai egotea dakar.

**Nola definituko zenukete zuen estiloa?**

Gure estiloa gospel purua da.

**Eta nola erreazionatzen du jendeak zuen kontzertuetan?**

Jendeari asko gustatzen zaio. Txaloak ematen dituzte abestietan zehar, eta batzuk altxatu eta dantzan hasten dira.

**Ameriketako Estatu Batuetan bai; baina gospelak ba du publiko nahikorik hemen?**

Publiko handia du. Elizak, kultur etxeak eta auditoriumak betetzen ditugu.



IMANOL SORIANO

## Mor More taldea Antixenan

Gogotsu ekin diote urteari Antixenako gaztetxean, askotariko ekitaldiak bildu dituzte-eta urtarrilerako hitzorduetan. Egubakoitzean egin zuten lehenengoa: afaria eta kontzertu bikoitza gero, Mor More eta Arrutiko Intxaurrak taldeen eskutik. Datozen asteerako, berriz, besteak beste, honakoak: Irrien lagunen emanaldia; Kubako punk mugimenduaren argazkia lehiaketa eta *Sua* filmaren erakustaldia.

## Askotariko doinuak Errege eguneko emanaldian

Udal Musika Bandak urteko lehenengo emanaldia egin zuen atzo, betetako Santa Ana antzokian

**A. ARANBURUZABALA** | OÑATI

Santa Ana antzokia lepo bete zen atzo, eguerdian, Oñatiko Musika Bandaren Errege eguneko kontzertuaz gozatzeko. Urteko kontzerturik jendetsuena izaten da; herritarrendako eta musikarientzako, berezietakoa.

**Erreper-  
torioa zabala**

Inaxio Ibarrondok zuzendutako 60 laguneko osatutako taldearen 50 minutuko emanaldian, askotariko piezak jo zituzten: Gabon kantuak; *La niña mimada* operetaren aukeraketa bat eta *La Mision* filmaren soinu banda, esateko.

Mokoroa eta Beobideren *Olenzaro* Eguberriko zortzikoaz hasi zuten emanaldia; horrez gainera, Gabon ukituko M.G. Bastidaren *Navidades Blancas* eta *Arre Borriquito* kantuak ere jo zituzten.

Izan zen, baina, oraingoan ere, Ennio Morriconerentzako lekua eta baita J. Texidorren *Moriles Carbonell* pasodoblearentzako ere. Emanaldia borobiltzeko ezin falta Vienan urtarilaren

lean egiten duten kontzertuko ikurretako bat den Straussen *Radetzky martxa*; oñatiarrek ere aspaldiko ohitura dute entzuleak txaloka jartzen dituen pieza horrekin borobiltzeko urteko lehenengo kontzertua.

**Hurrengoa, Otsailaren 10ean**

Atzoko emanaldiarekin zabaldu zuen herriko bandak Santa Anan egiten duen hileroko kontzertuen agenda. Hurrengoa Inauteri domekan izango da, otsailaren 10ean, hain justu.



Oñatiko Udal Musika Banda, Errege eguneko kontzertuan, | J.A.



KRONIKA

# Umorea izan zen nagusi

MIREN ARREGI | OÑATI

Errege bezperan urteroko hitzordua da Oñatin, zalantza barik, bertso saioa. Oñatiko Bertso Eskolak antolatuta, aurten ere ez zuen hutsik egin ekitaldiak. Hala, Zubikoa kiroldegiko pilotalekua bete egin zen Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Julio Soto, Amets Arzallus, Aitor Gaztelumendi eta Unai Iturriaga bertsoetan entzuteko.

## Barre algaraka

Umorea izan zen saioko protagonista. Une ederrak eskaini zituzten tenore horretan bertsolari guztiek, eta oñatiarrek, ondo erantzun, barre algar ederrekin. Akaso gai sakonagoen falta sumatu zen bertso saioan, baina, orokorrean, ikuslegoa pozik irten zen zapatuko saiotik. Umorearen bueltan, une dibertigarrienak sorrarazi zituena Julio Soto bertsolari napar gaztea izan zen: ohiko bertso doinuetatik at, gainera, Gabon doinuak bertso bihurtu zituen maisutasunez, eta hori eskertu zion ikuslegoak.

## Hasieratik, dotore

Hasiera-hasieratik erakutsi zuten bertsolariak maila itzela; agurrean zintzo aritu ziren, oñatiarrek poltsikoratu guran-edo. Berehala hasi ziren bertsolariak une

FITXA	
BERTSOLARITZA	
<b>MAIALEN LUJANBIO, ANDONI EGAÑA, JULIO SOTO, AMETS ARZALLUS, AITOR GAZTELUMENDI ETA UNAI ITURRIAGA</b>	
<b>Non:</b> Zubikoako pilotalekuan.	
<b>Eguna:</b> Urtarrilak 5.	
<b>Iraupena:</b> Ordu eta erdi.	

politik eskaintzen. Aitor Mendiluze eta Julio Soto aita- seme bertsolarien paperean ipini zituen Mirari Sagarzazu gai-jartzaileak. Aitor, aita, eliteko bertsolaria zen, eta Soto, seme bertsoekiko obsesionatua. Ondo defendatu ziren biak ala biak. Ondoren, urte asko eta gero aitaren bisita jaso duen preso baten paperean ipini zuten Iturriaga. Ondo aritu zen hura ere.

## Joxe Agirre gogoan

Abenduan hil zen Joxe Agirre bertsolari azpeitiarrari bertso bana ere eskaini zioten sei bertsolariak. Hala, Oñatiko bertso eskolak bere omenaldi xumea egin zion bertsolari handiari.

## Eliza, atez atekoak, taberna...

Saioko unerik dibertigarrienak, zalantza barik, Egañak, Sotok



Julio Soto kantuan, Iturriagaren begiradapean. | IMANOL SORIANO

eta Iturriagak eskaini zituzten, elkarrekin. Andoni apaizaren paperean eta beste biak ustez elizako poltsatik txanponak ostu zituzten bi kristauren paperean, ederki aritu ziren. Ondoren, Lujanbiori, hernaniar den alde-tik, atez atekoaren inguruan bere

iritzia eman zezan eskatu zion Sagarzazuk. Dotore aritu zen, gehiegi ere busti barik.

Ligatzea, Toberaren epaia edota bestelako gaiak ere jorratu zituzten bukaera aldera, denak ere umorez. Saio ederra izan zen orokorrean Oñatikoa!

# Urtarrilaren 18an hasiko da I. Monologo Mostra, Elgetan

M.A. | ELGETA

Badakar berritasunik 2013ak Elgetako Espaloia Kafe Antzokira, izan ere, Lehenengo Monologo Mostra abiaraziko dute aurten. Zortzi emanaldik osatuko dute I. Mostra; lau urtarrilean egingo dira eta lau otsailean. Urtarrilaren 18an eta 19an Ernesto Sevilla monologista ezagunak *Monologos de Coconut* ikuskizuna eskainiko du. Hurrengo aste bukaeran, urtarrilak 25 eta 26, bi monologista izango dira Elgetan: Sara Escudero eta Miguel Iribar. Sara Escudero *El Club de la Comedia* saioko azken irabazlea da. Miguel Iribar, berriz, Paramount Comedy-ko komikoa eta gidolaria da. Otsailean Pedro Llamasek eta Dani Lopezek emango diote jarraipena Monologo Mostrari. Elkarrekin, *Vaya por Dios: mejorando lo presente* izeneko ikuskizuna egingo dute otsailaren 15ean eta 16an. Monologo Mostra itxeko Dani Mateo monologista entzutetsua izango da Elgetan *PK2: Que Dios nos coja confesados* emanaldiarekin.

**25. URTEURRENA**  
Etor zaitetz gurekin ospatzera!

# Mirari

## JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

*Neurriak 38tik 60ra*

Aprobetxa itzazu!

%20
%30
%40
%50
DESKONTUAK



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

### LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FARMAZIA

### AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL

Oñati / Kale zaharra, 1 / 943 78 01 22

amaiaigartua1@gmail.com

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Apendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

### BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behe / 657720049

### GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

# Mugikorretara egingo du jauzia Ubuntu sistemak

## 2014 urtean merkaturatuko dira lehen modeloak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Software askea garatuz produktuak merkaturatzen dituen Canonical enpresak iragarri du orain arte ukitu gabeko merkatu batera egingo duela jauzia, mugikorren alorrera. Hala ere, Canonicalen atarako duena ez da nukleoan Linux izango duen lehe mugikorra; Android-ek ere hala izan dute. 2006an Motorolakatera zuen modelo bat izan zen lehena.

### Librea eta egonkorra

Software librearen aldarrikapenetatik hurrun, kaleko erabiltzaile sistema honetara gerturatu ahal izateko sistema berriak egonkorra, sendoa, azkarra eta

itxurosoa izan beharko du, bestela mugikorrena bezalako merkatu lehiatu baten jai izango du. Xehetasun larregirik ez dute eman aurkezpenetan baina bai esan ekimen hau harago eraman eta telebistetaraiuno ere iritsi gura dutela Ubuntuarekin. Hori lortzeko eta, batez ere, mugikorretara begira, aplikazio berezi andanarekin etorri beharko du mugikorretarako Ubuntu banaketak eta beharrezkoa izango da web aplikazioekin bateragarritasuna.

Merkaturatze datari dagokionez, ez da hain berehalakoa oraindik: 2014 urtea. Halere, baliteke aurtengo urte amaieran lehen modeloak ikusten hastea. Ordu-

rako sistema nagusiek eguneraketa bat baino gehiago izango dute eskuragarri eta aldi berean merkaturatuko dira Firefox OS, Blackberry 10 edo Tizen OS berriak.

Software librearen sustatzaileentzako eta Ubuntuentzat apustu garrantzitsua da, inondik ere. Mugikorretako Ubuntu hasita ekosistema teknologiko osoa sistema berarekin erabili ahal izateak erabiltzaile asko ekarri ahal dizkio software libreak, zalan-tzarik gabe. Horretarako osagai eta osagarri guztien bateragarritasun erraza ezinbestekoa izango da, ordenagailua eta mugikorra ardatz direlarik.

## Salerosketa webguneetan egin zen iruzur gehien 2012an, dio Poliziak

J.B. | ARRASATE

Espainiako Poliziaren segurtasun teknologikoko alorrak ia-zko iruzur teknologikoen zerrenda osatu eta 5 delitu errepikatuenen azalpena eman du erabiltzaileen salaketa, kontsulta eta laguntza eskaeretan oinarrituta.

### Salerosketa eta alokairuak

Poliziaren arabera iruzur gehien partikularren arteko salerosketa eta alokairu webguneetan gertatzen da. Alor honetan teknologia produktuak, bigarren eskuko autoak edo alokairu eskaintza deigarriak dira komunenak. Aurrez ordaindu beharreko lan eskaintzena da biga-

rren iruzur taldea zerrenda honetan. Hirugarren postuan birus bat aurkitzen da. Kasu honetan erakunde ofizialen izaera imitatuta isun ala diru eskaerak egiten dituzten robotak ugalduta dira 2012an. Delitu honen ildo berean, *phishing* saioak daude. Sare sozialetan eta posta elektronikokoan zabaldu dira *phishing* kasu gehienak: banketxeak zirelakoan, datu eskaerak eginaz, esate baterako. Modu zaharrek ere oraindik bat baino gehiago harrapatu dute oharkabean 2012an eta SMS bidezko harpidetak ala tarifakzio altuko deiak onartzea ere kexa eta salaketa askoren motibo izan dira.

## Smart TV-ak, oraindik orain, soilik telebista ikusteko erabiltzen dira

J.B. | ARRASATE

Telebista inteligenteen jabeek oraindik nagusiki gailua telebista ikusteko bakarrik erabiltzen dute nahiz eta ohiko telebistek baino askoz ere prestazio gehiago eskaini.

NPD analisi enpresak kaleratutako ikerketa baten arabera jabeen %10ak soilik erabiltzen du Smart TV-a Interneten nabigatzeko, adibidez. Erabiltzaileen arrazoi nagusia da oraindik konplikatuena dela da sistemaren geldotasun eta konplikazioarengatik.

Kopuruak, hala ere, ez dira hor gelditzen. Inkestatuen zen-

batekoa ez dute jakinarazi baina bai Estatu Batuetan egin dutela ikerketa eta atera duten beste datu bat da %15ak musika entzuteko ere erabiltzen duela telebista. Erabiltzaile aurreratuak oso gutxi dira eta bakarrik %5a konektatzen da Facebook-era eta hori baino gutxiago da telebistatik Twitter erabiltzen duen erabiltzaile kopurua.

### Kontsolen eredia

Telebista sistema berri horien etsai nagusia joku-kontsolak dira. Prestazio horiek azkar eta erraz eskaintzen baitituzte.



Mugikor bat, Ubuntuarekin. | GENBETA.COM

## Mugikorretarako birusen %99, Android-entzat

J.B. | ARRASATE

2012 urtean mugikorretarako sortu ziren birus guztiak ia (%99) Android sistema eragilea daramaten mugikorrei eraso egiteko sortu ziren. Balantzea eginda, iaiz Dougalek izeneko programa maltzurra izan zen kaltegarriena, hura izan baitzen mugikorretatik informazio pertsonal gehien lapurtzea lortu zuen programa. Txinatarrak ere alor honetan nagusi izan ziren 2012an eta *botnet* soil bati esker lortu zuten 10.000tik 30.000 erabiltzaile bitartean kutsatzea.

Kaspersky etxeak emandako datuak dira eta nabarmendu dute 2012an oso modu nabarian hazi zirela erasoak eta gainera helburu ia bakarra izan zutela guztiek: Android sistema eragilea. Iaz ere Appleko lehen programa maltzurra detektatu zen.

## GPSaren alternatiba Txinan

J.B. | ARRASATE

Hiritarrek erabiltzeko eskuragarri jarri du honezkero Txinako gobernuak GPS Estatu Batuarren alternatiba den Beidou satellite nabigazio sistema. Honela, jabetza militar amerikarrena den GPSaren mende-kotasunetik ihes egitea lortu dute txinatarrak. GPSarekin konparatuta oso sistema apala da Beidou-k erabiltzen duena, 6 satellite baitauzka, GPSak dituen 33en aldean. Hala ere, azaldu dutenez, 10 metroko zehaztasunarekin ematen du lokalizazioa txinatarraren satelite sistemak. Munduan GPSaren alternatiba dira errusiarren Glonass eta Europako Galileo, baina oraindik garapen eta zabal-kunde gutxi dute mende-baldeko bi sistema hauek.

## Whatsapp-eko 18.000 milioi mezu Gabon Zaharretan

Azken hilabeteetan izandako hutsegiteei erantzuteko modu moduan edo, indarra erakutsiz, Whatsapp-etik jakinarazi dute Gabon Zaharretan mundu mailan 18.000 milioi mezu banatu zirela aplikazioaren bitartez. Kopurua oso handia da. Bigarren aplikazio erabili-ena Apple-en iMessage da eta 1.000 milioi izan ziren bidalitako mezuak.

## Facebook Messengerrek ahots mezuak bidaltzen ditu

Facebookeko mezularitza aplikazioak osagarri berri bat du aurrerantzean. Ahots mezuak bidali eta jasotzeko aukera eskuragarri dago honezkero, aplikazio eguneratuz gero.

Ildo beretik, Canadian VoIP bidezko ahots deiekin saiake- ra ere egingo du, doako dei zerbitzu moduan eskainita, hain zuzen ere.



ENGADGET.ES

## Raku-Raku, nagusien telefonoa

Asian sekulako arrakasta izan eta gero, Fujitsu etxearen Raku-Raku edadetuentzako telefono berezia Europan ere salduko dutela iragarri dute. Android sistema eragilearen bertsio sinplifikatu bat izango du Raku-Rakuk, testu handi eta diseinu garbiarekin. 2014an ipiniko dute salgai, behin tokian tokiko moldaketa guztiak egindakoan. Bi milioi telefono saldu gura dituzte Fujitsukoek zabalkunde honekin. Xehetasunak aurki iragarriko dituzte.

# Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



## ABOKATUAK

### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2  
Tel.: 943 76 03 35

### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
[blasaga@conet.es](mailto:blasaga@conet.es)

### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
[zenbaki@zenbaki.es](mailto:zenbaki@zenbaki.es)

## AHOLKULARITZAK

### AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1  
Tel.: 943 76 03 50

### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
[andrama@arrakis.es](mailto:andrama@arrakis.es)

### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
Tel.: 943 71 25 49  
Faxa: 943 71 17 79  
[asegi@asegim.com](mailto:asegi@asegim.com)

### TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
Faxa: 943 71 22 68  
[zenbaki@zenbaki.es](mailto:zenbaki@zenbaki.es)

## ARKITEKTOAK

### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
[www.biark.net](http://www.biark.net)

## ARKITEKTO TEKNIKOAK

### JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4  
Tel.: 943 76 53 53

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuarte esk.  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
[uribesalgo@telefonica.net](mailto:uribesalgo@telefonica.net)

## PROKURADOREAK

### JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.  
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

## ZORION AGURRAK



**OÑATI**  
**Adriana Tomas Heras**  
Urtarrilaren 11n, 21 urte.  
Zorionak, Adriana. Ondo pasatu urtebetetzea. Muxu handi bat exeko guztien partetik. Askok maite zaitugu.



**ARETXABALETA**  
**Araitz Lizarriturri**  
Urtarrilaren 11n, 7 urte.  
Zorionak eta urte askotarako, prexioxa! Ondo-ondo ospatu zure zazpigarren eguna. Patxo goxo-goxo bana Doltza eta Eleneren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Urko Altuna Berasaluze**  
Urtarrilaren 11n, 8 urte.  
Zorionak eta patxo potolo bat etxeko partetik. Ondo pasatu!



**BERGARA**  
**Elixabete Gabilondo**  
Urtarrilaren 9an, urtebete. Zorionak, Elixabete! Ondo-ondo pasatu zure lehen urtebetetzea eta muxu handi-handi bat amatxo, aitaxo eta familia guztiaren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Auritz Llodio Sorraluze**  
Urtarrilaren 9an, 3 urte.  
Zorionak eta patxo potolo bat etxeko partetik.



**ARRASATE**  
**Izaro Artetxe eta Alaine Roa**  
Alainek urtarrilaren 10ean eta Izarok 9an, urtebetetzeak. Zorionak Alaine eta gure kutxurru Izarorentzat. Ondo pasatu zuen urtebetetze egunak.



**BERGARA**  
**Gorka Domenech**  
Urtarrilaren 8an, 8 urte.  
Zorionak, pitxin, jadanik 8 urte. Azkar pasetan da denbora, e? Txokolatezko pastela egingo diguzu merendolarako? Oso ondo pasatu!



**ARRASATE**  
**Izaro Sampedro Elorza**  
Urtarrilaren 8an, 6 urte.  
Zorionak, Izaro, etxeko guztien partetik eta ondo pasatu zure egunien!



**OÑATI**  
**Ibai Moia Reinstadler**  
Urtarrilaren 7an, 9 urte.  
Zorionak, Ibai! Muxu handi bat etxeko eta familiko partetik eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunien!



**ARRASATE**  
**Aiazt Azula Urrutia**  
Urtarrilaren 7an, 5 urte.  
Zorionak, guapetona. Oso ondo pasatu eguna eta muxu handi bat zure amatxo eta aitaxoren partetik.



**OÑATI**  
**Maikel Diaz de Figeroa**  
Urtarrilaren 7an, 27 urte.  
Zorionak, mutil! Segi horrela eta ez inoiz aldatu. Ondo ospatu eguna zure anai eta gurasoen partetik. Mila muxu eta gorantziak!



**OÑATI**  
**Haizea Lopez Lasa**  
Urtarrilaren 7an, 4 urte.  
Zorionak Kanpantxoko gure sorgintxoari, eta egun eder bat pasa dezazula etxeko guztien partetik!



**ARRASATE**  
**Iker Epelde**  
Urtarrilaren 7an, 3 urte.  
Zorionak, enano. Oso ondo pasatu zure urtebetetzea. Askok maite zaitugu. Paul, aitaxo eta amatxo.



**BERGARA**  
**Markel Martinez Garitano**  
Urtarrilaren 6an, 5 urte.  
Zorionak, txapeldun! Zelako mutil handia itxen zaren! Ondo-ondo pasatu eta muxu handi bat guztien partetik.



**OÑATI**  
**Aimar Madina Zubia**  
Urtarrilaren 6an, 9 urte.  
Zorionak, Aimar. Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



**BERGARA**  
**Eneko Miranda Arabolaza**  
Urtarrilaren 6an, 3 urte.  
Dagoeneko 3 urtetxo. Zorionak eta muxu handi bat Ekain, aitaxo eta amatxoren partetik.



**OÑATI**  
**Naroa Moreno Zubia**  
Urtarrilaren 6an, 5 urte.  
Zorionak, Naroa! Ondo pasatu zure urtebetetze egunien. Jaso laztan handi bat etxeko danen, eta bereziki, Aiurren partetik.



**ARRASATE**  
**Mikel Aranburuzabala Loiti**  
Urtarrilaren 6an, 9 urte.  
Zorionak eta patxo potolo bat etxeko partetik.



**BERGARA**  
**Oihan Zubiaga Ilardua**  
Urtarrilaren 5ean, 5 urte.  
Zorionak, mutikua! Segi holako handi itxen eta laster etxian bi gizon. Muxu handi-handi bat aitaxoren eta amatxoren partetik.




**ESKORIAITZA**  
**Garikoitz urzelai barriocanal**  
Urtarrilaren 5ean, 7 urte.  
Zorionak, Gari! Gure etxeko gizontxoak zazpi urte betetzen ditu. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat aitaxo, amatxo, Laia eta familia guztiaren partetik.



**OÑATI**  
**Leire Zelaia Arrese**  
Urtarrilaren 5ean, 15 urte.  
Zorionak, Leire! Ondo pasatu zure urtebetetzea. Muxu handi bat Nerea eta Jonen partetik.



**ARETXABALETA**  
**Laiatz Kintela Uriarte**  
Urtarrilaren 5ean, urtebete. Zorionak etxeko sorgintxoari! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



**ARRASATE**  
**Garazi Nin Ugalde**  
Urtarrilaren 5ean, urtebete. Zorionak, guapisima! Etxeko printzesiak urtebete! Patxo handi bat danon partetik!



**ESKORIAITZA**  
**Aiane Lopez Martin**  
Urtarrilaren 4an, bi urte.  
Zorionak etxeko guztien, tio Eric eta tia Sandraren eta, batez ere, aita eta amaren partetik. Ondo pasatu zure bigarren urtebetetzean eta muxu handi bat.



**OÑATI**  
**Carla Axpe Del amo**  
Urtarrilaren 3an, urtebete. Zorionak, pototi! Muxuak etxeko denen partetik eta bereziki Marina, aitaxo eta amatxok. Mua!



**ARRASATE**  
**Ane Aranzabal Vitoria**  
Urtarrilaren 2an, 3 urte.  
Zorionak, printzesa. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian laguntxo guztiekin. Txokolatezko muxu pila bat familia eta bereziki Unax eta Jonen partetik.



**ARRASATE**  
**Aiazt Laskurain**  
Urtarrilaren 1ean, 4 urte.  
Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat Unai, Haizea eta Eñauten partetik.



**ARRASATE**  
**Nora Justinne Sanchez Sanchez**  
Abenduaren 31n, 9 urte.  
Munduko neskatilarik politenarentzat zorionak eta muxu asko familia guztiaren partetik. Eta urte berri on!



**ANTZUOLA**  
**Irati Aranguren**  
Abenduaren 31n, 4 urte.  
Gure etxeko txikiari zorionak bere laugarren urtegunean. Ondo ospatu familia guztiaren partetik eta bereziki Maialenen muxu handi bat.



**OÑATI**  
**Josu Zubia Fernandez**  
Abenduaren 30ean, 6 urte.  
Zorionak zure familia guztiaren partetik. Aita, ama eta Eñaut.



**OÑATI**  
**Iñaki Larrañaga Etxeberriarte**  
Abenduaren 30ean, 7 urte.  
Zorionak, Iñaki! Familia danaren partetik muxu pila bat jaso eta ondo-ondo pasatu zure egunian.




**BERGARA**  
**Laida Unamuno Lopez**  
Abenduaren 29an, 4 urte.  
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta jarraitu holako alai eta politza izaten. Patxo handi bat Zalao, aitaxo eta amatxoren partetik.



**OÑATI**  
**Irati Letona**  
Abenduaren 29an, 2 urte.  
Zorionak, Irati! Ondo-ondo pasatu zure bigarren urtebetetze eguna. Bi patxo handi familia danaren partetik.



**OÑATI**  
**Unai Blazquez**  
Abenduaren 29an, 3 urte.  
Zorionak, Unai, zure 3. urtebetetze egunian. Ondo-ondo pasatu eta marrubizko muxu pila-pila patata tortilla danon partetik, batez ere zure anai Oxelek.



**BERGARA**  
**Mireia Olabarria Jauregi**  
Abenduaren 28an, 21 urte.  
Zorionak eta urte askotarako, potxola! Kostata baina heldu dia 21 urtiak zuregan be. Patxo handi bat kuadrilakuen partetik!




**ARETXABALETA**  
**Irati Guenetxea Bengoa**  
Abenduaren 28an 7 urte bete zenituen. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat etxeko partetik.



**ARRASATE**  
**Paula Barrionuevo**  
Abenduaren 26an, 12 urte.  
Zorionak eta patxo handi bat etxeko danon partetik!



**ARRASATE**  
**Nati Mena Moya**  
Abenduaren 25ean, 45 urte.  
Zorionak, tia Nati! Oso ongi pasatu eguna eta kontuz txanpainarekin. Txokomarrubizko patxo pila-pila, patata tortilla, etxeko partetik.



**OÑATI**  
**Aetz Larrea Negeruela**  
Abenduaren 25ean, 3 urte.  
Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat aitaxo, amatxo, Hegoa eta Beñaten partetik.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaitetz [Goiena.net](http://Goiena.net) atarian eta *Zorion agurra* bidali botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzezko 11:00ak arte jasotako zorion agurrik bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## OROIGARRIA



### Juan Luis Errasti Idigoras



Gasteizen hil zen 2012ko abenduaren 24an.

*Aitita, zure alaitasuna gure bihotzean izango dugu beti.*

Ahinitze, Maier, Asel, Joyce, Enara eta Hodei.  
Aretxabaletan, 2013ko urtarrilaren 7an.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

**Goiena: irakurriena Debagoiengan.**

### ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.

**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## JAIOTAKOAK



### Carla Lumbreras Delgado

Oñati. 2,950 kilo. Urtarrilaren 1a. Gurasoak: Goretti eta Angel. 2013an Debagoiengan jaiotako lehen umea izan da Carla. Argazkian, sehaskan lo.



### Malen Irazola Sanchez

Bergara. 3,600 kilo. Urtarrilaren 2a. Gurasoak: Almudena eta Unai. Argazkian, Malen aitaren besoetan.



### Alain Garmendia Urzelai

Aretxabaleta. 3,500 kilo. Urtarrilaren 2a. Gurasoak: Ergina eta Imanol. Alain jaioberria anaia Martin eta Lizarrekin.



### Leiane Valle Vazquez

Elgeta. 3,870 kilo. Urtarrilaren 2a. Gurasoak: Eneritz eta Iker. Argazkian, Leiane amamarekin eta tia Begorekin.



### Garazi Larral Axpe

Oñati. 3,370 kilo. Urtarrilaren 2a. Gurasoak: Amaia eta Iñaki. Argazkian, Garazi jaioberria sehaskan lo.



### Markel Valenti Martin

Arrasate. 3,550 kilo. Urtarrilaren 1a. Gurasoak: Arantzazu eta Sergio. Argazkian, Marel jaioberria sehaskan lo.



### Aizpea Arrese Ovejero

Arrasate. 3,350 kilo. Abenduaren 26a. Gurasoak: 3,350. Argazkian, Aizpea jaioberria sehaskan lo.



### Oier Martin Anaya

Eskoriatza. 3,020 kilo. Abenduaren 26a. Gurasoak: Eva eta Jose Luis. Argazkian, Oier jaioberria gurasoekin.



### Markel Garay Alberdi

Arrasate. 4,310 kilo. Abenduaren 24a. Gurasoak: Ana Jesus eta Joseba. Argazkian, Markel amaren besoetan.



### Unax Teixeira Andres

Arrasate. 3,300 kilo. Abenduaren 27a. Gurasoak: Laura eta Iker. Argazkian, Unax jaioberria gurasoekin.




### Beñat Velasco Gomez

Arrasate. 2,750 kilo. Abenduaren 23a. Gurasoak: Susana eta Ivan. Argazkian, Beñat arreba Norarekin.



### Aitor Beistegi Frias

Bergara. 3,240 kilo. Abenduaren 23a. Gurasoak: Iker eta Arrate. Argazkian, Aitor jaioberria sehaskan lo.



### Izadi eta Egoitz Zabala Cabero

Aretxabaleta. 2,200 eta 2,900 kilo. Abenduaren 24a. Gurasoak: Xabi eta Inma. Argazkian, Izadi eta Egoitz.

## Jaio da!

**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.  
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.  
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



## AI, ENE!

### Kamiseta erantzi arte, dena bikain...

Gabonen ostein, askok gerrikoa nasaitu beharko dute. Hona hemen, jantzita gaudela, behintzat, gihartsu itxura emateko trikimailua. [www.facebookfails.es](http://www.facebookfails.es)



## AHOBERO

### "Espainiarrek militarren ahaleginarekin lan egingo balute, hobeto joango litzateke dena"

MARIANO RAJOY | ESPAINIAKO PRESIDENTEA

Afganistanen Espainiako tropak bisitatzeko ari zela esan zituen hitzok Rajoyk. Badirudi Espainiako presidenteari ahaztu egin zaiola arazoa ez dela, hain zuzen ere, lana ahalegin handiagoarekin edo txikiagoarekin egitea, lana bera izatea baizik.

[www.abc.es](http://www.abc.es)

## EGURALDIA



Max. 12°

Min. 3°

Eguzki tarte luzeekin jarraituko dugu eta arratsaldean 13-14 °C-ko tenperatura. [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2013-01-07

## HAMARREKOA

**Iñaki Ortiz de Villalba** Abeslari gasteiztarra eta Betagarriko gainerako tropa guztia Oñatin egongo dira egubakoitzean, kolaborazioz beteta dagoen *Zorion argiak* izeneko euren azken lana aurkezten. | TXOMIN MADINA

## "Agertokiko pertsona naiz, ez zait askorik gustatzen grabatzea"

**1. Disko berria aurkezteko lehen kontzertuen ostein, zein da sensazioa?**

Nahiko ona, inoiz ez dugu sumatu jendearen horrelako erantzunik. Ez kopuruagatik; kantu berriak izan arren, jendeak lehen kontzertuetatik bazekizkielako baizik.

**2. 23 argik osatzen dute zuen lan berria. Ez dira gutxi!**

Kolaboratzaileek 11 abesten dituzte, nik 12: hiru urtetako lan oparora bildu dugu. Disko normala izan behar zuen, baina abesti bitxiak zeuden, beste batzuek abesteko modukoak; aukera eman digu beste era bateko diskoa egiteko.

**3. Fabore asko eskatu dituzue hainbeste kolaboratzaile lortzeko?**

Laguna gauza on eta txarretarako zara; baita *marroietarako* ere. Kolaboratzaile gontzartzen nautenean, kolaboratzen dut, eta inguruko jendea ere halakoa dugu. Denekin dagoen zubia da 20 urteotan gure bidean gurutzatu direla.

**4. Amestu... zeini eskatuko zenioke zuekin kolaboratzeko?**

The Clash taldeko Joe Strummerri. Haiek izan ziren reagea, ska, rocka eta punka uzartzeko lehenak; aldarrikatzeko eta dantzatzeko modua zegoela erakutsi zuten.

**5. Betagarri familian, zein zara: aita, ama ala seme erbeldea?**

Denetik: gurasoen rola ez dut inoiz jokatu, baina gustatzen zait rol guztietan saltseatzea. Taldean asanbladan hartzen ditugu erabakiak.



### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

#### "Banaketa duina egingo nuke"

"Gutxi batzuen eskuetan dagoena guztion eskuetan jarriko nuke, eta banaketa berdintsua izan dadila: nik uste dut guztiok nahi duguna bizi izatea bakarrik dela, ez gehiegirekin edo besteak baino gehiagorekin. Bada, ondasunen banaketa duina egingo nuke".

**6. Abesten, non gusturago, estudioan ala agertokian?**

Agertokiko pertsona naiz, ez zait askorik gustatzen grabatzea. Ez dut oraindik lortu horrela behar bezalako ahotsa ateratzea, egoerak baldintzatzen zaitu. Zuzenekoetan ere bai, baina ezberdina da: grabatutakoa bizi osorako geratzen da.

**7. Eta publikoa hotz badago, zerk ez du hutsik egiten?**

Askotan, ez dago nola mugitu behar ez dugun sasoi; erne egon behar dugu. Baina gauzak gaizki daudela esan bakarrik ez, nola aldatu ere pentsatu behar da.

**8. Sindikatu bateko langile ohi ikuspuntutik, nola deskribatuko zenuke egungo egoera?**

Egoera latza da, burua makurtu behar ez dugun sasoi; erne egon behar dugu. Baina gauzak gaizki daudela esan bakarrik ez, nola aldatu ere pentsatu behar da.

**9. Tabernan sartu eta Betagarri jarrita dagoela entzuten baduzu...**

Lotsatu egiten naiz, ez nago eroso: seguruena, ingurukoek ez dute jakingo ze musika den, edo nor naizen ni, baina... batetik, harro, ni naizelako; bestetik, lotsatuta.

**10. Zer du Gasteizko gauak beste inon aurkitu ez duzunik?**

Beti izan du zerbait, eta segitzen du kultura eta musika arloan puntako hiria izaten. Areto eta tabernek zuzeneko asko antolatzen dituzte: ia astelehenetik igandera musika entzuten egon zaitezke.

## BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



Urt3 berri on

Ondo amaittu eta ondo hasi !?". "Bai, zera! Hemen ez dok ez ezer akabetan, eta ez ezer hasten; hemen danak jarraitu baino etxok eitten, betiko antzera". Hori dio nire lagun batek, gabon zaharretako agur konbentzional horiek, alkarri egiten ari ginen bitartean.; Pentsatzen hasita, beharbada arrazoi du; edo ez du; batek daki; perspektiba kontua, seguruena; dena den, 2012.a, (oiñatiaz esanda) "fan xaku" eta 2013.a (zubereraz erranik) "jin zaiku" ; dena den, urte berri honi begira, batzuek, hobe izango den itxaropenez ari diren artean, beste asko, laino beltz gehiago ikusten dutelako edo, aurrekoa heinean pasatuta ere pozik leudeke; niri neuri, beste adiskide bati etzundakoa etorri zait burura: "zorionak, etxetik bota ez bahaute, behintzat". Zer pentsa ematen duela, ez da hala ?. " edota lanetik !" gehitu genezake eta pentsatzen jarraitu zer egin, fatalismoari aukerarik eman gabe, 2013.a, zoriak zori, hobe izan dadin, baina denontzat; eta sortu zaidan ideia batez amaitzera noa: ez litzateke askoz ere hobe izango, ( lana galdu dutelako edo auskalo zein arrazoi gainerotzirengatik), etxea ordaindu ezinik dabilzanak kaleratu orde, espetxeetakoak kaleratu eta kalean direnak etxeratu ? Urtarrilak 12, Bilbon dugu aukera. URT3 berri on! Eta hurrengo Toberan balantzea.



Hipermerkatuak



zurekin

Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30

[www.grupoeroski.es](http://www.grupoeroski.es)